Gueñesko batzokira joan da Eguberriko loteriak ekarritako sari handiena / 8



Ikastolen pribilegioak laster amaituko direla dio Fernando Buesak elkarrizketan / 6-7



Elgorriagak ASOBAL Koparako txartela lortu du Barcelonari irabazi ondoren / 19

EUSKALDUNON Egunkaria

Igandea, 1991ko Abenduak 22 / II. urtea / 325. zenbakia / Salneurria: 85 pta. / 4,5 libera

BERTSOLARITZA

Gipuzkoako finala gaur Belodromoan

Gaur erabakiko da Gipuzkoako bertsolari txapela nork eramango duen, goizeko 11etan Donostiako Anoeta belodromoan hasiko den finalean. Lizaso, Euskitze eta Egaña dira faborito nagusiak. / 25-26

SESB ehortzi eta EIK sortu dute 11 errepublikak

Soviet Batasuna osatzen zuten hamabost errepubliketatik hamaikak Estatu Independienteen Komunitatearen (EIK) sorrera eta Soviet Batasunaren desegitea sinatu zuten atzo Alma Ata (Kazakhstan) hirian egindako bileran. Hamaika lehendakariek Mikhail Gorbatxovi gutun bat bidaltzea erabaki zuten, lehendakaritza sovietarra ere desagertu egin dela adierazteko. Baltikoko hiru errepublikak eta Georgia baino ez dira geratu Komunitate berritik kanpo, baina Georgiak aurrerago bertan sartzea erabaki dezake.

Arma nuklearrak aginte bakar baten kontrolpean ipintzea erabaki zuten EIK-ko agintariek, eta Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluko aulki sovietarra, Ieltsinek nahi bezala, Errusiak beteko du. / 15

Athletic zulora itzularazi zuen Valenciak (2-3)

Athleticek galdu egin zuen atzo Valencian kontra San Mamesen (2-3). Lehenengo zatia markagailua alde zutela amaitu bazen ere (1-0, Garitanok penaltiz), 2. zatian valenciarrak nagusitu ziren. Bost minutuko tartean bi gol egin zituzten Eloy eta Penev-ek (penaltiz), eta hirugarrena Fernandok sartu zuen Iruren huts bati esker. Azken gola, denboraz kanpo, Zigandarena izan zen.

EGUNKARIA k 85 pezeta gaur

Gaurko egunez, Hego Euskal Herrian ohizkoa denez, 85 pezetan salduko dira egunkariak. Igoera horrekin, bikoiztu egiten da Eguberriak direla medio egunkari saltzaileei eskaintzen zaien komisioa. Ipar Euskal Herrian ez dago salneurri aldaketarik.

Hil honen azken egunean 102 urte betetzekoa zen Joxemiel Barandiaran.

JOSE SIMAL

On Joxemiel, agur

Ataungo herrian emango zaio gaur lurra Barandiaranen gorpuari

Joxemiel Barandiaran etnologo eta antropologo ataundarra atzo hil zen, 101 urte zituela, goizaldeko bostetan, Ataungo Sara bere baserrian. Azken arnasa hartu zuen arte, hurbileneko senide eta lagunez inguraturik egon zen maisu zaharra. Ataungo hilerrian emango zaio gaur lurra Barandiaranen gorpuari. Aurretik, arratsaldeko 4.30etan, hileta elizkizunak egindo dira San Gregorio eliza nagusian.

Joan den astearte eguerdian hasi zen Joxemiel Barandiaranek azkenean ezin gainditu izan duen krisia. Donostiako Arantzazuko Ama eritetxera eraman zuten, zentzumena ia-ia erabat galduta eta arnasa hartzeko zailtasun handiak zituela. Hala ere, arratsaldean onera egin eta Ataungo bere etxera eraman zuten berriz, baina herenegun arratsaldean arnas-bihotz gutxiegitasuna larriagotu egin zitzaion, eta medikuek esperantza galdu zuten. Elizakoak hartu eta gauean, apurka apurka itzaldu egin zen Ataungo maisu handia, harik eta gaueko bostak inguruan hil zen arte.



Gaur egingo dira hileta elizkizunak.
CARLOS VILLAGRAN

Hil kapera Barandiaranek lanerako erabili ohi zuen gelan ezarri zuten atzo goizean, antigoaleko hilzapi baten gainean eta era zaharreko haltzariz inguraturik. Kultura eta politika munduko jende asko pasatu zen egun osoan zehar hil kapera horretatik, ikerlari ospetsuari azken agurra emateko. Hil honen azken egunean 102 urte betetzekoa zen Joxemiel Barandiaran. / 21-24

BESTERIK

POLITIKA

EE «indarberritzeko» V Kongresua egingo dute ofizialek datorren otsailean / 4

GIZARTEA

Intsumisioaren aldeko manifestazioa egin zuten atzo Baionan / 8

EKONOMIA

Arrasateko kooperatiba taldeak Korporazio bilakatzea erabaki du III Kongresuan / 12

KIROLA

Reala A Coruñara eta Osasuna Sevillara, etxetik kanpo garaipen bila / 19

ESPAINIAKO LOTERIA NAZIONALEKO ZERRENDA OFIZIALA ERDIKO ORRIALDEETAN

Alberto Elosegi, «UNICEF» saria

MARTIN UGALDE

ALBERTO Elosegi, abokatu eta kazetari donostiarrak irabazi du aurten Estatuan 'UNICEF'ek urtero ematen duen kazetaritzarako saria. Erbesteratu eta euskaltzaleen artean oso ezaguna bada ere ('Paul de Garat' izenordea ere asko erabili du), gaur ez da Euskal Herrian merezi duen hainbat ezaguna. Caracaseko *Momento* aldizkarian urteak egin zituen bere idazlaritzako buru bezala (Gabriel Garcia Marquez taldeko), Venezuelako basamortutik 1964ean emititzen hasi zen 80 Kw.ko 'Radio Euskadi-2'ko gionista nagusi izan zen; Jeorge L. Steer britaniarraren *The tree of Gernika* gaztelerara (*El arbol de Gernika*) berak itzuli zuen maisuki. Bera izan zen urtetan isilpean zabaltzeko Caracasen egiten zen *Gudari* aldizkari ernaiaren zuzendari; hau izan zen Venezuelako bizimodu erosoa utzi eta herriari serbitzeko Londresen kazetaritzako lanak eginez estuasun haundian artean bere familia opatsua, Jone emazte fidela ondoan, aurrera atera eta Franco hildakoan Ajuriagerraren esanetara Miarritzen lanean jarri zena. Gauza asko da, beraz, gure lagun mina den Alberto Elosegi. Eta orain, mutu jaio zen seme baten operazio zailak urduri dagoen abokatu, kazetari, eta idazleak (*Jesus de Galindezen Biografia* argitara berria duena) Deian argitaratu zuen lan hunkigarri bat dela eta ('Setenta millones de niños viven en la calle') eman diote sari aberatsa. Ez diruz, Albertok ez bait du inoiz dirurik kontatu, baizik eta munduko haurrei laguntzearren euskal abertzale eta unibertsal (ez PSOEko) denak joan den maiatzean idatzi zuena. Zorionak zuei Alberto eta Jone! Zuen euskal abertzaletasuna eta munduaganako dugun erantzukizuna lotzen jakin duzutelako. Eta hau herrian ez bada ere, 'UNICEF'ko arduradunak konturatu direlako.

Zirrikitu bat, mesedez

ANJEL LERTXUNDI

MOLIEREren *Le bourgeois gentilhomme* irakurri duenak ondotxo daki ez dagoela munduan sindrome patetikoagorik aberats berriarena baino: eskuetan barra-barra darabilen diruak harrokeriaren inpunitatea ematen diolakoan, ez da ohartzen zenbateraino den irrigai, fantasia hutsalaren irudi, jauregiko pasiloetan barrena biluzik dabilela salatuko ez dioten baronet. Festa eta fausto alferretan gastatzen du dirua, errekonpentsaren erizpidez banatzen eta saritzen inguruko ahoeztien balakua, dibertigarri zaio ikustea bere mahai gainezka eginetik eroritako ogi apurretara nola inguratzen diren uauka zakurrak, ipurdi bistan tximuak, mokoa zorrozturik bele beltzak.

Agintera iristen den politiko ororen arrisku latza da Moliére-ren obrako Jourdain aktorearen papera bere egin eta interpretatzeko tentaldia.

Barra-barraren proiektu fantasiosoek, ordea, sarri dakartenez porrota, imajina dezagun aberats berri horrek arazo finantzieroak dituela. Behin tenore horretan, nahiago izango du seme-alaben eskola ordaindu gabe utzi, harakinarenean zorrak egin, soziedade gastronomikoan baja eman bertako bazkideen buila gehiegia argudiatuz baina, itxuren farfailari eusteko, dituen guztiak jorratuko ditu dirua zer den benetan dakitenekin —Moliére-ren komediako Jourdain-entzat turkoak ziren gure gaurko dolardunekin—, pentsatuz hauen kide eta klub bereko dela. Gauzak hala, eta pobreak oso gutxirekin konformatzen garenez, zirrikitu baten jabe izan nahi nuke Berlusconi, Guggenheim eta enparauak ez direla gure kontura irri karkaka ari ikusteko.

HEMEROTEKA

●Diario de Navarra

Zehaztapenak

UPNko organoei dagokienean, horiek behin baino gehiagotan agertu dira ildo berean. Horrela agertu ziren Bakea eta Tolerantziari buruzko Akordioa sinatzean eta III Kongresu Erregionalean (1989ko urtarrilaren 29a) bere ponentzia programatikoa onartzean, non negoziazio politiko oro arbuiatu eta «inolako baldintzarik gabe, ekintza terrorista oro segituan alde batera uztea» exigitu zen. Eta Batzorde Exekutiboa ere horrela agertu da bi aldiz hilabete honetan: hilaren 9an, ETAk suetenerako eta elkarrizketarako egin eskaintza arbuiatzean eta hilaren 16an, talde terroristarekin elkarrizketa oro baztertzea berrestean, «aurretik indarkeriari uko egin eta sistema demokratikoa onartzen ez bada, eta bergizarteratze neurri posibleei buruz iharduteko helburu bakarrarekin». Guzti hori aho batez eta Juan Cruz Alli beraren aldeko botoarekin.

JAIME IGNACIO DEL BURGO

Komunismoaren heriotza. «... eta hiru mila buru [nuklear] uzten dizkiet nire iloba uzbekiar maiteei...»

BUCCHI / LA REPUBBLICA

●The Guardian

IRAren jokoa

Merkatu batean larunbatean eta galeria batzutan igandean. Asteazkenean, jenderik gehiena ibiltzen den garaian, bonba bat Londreseko trenbide nagusi batean. Zalantzarik ez lehendik ezaguna zenaren segida baino ez dela. (...)

Hiriburuko egunkarien eguerdiko edizioetako titularrek zera zioten, adibidez: «IRAko bonbakariek Londres itxi dute». Ez da egia. Jende askok lanik egin ezin izan bazuen ere, milioi bat lagun baino gehiagok egin zuen.(...) Londresek kanpaina honetan jasan duena ezin da gonparatu Ipar Irlandak azken hogei urteotan jasan duenarekin, eta bereziki aurten jasan duenarekin, 80 pertsonek galdu bait dute bizitza. Ez sabotaiek eta ez hilketek ez diote onik egingo Joan Paulo aita santuak «zilegi eta demokratikoa ez den borroka» deitu duenari.

EDITORIALA

●EL MUNDO

Zerria eta Mitterrand

Mitterrand, Frantziako presidenteak egun hauetan esana duenez, liberalismoak —hots, merkatuaren jokoak— ez du berez, hegoaldeko herrien gosetea eta miseria konponduko. Etiopian edo Senegalen zerriak flako eta hezurti zirela bagenekien Mitterrand presidenteak esan gabe ere, baina ez dago gaizki hain gizon jantziak hegoaldeko miseriaren akta ezinbestekoa jasotzea.(...)

Konstituzio plazako zerriak, ordea, Mitterrand Handiaren argudioa zilegiztatzen du, eta hortan datza bere meritua: liberalismoaren mugak nabarmentzen. Bere noblezia gizenarekin Sto. Tomaseko urdea munduko ordena berriaren salatzaile bihurtzen zaigu eguberri bezperan.

LUIS HARANBURU-ALTUNA

ZUZENDARIARI

Badator Olentzero Leitzarandik

Ez al zenekien oraindik? Laster Olentzero Leitzarandik etorriko zaigu. Leitzaranen bizi baita aspaldidanik.

Bai, halaxe da, beste zenbait tokitan, haran eta mendi tartean bizi eta egona da. Nafarroatik igarotzen denean Olentzaro deitzen diote. Baina, leku guztietan ez bada ezaguna ere izen beraz, guztiontzat gure Olentzero gizon maitagarri eta zoriontsua da.

Eta Leitzaranen dago. Tolosatik oso oso gertu. Tolosa, Gipuzkoako bihotz erdian kokaturik, aintzinatik izan da euskaldunon artean pasaleku zoragarria. Tolosan, betidanik ikusi izan dira kolore desberdineko txapelak. Bertan, urte askotan eman den jendearen joan-etorriarengatik, nola Nafarroatik Durangora hala Gohierritik kosta aldera, komunikabidegune garrantzitsuenetariko bat bilakatu da. Behar bada, horregatik, joan zen Olentzero bizitzera hara, euskaldun guztiongandik gertuago egoteko, beti bezain liluragarria den haran horretara.

Baina, ...berak hainbeste maite duen lurralde hori oraingoan goitik behera zulatu nahi dute batzuek. Eta inguruko bazterretan ikaragarrizko makinaz dena suntsitu eta puskatzen ahalegintzen ari direnez, egun hauetan haserre bizian dago. Artaburu horiek!

Gabonetarako, berriz, beti bezala, gure Olentzero Leitzarandik etorriko zaigu opari eder eta asko ekarriz. Eta berak jakin badaki, zer den herri honetan gehien maite duguna: bakea ezarriko duen akordioa ekarriko du, lanak ondo eta elkarlanean egin eta eguberriak pozik igaro ditzagun.

Aurretik, ordea, aurten gipuzkoar guztioi zertxobait ere eskatzen diegu: hilaren 22an denok Tolosan bildu beharko dugu, gure indar guztiaz elkarrekin ozenki adierazteko Lurraldearekin akordio hori behar dugula eta hainbeste gustatzen zaigun kanta hori abesteko: Tturrukutu kuttu Leitzaran ez ikuttu,...

LURRALDEAREN LAGUNTZA TALDEA

Tolosa (Gipuzkoa)

UAri Errioxatik»

Sarri askotan egunkarietan zuek botatako 'perlak' ikusten ditudanean, barre pittin bat egiten dudala aitortu behar dizuet, baina oraingoan ez dut barrik egin, haserretu baizik. Oso larria iruditu zait zuek esan duzuena, hots, Euskara ez dela Arabako berezko hizkuntza eta, oso larria izateaz gain, sekulako astakeria da; nik ez dakit zertan oinarritzen zareten horrelako gauzak botatzeko, —agian neguaren indarrez teilatua itokinaz beterik duzue eta— jakin badakit zuetariko baten bat etorkina dela hona Euskal Herrira, horrexegatik ez du jakingo Euskal Herriko edozein Herrialdeko hizkuntza Euskara dela edo agian ez du onartu nahi, behar bada, bere ikasteko ahalmen ezak bultzaturik edota oso eskergaitzekoa delako eta beste herri batera doanean berea ezarri behar du bertakoa ukatuz eta zapuztuz. Auskalo! Jarraian kontatuko dudanak oso agerian uzten du Unidad Alavesaren hankasartzea, honako hau:

«De una fazanya de Don Meriño Mayor, et del Alcalde de Oia-Castro. Esto es por fazanya que el Alcalde de Oia-Castro mando prendar Don Moriak que era Merino de Castiella, porque juzgara que el ome de Oia-Castro si le demandase omen de fuera de la Villa o de la Villa de Oia-Castro, que el recudiese en *vascuence*. Et de sopo Don Morial en verdad, que tal fuero habian los de Oia-Castrom e mandol dexar e dexaronle luego que juzgase su fuero».

Honen aurrean biziki eskertuko dizuet galdera hauen erantzuna:

Nola demontre gerta zitekeen horrelako gauzik Hego Euskal Herrian dagoen herri bateko biztanleek eskubidea izatea epaiketetan Euskaraz egiteko?

Errioxako gure asabek nola lortu zuten Hizkuntza Araban hitz egiten ez bazen?

Zuen erantzunaren zain, agurtzen zaituztet.

TINTXU RUIZ

Abalos (La Rioja)

PERTSONAIA

Joxemiel Barandiaran

Ez dakit ondo ohartzen geran
aita Joxemiel nortzan
102 bi urte herria eta
Jainkoarentzat morrontzan
haunditan haundi izanagatik
beti apal eta otzan
euskaldunentzat eredu garbi
bizitzan ta heriotzan.

IMANOL LAZKANO

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE
Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JUAN MARI TORREALDAI
Kontseilari Ordezkaria: JOXE MIEL ZUMALABE
Gerentea: INMA GOMILA

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA
Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI, LUZIEN ETXEZAHARRETA, IÑAKI URIA
Publizitatea: KORNELIO ROTETA

EUSKALDUNON Egunkaria

Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK
Erredakzio eta Tailerra: Lasarte-Oria Industrialdea / Antza. 01-02 Pabilioak / 20.160 Lasarte-Oria / Telef: 37 07 38
Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / Telef: 45 59 57 / Faxa: 46 90 22
Araba: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / Telef: 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / Telef: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77
Gipuzkoa: Loiola, 14-1.3 / 20005 Donostia / Telef: 42 69 96 / Faxa: 42 93 18
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.ezk. / 48002 Bilbo / Telef: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60
Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / Telef: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11

Bakerako lanabesa

Ez da sekula honenbeste idatzi honen gauza gutxi esateko. Hauxe dateke, zoritxarrez, azken hilabeteotan egunkari gehientsuenen iritzi sailek negoziazio politikoaz argitaratu dutena irakurri eta gero ateratzen den lehen konklusioa. Izen handiko komentarista askotxok bere hitz jarioaren mamia murriztera jo du, ezinbestean 'negoziazioari ez' sinplekerian eroriz, bi hitzetan esan daitekeena zenbait sasi-argumentazio etiko zein politikorekin janzten badute ere. Ezer gutxi ekarri diote editorial eta komentario bukaezinok euskal gizarteari, Corcuera ministroak esandakoak ere finago batez errepikatzeaz aparte, noski.

Negoziazio politikoaren auzia, esanak esan, Euskal Herriko etorkizunari so egin nahi dion edonork kontutan hartu behar du, ezbairik gabe. Nola errefuxatu denok pairatzen dugun gatazka mingarriari konponbiderik eman diezaiokeen bide hau? Izan ere, gatazkak, Hego Euskal Herria eta Estatu espainola aurrez aurre jartzen dituen gatazkak alegia, bere horretan dirau, Ajuria Eneko Itunak berak, nahitaez, onartu behar izan duenez.

Begi bistakoa da, beraz, hamabost urte igaro ondoren Estatuak ezin izan dituela, eginahalak egin arren, euskal erreibindikazioak zokoratu proposamen estatutario ustelaren bidez. Ukaezin bilakatu den errealitate honen aurrean ezin da egungo statusaren legitimitatea aldarrikatu, hainbat alderdik egiten duen moduan, euskaldunok geure gizartea eraikitzeko zer arau behar ditugun ez baitugu erabaki. Ahalbide hori ez izateak, hain juxtu ere, luzatzen du euskal afera, egungo sistemak, berari atxekirik dauden indar politikoen bitartez, eskaintzen digun jokalekuak konpon ezin dezakeen afera, mina eta gorrotoa sortarazten duen afera eta —hona hemen gauzarik inportanteena— arrazionaltasun bidean jarri behar den afera. Azken honetan, kokatzen da negoziazio politikoaren proposamena eta, zeresanik ez, beharra.

> ESTATUAK ETA BERAREKIN BAT DATOZENEK BENETAKO BAKEA LORTZEKO ETA-REN MALGUTASUN ETA BORONDATEAREN ERDIA IZANGO BALUTE, HONEZ GERO ONIK LEGOKE EUSKAL HERRIA.

Baina ez dirudi Estatua oraingoz erronkari ekiteko prest dagoenik, bere estrategia errepresiboaren barruan 'negoziazioaren' elementua albora badezake ere. Halere, negoziazioa hitzari jarri dizkiodan komatxoak behar beharrezkoak dira, Estatua, tresna hau desitxuratuz, ezker abertzalea eta euskal erreibindikazioak porrot egin dezaten ahalegindu daiteke-eta. Azken batean, egurra erruz eman ondoren, ezker abertzalea ate txikitik pasaeraztea dateke espainiar Gobernuaren helburua. Hor, eta ez beste inon kokatuko lirateke irtenbide poliziak 'huts-hutsaren' baliagarritasuna zalantzan jarriz Paktoko hainbat buruzagi politikok egiten dituen adierazpenak.

Sasi-elkarrizketaren amarru honek, ordea, ez du lan errazik, ezker abertzaleko bakarren batek, hainbat aldrebeskeria politiko plazaratuz, estrategia honen alde, berariaz ala ez, egin badu ere. Madrilek nahi baino zailtasun handiagoak ditu ezker abertzalea itzulera gabeko tren horretan sartzeko. Duda izpirik gabe gainera. Izan ere, Aljer-eko elkarrizketek eta ondoren izandako harreman edo kontaktoek argiro erakutsi dute ETA erakundeak, proposamen eta kontra-proposamen trukaketa horretan negoziaziorantz abiatzeko nahikoa malgutasun azaldu duen neurri berean, ez duela gure herria amildegiko bidean jarriko, duela gutxi argitaratu den elkarrizketan eta eritzi publikoan ezaguna den bere barne dokumentazioan konproba daitekeenez. Estatuak eta berarekin bat datozen indar politikoek benetako bakea lortzeko horien malgutasun eta borondatearen erdia izango balute, honez gero onik legoke Euskal Herria.

INAKI ALTUNA
HB-KO MAHAI NAZIONALEKO KIDEA

Mc. Donelletik Mc. Donald' sera?

Aitortzen dut Mc. Donell-Douglasek geure diruarekin ezarri behar duen ustezko abioi lantegiaren kontuak egunetik egunera gehiago aspertzen nauela. Ideia hori interesgarria izan zen duela ia bi urte, horri buruz Bizkaiko Diputazioaren inguruan zebiltzanak hitzegiten hasi zirenean, baina egitasmoaren zifrak pixka bat aztertu ahal izan zirenean, gaiak ez zuen askorako eman eta orduko Eusko Jaurlaritzako kide garrantzitsu batzuk aurkako iritziak eman zituzten.

Baina 91ko gobernu aldaketek badirudi harrotu egin dituztela sugeak sorgintzen trebeak diren Pradera eta Azua, eta gu denok gogaitzen ari dira enpresarialki bideragarria ez den proiektuaren kontuarekin.

Lehendik azaldu dudan bezala, proiektu horren inguruan mugitzen den paper multzoaren artean zaila izango da folio pare bat egotea, etorkizuneko enpresa horren ustezko hustiapen kontuari buruzko datuak dituenik, eta hori Gobernua bere eraikuntzarako 130.000 milioko dirulaguntza emateko prest dagoela esaten duten arren.

Azua eta Pradera jaunek dituzten datu gutxietatik, inoiz ez garela proiektu serio baten aurrean egon ondorioztatzen da. Funtsean, Mc. Donnell-Douglasek merkatuan jartzeko asmoa duen abioi berri baten hegalak egitea da kontua, eta horrela euskal lantegiak, beharrezkoak izan daitezkeela uste den 400 hegalak egingo lituzke. Hegal bakoitzaren balio erantsia 540 milio pezetakoa izango dela kontutan hartuta, oso erraza da jakitea proposatzen digutena zera dela, datozen hamar urteotan Euskadin 216.000 milioi pezetako balio erantsia, aberastasuna —oso kontutan hartzeko zenbatekoa— sortuko duen lantegia ezartzea.

Arazoa instalazio horren kostuak aztertzean sortzen da. Amerikarrek aurkeztutako ikerketen arabera, 202.000 milioi pezetako inbertsioa beharko litzateke horrelako lantegia egiteko eta, noski, ez da azkarra izan behar ulertzeko ez duela zentzurik 202.000 milioi inbertitzeak, gero balio erantsian 220.000 milio bakarrik ateratzeko; izan ere, inbertitutakoa bakarrik berreskuratuko litzateke, baina ezingo lirateke ordaindu langileen kostuak, hasierako inbertsio horrekin pilatutako interesak eta, noski, ez eta hamar urte horietan makinak ordezkatzea ahalbideratuko luketen amortizazio fondoak ere.

Beraz, ez dago proiektu hori abalatuko duen enpresariorik, argi eta garbi bideragarria ez delako. Eta horregatik laguntza publikoan jarri dira itxaropen guztiak, HUNOSAko meatze hustiapena bera ere bideragarri egingo luketen 130.000 milioi pezetako euskal subentzio publikoan, alegia. Orain, hain datu adierazgarriei buruz arreta deitu ostean eta Mc. Donnellek Koreako lantegi batekin bere enpresako zati bat saltzeko akordioa lortu duela jakin ondoren, zalantzan jartzen hasi da 'euskal proiektua'. Ikusten denez, agian ez ditugu abioiaren hegalak egingo, beste zati batzuk baino. Espero dut ez amaitzea bidaiariei hanburgesak ematen eta paktua Mc. Donnellekin egin ordez Mc. Donald'sekin egiten.

JAVIER OLAVERRI
GIPUZKOAKO EE-KO IDAZKARI NAGUSIA
Erredazioan itzulia

BERRIAK ZIRI

GUY HERAUD
Nazioarteko Zuzenbideko irakaslea
ENBATA

«Nazionalismo osoek huts egin baldin badute, nazionalismo frustratuek ere bai»



JOSE RAMON REKALDE
Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburua
DEIA

«Gartzeletan berez sartzen den baino jende gehiago dago»

NURSULTAN NAZARBAIEV
Kazakhstaneko buruzagia
KOMSOMSLKAIA

«Errepublika eslaviar eta musulmanen arteko zatiketaren beldur naiz. Hori Harri Arora itzultzea litzateke eta mundu osoa ikaratu egingo luke»



IOSU SARASUA
Eskultorea
EL MUNDO

«Administrazioak kulturaren zama lehiaketekin konpondu nahi du»

ZAKILIXUT

© Olariagak

Larrinagaren Euskadiko Ezkerrak otsailean egingo du V Kongresua

Alderdia «indarberritzeko» kongresua izango dela uste du Biltzar Ttipiak

Jon Larrinaga eta Juan Maria Bandresek zuzentzen duten Euskadiko Ezkerrak datorren otsailak 8 egingo du V Kongresua, laugarrena egin zutenetik urtea beteko denean, hain zuzen ere. Urtebeteko krisia gainditu eta alderdia indarberritzea da EEren asmoa.

ZARAUTZ

«Euskal ezkerraren proiektua indarberritzeko» bilduko dira Leioan Jon Larrinaga idazkari nagusiak eta Juan Maria Bandres lehendakariak zuzentzen dituzten EEko alderdikideak. Atzo Biltzar Ttipia bildu zen Zarautzen eta alderdiko buruek adierazi zutenez, otsailean egingo dute V Kongresua. Horrezaz gain kongresua prestatzeko arautegia zehaztu zuten atzoko bileran.

Larrinagak alderdira «normaltasuna» itzuli dela azpimarratu zuen, «arrakasta galera» igaro eta gero. Euskadiko Ezkerrako idazkari nagusiaren esanetan, alderditik egotzi dituzten Auñamendikoen errua izan da EEren arrakasta galera. «Marrazki politago bat egin nahi izan dute, ez dakit EA siglekin ala beste batzuekin» esan zuen Larrinagak Auñamendikoei buruz.

«Zorionez hori guztia historia baino ez da» esan zuen, eta datorren kongresuan EEk «betidanik» izan dituen ildo ideologikoak azpimarratuko dituela eman zuen jakitera. «EEk zeresana izango du ezkerrean eta Euskadin esparru sozialista bat eraikitzen saiatuko gara» esan zuen.

EEren Biltzar Ttipiak V Kongresuaren prestaketak hasi zituen atzo Zarautzen. EFE

GUTXIK EGIN DUTE ALDE

Larrinagak aurkezturiko txostenari aho batez eman zion baimena Biltzar Ttipiak. Txosten hori Larrinagak V Kongresuan aurkeztuko du eztabaidatu eta bozkatzeko. Txostenak alderdiak izan duen «eraldaketa berezia» aztertzen du. Euskadiko Ezkerra bitan zatitu da praktikan, bi zatiek oraindik EE siglak aldarrikatzen dituzten arren.

Txostenean zatiketaren gogoeta egiten da alde egin duten militante kopurua ikusirik. «Ez da traumatikoa alde horretatik ikusita» esan zuen Euskadiko Ezkerrako idazkari nagusiak. Larrinagaren esanetan, Gipuzkoan 95 militantek egin dute alde eta Auñamendiko- ekin joan dira. Bizkaian orain militante gehiago dituztela esan zuen, 50 joan badira ere 62k alta eskatu dutelako, eta Araban seik baino ez dutela alde egin ziurtatu zuen.

> ✓ EE «normaltasuna» itzuli dela esan zuen Jon Larrinagak.

Zentru ezkerra aldarrikatu zuen Larrinagak, «normalkuntza politikora heltzeko» beharrezkoa bait da. «Herri honetarako zentru ezkerra erreferentzi puntua behar du izan» adierazi zuen. Datozen urte hauek «mugituak» izango dira Larrinagaren iritziz. «Badirudi politika era demokratikoan egiteko unea laster helduko dela» esan zuen. Hori gertatuz gero, EE ezkerra bultzatzeko tresna ezin hobea litzateke Larrinagaren aburuz.

Mikel Iturrino libre irten da Fresneseko gartzelatik

BAIONA

Mikel Iturrino judizial kontrolpean irten zen gartzelatik ostiral gauean. Joan den martxoaren 18an atxilotu zuen Frantziako Poliziak Iturrino, Josu Arkauz Arana, 'Josu Mondragon' atxilotzearekin batera zabaldu zen operazioaren barruan.

Mikel Iturrinori, 68 urteko ondarrutarrari, Josu Arkauz Miarritzeko bere etxean gordetzea leporatu zioten. Pistola bat aurkitu zuten etxean eta martxoaren 22an Fresneseko gartzelan sartu zuten. Polizi ekintza hartan atxilotutako sei lagunetatik bi bakarrik daude egun gartzelan, Josu Arkauz eta Julia Aldasoro, Iturrinoren emaztea. Azken hilabeteetan libre utzi dituzte Luis eta Viviane Barriola eta Jone Idigoras.

Lau gazte atxilotu zituen Poliziak Gasteizko istiluetan

GASTEIZ

Lau gazte atxilotu zituen Polizia Nazionalak Gasteizen ostiral gauean izan ziren enfrentamenduen ondorioz, Arabako Gobernu Zibilak jakitera eman zuenez. Iruñean Poliziak ke pote batez larri zauritu zuen gaztearen egoera salatzeko egin zen manifestazioaren ostean hasi ziren istiluak.

Iturri horien arabera, manifestaldia amaitu ondoren hogeitamar bat gazte Gobernu Zibilerantz abiatu ziren eta harrikatzeari ekin zioten. Polizia Nazionaleko indarrek eraso egin zuten, istiluen aurkako materiala erabilita.

Gertakizunen eraginez, Gobernu Zibilak esan zuen lau polizia nazionalek zauri arinak zituztela, kolpeak batez ere.

Normaltasun itxuraz ospatu zuen UPNk atzoko batzarrea

A.U. / **IRUÑEA**

Ordubete eskas iraun zuen UPNren Erregio Batzordeak atzo arratsaldean Iruñean ospatu zuen ohizko batzarreak. UPNren barne krisia amaitu ez dela diotenen espektatibak ez ziren bete atzokoan, eztabaida aipagarririk gabe eta normaltasun osoz burutu bait zen Jesus Aizpunen alderdiaren bilera.

Aizpunek UPNko ehun kideen aurrean irakurri zuen txosten politikoak hiru ardatz nagusi izan zituen. Lehenik, alderdiaren baitan krisia sortu duen gaia argitu nahi izan zuen UPNko lehendakariak: «Gure alderdia Bakea eta Tolerantziaren aldeko Akordioarekin bat datorrenik zalantzan jarri dutenez zenbaitzuek, UPNk betidanik terrorismoaren aurrean izan duen jarrera ekarri dut gogora», Aizpunek batzarrea amaitu ondoren azaldu zuenez. Hau da, ETAk armak uzten ez dituen bitartean elkarrizketa ez dela posible azpimarratu zuen Aizpunek.

Bestalde, Espainiako hauteskunde orokorrak datorren apirilean izan daitezkeela eta UPNk prestatzen joan behar duela nabarmendu zuen Aizpunek. Nafarroako egoera politikoari dagokionez, PSOErekin akordiorik ez lortuz gero UPNren iharduera oso zaila izango dela esan zuen UPNko buruak. Honen hitzetan, «Nafarroaren gobernagarritasuna PSOEren eskutik bakarrik etor daiteke. Esfortzu hori egin behar da beraz, eta ni behintzat ahalik eta liskar gutxienak sortzen saiatuko naiz».

Berdintsu mintzatu zen Rafael Gurrea. UPNko idazkari nagusiaren esanetan, «Aizpunen txostena zen garrantzitsuena eta honek argi utzi du polemikarik ez duela nahi eta Erregio Batzordeak aho batez onartu du exekutibak joan zen astelehenean kaleratu zuen idatzia». Idatzi honetan UPNk bere apoioa adierazi zion Alliren Gobernuari. Gurrearen arabera, apoio hori ez zen «deskafeinatua» izan, «Alliren Gobernua apoiatzen badugu, lehendakariarekin gaudela esan nahi du eta».

Halaber, «Gobernuan egoteak dakartzan gorabehera guztiak» gainditzeko prest daudela adierazi zuen Gurreak. «Egoerari eutsiko diogu, ea PSOEn erantzunkizun zentzua nagusitzen den».

Jesus Aizpun.

UPNko krisia, gogoratuko denez, Juan Cruz Allik piztu zuen, ETAren elkarrizketa eskaintza aintzat hartu beharko litzatekeela adierazi zuenean. Allik ez zuen adierazpenik egin nahi izan atzo, batzarrearen ondoren esan zuenez, «ez delako deus gertatu».

Irurtzun-Andoain autobidea

Lurraldearen manifestazioa gaur arratsaldean Tolosan

DONOSTIA

'Leitzaran Parke Naturala' eta 'Tolosa komunikabideen erdigune' lema bikoitzarekin, manifestazioa egingo du gaur arratsaldean Tolosan Lurraldea koordinakundeak. Tolosako Triangulo plazatik abiatuko da manifestazioa zazpietan.

Bertsolari talde batek Olentzeroaren doinua duen bertsoa prestatu du gaurko manifestazioan kantatzeko, Lurraldeak atzo azaldu zuenez. Amaieran koordinakundeko bozeramaleek bildutakoei hitzegingo diete.

Lurraldearen ustez, «negoziazio ekologikoa bultzatzeko» balioko du gaurko manifestazioak. «Giza agenteen eta erkundeen arteko negoziazioa da» adierazi zuen atzo Tomas Lozano Aresoko artzaina eta Lurraldeako kideak. «Giza mugimenduak daukagun indarraren arabera izaten gaituzte kontutan eta indar hori gure mobilizazio gaitasunaren arabera neurtzen da» gaineratu zuen.

Nafarroa eta Gipuzkoa arteko komunikazioak Tolosa zeharkatzeak duen garrantzia gogoratu du Lurraldeak gaurko manifestaziorako deia egiterakoan. «Horrela errepide berria bi probintzien zerbitzurako izango delako, eta ez bakarrik bere bi hiriburuen zerbitzurako» argudiatu du.

Eskakizun hau, herri honen lurralde antolaketaren ikuspegitik, «Leitzaran parke naturala izendatzeko erreibindikazio sozial zabalarekin» bat datorrela uste du Lurraldeak.

Madrileko ordezkariarekin bilduko da Nafarroako HB

A.U. / IRUÑEA

Nafarroako Herri Batasunako parlamentariek elkarrizketa eskatu zioten atzo Garcia Villosladari, Madrileko Gobernuak Iruñean duen ordezkariari. Ordezkaria ez zegoen une horretan, baina bere idazkariak ez zuen eragozpenik jarri elkarrizketa hori datorren egunotan egiteko.

Maurizio Olite, Itziar Gomez eta Zutoia Mitxel foru parlamentariak eguerdiko hamabiak aldera hurbildu ziren Iruñeko Gobernu Zibilera. Parlamentariek gutun bat zeramaten Garcia Villosladarentzat. Bitartean, HBko beste zenbait hautetsi Gobernu Zibilaren parean gelditu ziren, Merinaldeetako plazan, 'Alde hemendik' zioen pankartarekin.

Parlamentariek ezin izan zioten eskura eman gutuna, esan bezala Garcia Villoslada momentu horretan kanpoan zegoelako. Ordezkaritzan utzitako idatzian Espainiako Segurtasun Indarren jokabidea gogor kritikatzen zuen Herri Batasunak eta «alde hemendik» eskaera gauzatzeko garaia heldu dela zioen.

«'Demokrazia' gure herrian ezarri zigutenetik urte asko igaro badira ere —HBren idatziaren arabera—, badirudi urteak ez direla igarotzen Estatuko indar zapaltzaileentzat, jokabide eta helburu berberak erakusten bait dituzte behin eta berriz».

HBk joan zen asteburuan Iruñeko alde zaharrean gertatu ziren istilu larriak ekarri zituen gogora. HBk dioenez, poliziek biktimei egotzi nahi izan dizkiete beren erruak, «Poliziaren irudia garbitu nahian». Gizarteak Poliziaren babesik ez duela behar esanez eta Segurtasun Indarrek hemendik alde egin dezatela eskatuz amaitu zuen HBk.

Bestalde, Mikel Iribarren gazteak larri segitzen du. Mugimenduren bat egiten du, baina gorputzaren ezker aldea erdi paralizatua du oraindik. Begi bat salbatuko duen ez dakite oraindik eta mutu geldi daiteke.

Bartzelonako bigarren etakidea identifikatu duela dio Poliziak

MADRIL

Jose Luis Urrusolo Sistiaga, 'Joseba' da, Espainiako Barne Ministeritzako iturrien adierazi duenez, joan den hilaren 13ean Bartzelonan bi polizia hil zituen ETAko komandoko bigarren partaidea.

Poliziaren esanetan, Juan Jesus Narbaez Goñi, 'Pajas' eta Urrusolok osatzen dute ETAko 'komando ibiltaria', azken boladan Espainian zehar hainbat atentatu egin dituenak.

Urrusolo Sistiaga ETAko 'historikoetako' bat da, eta ustez 'Madril' komandoko partaidea zela Emiliano Revilla industriala bahitzen parte hartu zuen.

Barne Ministeritzako iturri hauen esanetan, identifikazioa 'bide ezberdinei esker' egin ahal izan da, baina ez zuten nahi izan gehiago zehazterik.

Efe ajentziak aipatzen dituen ETAren aurkako borrokako beste iturri batzuek, ETAk historikoak erabiltzeak esan nahi du ez daukala jende gazte nahikorik halako atentatuak egiteko gauza direnik.

Iturri hauen esanetan, 'komando ibiltariak' Iparraldeko bizilagunez osatutako 'Argala' komandoa ordezkatzen du. Poliziaren esanetan, Urrusolo Sistiaga 'Madril' komandoan egon zen, besteak beste Ignazio Arakama, Belen Gonzalez, Jose Tapia eta Jose Angel Urtiagarekin batera.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

GORPUTZ HEZKUNTZA ARLOAN ESPEZIALIZAZIO IKASTAROA, OINARRIZKO PRESTAKUNTZA - IKASTAROA GAINDITUA DAUKATEN OHOko IRAKASLEEI ZUZENDUA.

Bizkaian lan egin eta Bizkaia eta Gipuzkoaren arteko mugan bizi diren irakasleei dei egiten zaie.

92 01-08tik 92 -04-03ra bitartean Hernaniko Polikiroldegian izango den ikastaroan parte hartzeko aukera ematen zaie. (1991ko otsailaren 21eko EHAAn)

Hala nahi dutenek, Gipuzkoako Ordezkaritzan aurkeztu edo bertara telefonoz deitu beharko dute Abenduaren 23tik 27ra bitartean. (Tfnoa.: 943 - 423988).

OHARRA: Datorren urtean Bizkaian ari diren irakasleei zuzendutako beste espezializazio ikastaro batetarako deia egingo da.

Arzalluz da EAJko lehendakari izateko hautagai bakarra

Atzo onartu ziren Artean urtarrilean eztabaidatuko diren hiru txostenak

Joan zen azaroan berak adierazitakoa baietsita, Xabier Arzalluz da EAJko lehendakari izateko hautagai bakarra, Herri Asanbladen erabakien berri jaso ondoren joan zen astean zehar Hegoaldeko lau herrialdeetako eskualde batzarretan ikusi ahal izan denez.

BILBO

EAJk urtarrilean egingo du bere Asanblada Nazionala. ALEX

Gauzak horrela, Euzkadi Buru Batzarreko gaur egungo lehendakariarena izango da datorren urtarrilaren 11n eta 12an Bilbon izango den Asanblada Nagusian bozkatuko den zerrenda bakarra, atzo igorritako ohar baten bidez EAJk jakitera eman zuenez. Lehenago ere, azaroaren 30ean Artean izandako Batzar Nazionalean baietsi zuen bera zela EBBko lehendakari izateko hautagai bakarra, eta besterik ezean «ardura hori hartu beharko dugu», esan zuen.

EBBko lehendakaria hautatzeko prozesua joan zen uztailaren 8an deitu zen. Lehenengo erronda, hautagaiak aurkeztekoa, urriaren 28a eta azaroaren 10a bitartean eman zen, udal batzarretan.

Udal batzarren erabakiak jaso ondoren, alderdi jeltzaleko Berma eta Kontrol Batzorde Nazionalak hautagaien zerrenda zabaldu zuen, Xabier Arzalluzen izen bakarrarekin.

Abenduaren 2a eta 16a bitartean udal taldeetan bigarren erronda bat egin zen eta atzo Xabier Arzalluz izendatu zuten hautagai ofizial, hautaketa bera urtarrileko Asanblada Nagusian gauzatuko bada ere.

Asanblada Nagusiaren ostean, otsailaren 8an hain zuzen, amaitutzat emango da Euzkadi Buru Batzarreko gainontzeko zortzi kideen hautaketa, eta baita Kontrol eta Berma Batzordeko partaideena eta Justizi Epaitegi Nazionalekoena.

Jeltzaleen herrialdeetako exekutibak berritzeko prozesua otsailaren 12an hasi eta lau herrialdeetako batzarretan amaituko da, martxoaren 28an.

Era berean, joan zen astean bildu diren herrialdeetako batzarrek amaitutzat eman zuten Asanblada Nazionalean izango diren txostenei buruzko eztabaida. Txostenok EAJk datorren urteetarako eginbide politikoa zehaztuko dute.

Hiru txosten aurkeztu zaizkie bazkide jeltzalei: Jon Azuak koordinatutako '2.000 urteko Euzkadirentzako zerumuga berriak' deitutakoa eta arlo sozioekonomikoan jeltzaleen iharduna zehazten duena; Juan Ramon Gebarak koordinatutako 'Alderdiaren azken lau urteetako ihardunaren balantze politikoa', 1988an Arriagan izan zen Asanblada Nagusitik honako iharduna aztertzen duena eta Juan Maria Ollorak zuzendutako 'EAJrentzako horizonte berriak' deitutakoa, datozen lau urteotan jeltzaleek hartuko duten norabide politikoa bideratzen duena.

Plentziako EAJk baliogabetzat jo du Gorordoren aurkako auzia

BILBO

Plentziako EAJko Batzarrak «baliogabetzat» jo zuen atzo Jose Maria Gorordo Bilboko alkate ohiaren aurka eman den auzia, hau da, alderdi jeltzaletik lau urterako kanporatua izatea, Gorordok berak jakitera eman zuenez.

EAJko Bizkai Buru Batzarrak zenbait bazkideren salaketa hartuta espedientea ireki zion Gorordori, alderditik kanpo zegoen kandidatura independientea bultzatzen ahalegintzeagatik eta Josu Ortuondo hautagai jeltzalearen kanpainan laguntzarik ez emateagatik.

Atzo Gorordok esan zuenez, Plentziako Batzarra erabat ezados agertu zen bere aurkako prozedurarekin «batzarrak epailea arbuiatu duelako eta nire aldetik ere arbuiatzeko prozesua martxan ipini delako».

Bilboko alkate ohiaren esanetan, Batzarrak jarrera horren bidez prozedura berriro hastea nahi du, Plentziako epaile jeltzaleak kasuaz ez arduratzeko erabakia berriro harturik eta azken batean batzarrak berak epaimahaia izendatu ahal izateko.

Jose Maria Gorordo.

APIKA INFORMATIKA

APIKA rekin, zure entrepresaren informatizatzeak ez zaitu beldurtu behar.

Ez dago sekreturik: Adimena egunero lantzen dugu.

DONOSTIA
Ametzagaña 19, behea. Tel.: (943) 274711 - 283399
FAXA (943) 274600

BILBO
Begoñalde 9-1. Tel.: (94) 4467684
FAXA: (94) 446 76 85

ADIZU: APIKA GESTIOGINTZAN MAISU

IGANDEKO SOLASAK

Fernando BUESA

Arabako ahaldun nagusi izan ondoren Eusko Jaurlaritzan Hezkuntza sailburu eta lehendakariordea da. Legebiltzarrean egin diren eztabaida ugarietan beti erakutsi du politika egiteko halako modu zorrotz bat, eta jelkideen lanari jarraipen gertukoa egiteaz gain kritika egiten ere zalea da. Beste izar sozialista batzuk itzali samar direnean, Fernando Buesa lehendakariordea indar betean ageri da.

«Guggenheim ekartzeko erak pikutara eramango du»

PELLO ZUBIRIA / **GASTEIZ**

EGUNKARIA.— Elkarrekin haserre zabiltzate Eusko Jaurlaritzako sozioak. Ezkontideen ohizko liskarrak baino zerbait gogorragoa ere badirudi batzuetan.

FERNANDO BUESA.— Gobernu barruan eztabaidarik izan dugu, normala denez eta proiektu bat baino gehiagoren aurrean jarrera ezberdinetan egon gara, baina ezin da esan gatazka hedatu baten aurrean gaudenik. Gobernu guztietan, eta baita monokoloreetan ere, arazoen aurrean jokabide ezberdinak egotera ohitu behar du jendeak. Eztabaida ez da haserrea, erabakiak zuhur hartzeko modua da. Gobernu berri honek zerbait ekarri badu bakea da hain zuzen, bakea gobernu barruan eta bakea euskal gizartean. Hainbesteko istiluak izan zituzten aurreko gobernuan, ezen azkenean koalizioa hautsi bait zuten. Orain alderantzizko egoeran gaude.

EGUNKARIA.— Xabier Atutxak berrindustrializazioa dela eta Madrileko Gobernuaz esan dituenak, Redondo Terrerosen erasoak jelkideei, hauen arrapostua...

BUESA.— Ez ditugu nahasi behar Jaurlaritza barruko harremanak eta alderdi politikoen artekoak. Partiduek beste zeregina daukate, beren nortasun eta iritziak adierazi behar dituzte, eta normala da horien arteko eztabaida.

EGUNKARIA.— Guggenheim museoaz, kultur munduan sortu den polemikaz gain, Jaurlaritza barruan ere ados ez zaudetela dirudi.

BUESA.— Guggenheim fundazioa bezalako gauza garrantzitsua Euskadira ekartzea ideia ona izan daiteke, baina ideiarik onenak pikutara joan daitezke oinarri okerren gainean martxan jartzen hasiz gero. Hasteko, neurriz gaineko inbertsioak egin beharko dira, eta azkenean baliteke gobernaezinezko museo erraldoia edukitzea. Gero, erabaki guztiak fundazioari berari uzten zaizkio, denak, eta Bilbon kultur proiektu iparramerikar bat edukiko dugu, ez euskal proiektu bat. Egingo diren inbertsioen truke hemengo kontrol handiagoa eskatu behar zen. Guggenheimerako egin den komenioa nahiko iluna da, inbertsioaren kontrolaz eta beste. Eta proiektua pikutara joateko arriskua dago.



Bortxakeriaren estrategia bakarrean ados daude sozialista guztiak, Buesaren ustez. OLALDE

EGUNKARIA.— Industria alorrean basamortu bat izatera kondenaturik al gaude?

BUESA.— Inola ere ez, Euskadik bere pultsu industriala berreskuratu behar du, jakinik gure ehun industriala birmoldatu behar dugula. Gure industria ezin da etengabe oinarritu siderurgian, untzigintzan, metalen transformazioan, horien oinarri garrantzizko bat atxiki beharko dugu baina XXI mendean konpetitiboak izan daitezkeen heinean. Eta balio erantsi handiagoko ataletara bideratu behar dugu.

Baina inbertsioak behar dira, eta honetan ez Eusko Jaurlaritza eta ez Madrileko Gobernua ez dira panazea, guk ez dugu herri honetako enpresariak izateko bokaziorik, guk inbertsioak etortzeko baldintzak ipini behar ditugu. Horretarako lehen oztopoa terrorismoa da, eta hori gainditzea da lehentasunetako bat. Hori konponduta, Espainiako beste eskualde askok baino posibilitate gehiago ditugu inbertsioak erakartzeko. Espainiako industria funtsean Norteko industria da, eta horren muinean euskal industria, eta guk dugun interesaz gain Espainiak ezin du galdu bere Iparraldeko industria.

> «Guk dugun interesaz gain, Espainiak ezin du galdu bere Iparraldeko industria eta horren barruan euskal industria».

EGUNKARIA.— Kupoa ez ordaintzeko posibilitatea behin eta berriro salatu den arazo baten inguruan piztu da, Madrilek hemen agindutako inbertsioak ez egiteagatik, alegia.

BUESA.— Kupoan ordaintzen duguna baino askoz gehiago gastatzen du gobernuak industriaren arazoak konpontzen, eta egoismoagatik bakarrik izanda ere ezingo genuke horrelako biderik onartu. Horretaz landa, bada baztertu behar dugun ideia bat: industriaren arazo guztiak Estatuak dirua ipinita konponduko direla, alegia. Ezin dugu pentsatu gauzak konpondu daitezkeenik arrisku batzuk beregain hartuta ekingo duten enpresaririk gabe. Eta enpresariek arriskuak har ditzaten, egonkortasunean oinarritu behar dugu gure etorkizun politikoa ere, zenbait eztabaida burugabe baztertuz. Duela gutxi independentziaz ikusi duguna adibidez, kanpotik ekarritako eztabaida eta alferrikakoa gainera, inork epe laburrean horri heltzeko asmorik ez bait du.

EGUNKARIA.— Eta zer gertatzen da azpiegitura eremuan hartutako konpromezuekin?

BUESA.— Inbertsio guzti horiek martxan daude, beren epeetan eta aurretik behar dituzten lanak kontutan hartuta. Portuak, aireportuak eta ferrokarrila aipatzen dira. Portuetan lanak hasiak dira, Bilbokoan adibidez. Aireportuetan gauza bera. Eta trenbidean, 1992 osoa eramango digu proiektua zehazteak. Zenbaiti biktimismoa egitea komeni zaio, baina egia beste bat da.

Lan horien martxak, gainera, administrazioak dituen baliabideen erritmoei egokitu behar zaizkie. 92an, adibidez, gure laguntzak krisian dauden industrietara bideratu beharko ditugu eta behar bada gure inbertsio programak ere atzeratu egin beharko dira. Baina horrek ez du esan nahi inbertsioak ahaztu ditugunik. Eta hori ari da gertatzen Espainian ere. Hortik ondorio alarmistak ateratzea, propio egindako joko bat da.

EGUNKARIA.— Biolentzia politikoa aipatu duzunez, azkenaldi honetan sozialisten artean joera edo apreziazio ezberdinak nabaritzen dira.

BUESA.— Ez, ez, sozialista guztiok estrategia politiko berean gaude. Behar bada hobeto esplikatu beharko dugu gure estrategia. Segurantzia batetik abiatzen gara: arazoak konpondu daitezen ETA eta HBko mundu horretan mugimenduren bat gertatu behar duela. Beraz, ETAn eta

tantoa

Kixotearen tankera, Santxoren jarrera

Nerea Azurmendi

Fernando Buesa Arabako ahaldun nagusi ohiak Eusko Jaurlaritzara iritsi eta —gainerantzeko «arazo sozialen» artean— hezkuntzaren ardura eskuratu zuenean, ez zituen errotak erraldoiekin nahastu. Cervantesek berak bidali izan balu bezala adierazi zuen, horretarako parada izan bezain laster, berreuskalduntzea birplanteatu egin behar zela, euskararen indarberritzearen abiadura gehiegizkoak behar zuela zuzenketarik. Argi eta garbi. Orain, ikastolei beren egoera egokitzeko epe mugatua dutela adierazten die, errotekin erraldoiekin baino askoz ere praktikoagoa izan behar da eta. Mezu garden eta zuzena.

Bizitza partikularrerako gorde bide ditu Fernando Buesa sozialistak disimuloak eta imajinazio gehiegikeriak, politikagintzan marmol gogorrez egindakoa bait dirudi. Hotz eta zorrotza, zalapartarik gabeko gizon edukatua. Guztiz politikoa izan zitekeen gobernuan jokatzen duen papera, baina gestio esparru zabal eta garrantzitsua bereganatu du. *Obras son amores...* Eta oinarri horretatik botatzen ditu, buelta askorik eman gabe, gobernukideen gustokoak ez direnak. *Lo cortés no quita lo valiente...* Fernando Buesak politiko iraunkorraren traza dauka, ez baita munizioa altxafuegotan gastatzen duen horietakoa, ez eta, norbaitek halakorik esan duen arren, edozertarako balio duen komodina.

Santxok Kixoteari praktikotasun apur bat emango balio, eta zaldunak morroiari soberan zeukan estiloa pasatu, Fernando Buesaren antzekoren bat osatuko genuke. Hori ona ala txarra den, geroak esango du, Buesa pragmatiko estilotusari igartzen zaion geroaldi luzeak.

HBn bortxari uko egiteko urratsa eman dadin ahalegindu behar dugu.

Argi eta garbi esan behar da ez dela sekula negoziaketa politikorik izanen ez ETArekin eta ez bere inguru politikoarekin, Euskal Nazio Askapen Mugimenduarekin, Herri Batasunarekin, Amnistiaren aldeko Batzordeekin... Biolentziak hor dirauen artean demokratak marraren alde batean egongo dira eta demokratak ez direnak beste aldean, eta ondorioz isolamendu politika gogor bat burutuko dugu, oso gogorra gainera.

Baina aldi berean, ETAren edo HBren munduan biolentziatik ateratzeko mugimendu bat gertatzen den bakoitzean gure laguntza emateko prest gaudela esango dugu. Lehen esan dudanarekin kontraesanean dagoela itxura emango du zenbait unetan, baina ongi aztertuz gero biak estrategia berean sartuta daudela ohartuko zara.

EGUNKARIA.— Herri Batasunakoei erantzunez Ramon Jauregik Gasteizko Legebiltzarrean erabili zuen tonu leunak aldaketaren bat gertatzen dela uste duzuela esan nahi al du?

BUESA.— Ez, ez da hori. HB Legebiltzarrera joatea zen egun hartako gertakizuna, eta ez gainera arazo politiko bat zela eta, biolentzia, borroka armatua, Estatutoa, Nafarroa, Ipar Euskadi edo nik dakit zer. Eguneroko arazo batengatik Legebiltzarrera agertzea, industrien egoeraz eta geroaz eztabaidatzera, Herri Batasunaren aldetik normaltze alderako urratsa da. Ramon Jauregik ez zuen eztabaida hartan ohizko hitzaldi erraza errepikatu nahi izan, «zuen nagusiak bonbak ipintzen dituztenak dira».

HBk arazo zehatzari proposatzen zion konponbidea —Madrili kuporik ez ordaintzea— burugabekeria dela erantzun zien, eta horrek ez lukeela arazoa konponduko. Batetik, kupoaren dirutza ez delako gure industriaren egoera moldatzeko nahikoa, eta bestetik gaurko Europan horrelako marko autarkikorik pentsatu ere ezin delako.



Fernando Buesa. OLALDE



Fernando Buesak ez du uste EAEko biztanle guztiek euskara sekula erabiliko dutenik. OLALDE

«Ikastolen pribilegioak laster amaituko dira»

PELLO ZUBIRIA / **GASTEIZ**

EGUNKARIA.— Zer gertatzen zaizu ikastolekin? Hona nentorrela zure aurpegia daramaten afitxa batzuk ere ikusi ditut, Gasteizko kaleetan.

FERNANDO BUESA.— Nik ez daukat ezer ikastolekin, ez dakit haiek nerekin zer edukiko duten. Ikastolen panorama behin-betiko argitu beharra daukagu. Ikastolen mundua sakonki errespetatzen dut, euskararen eta euskarazko irakaskuntza berreskuratzeko lan handia egin zutelako frankismoan eta trantsizio demokratikoaren urteetan. Gaur pribilegiorik justifikatzen ez duen panorama bati egin behar diote aurre. Esfortzu historiko hori kontutan hartuta, nahi badute ikastetxe publiko eta nahi badute eskola pribatu bihurtzeko ahalmena uzten diegun markoa dago diseinatuta. Erabakitzeko aske dira.

Orain, ikastolek ezin diote euskarazko irakaskuntzaren monopolioari eutsi, sistema publiko osoak eta neurri batean pribatuak hizkuntz eredu desberdinen aukerak eskaintzen dituzte eta. Bestalde, beren proiektu pedagogikoak ez dauka sistemak bere barruan ez daukan berezitasunik tratu ekonomikoan bereziak izatea justifikatzen duenik. Azkenik, 1988an Eusko Legebiltzarrak konfluentzi lege bat onartu zuen eta dagoenekoz luzeegia izan den trantsizio aro hori ahalik eta lasterren amaitu behar dela. Ezin dugu jarraitu beren buruari Ikastola deitu eta pribilegioak gozatzen dituzten eskolekin. Pribilegioak beti dira gorrotagarriak, eta administrazioak denak justiziaz tratatu behar ditu.

EGUNKARIA.— Ikastolekiko harremanetan zure aurretik Hezkuntza sailburu izan zen Oliverik beste konpromezu batzuk hartu zituela dirudi.

BUESA.— Bueno, berezi behar dira Gobernu Kontseiluak hartutako erabakiak eta sail bakoitzak daraman politika. Jaurlaritzak bere konpromezuak kontseiluan hartzen ditu eta ezin ditu beregain hartu sailburu baten ekintza guztiak. Ez dut Oliveriren jokabidea epaituko, baina Jaurlaritzaren konpromezuak izan gabe errore politikotzat jotzen ditugunak zuzentzera goaz. Gure politikak ez du hipotekarik, eta ez gure helburuak eta ez gure politika izango da EAk egin zuenaren berdinak.

Ikastolak asko dira eta ez dira zaku berean sartu behar. Batzuek transferituetara pasa dira, beste batzuek pribatasunaren apostua egin dute eta azkenik trantsizio epe horretan daudenak daude, Ikastolen Elkarteak biltzen dituenak. Horiek daude beren egitura ekonomikoa birmoldatze garaian. Ikastolen Elkartearekiko konbenioaren helburua eskola publikoarekiko konfluentzia bazen, prozeso horretan dagoen ikastolak ezin du ikastetxe publiko batek baino koste handiagoa eduki. Eta hori esan diegu, ez gaudela ikastetxe publikoei baino finantzaketa handiagoa emateko prest. Ikastolako langile batek ez dauka eskola publiko bateko beste batek baino gehiago zertan irabazirik. Muga horiek ezarri ditugu Federazioarekiko harremanetan.

EGUNKARIA.— Trantsizioa aipatzen duzu behin eta berriro. Eperen bat badarabilzu buruan.

BUESA.— Badago egoera hau 'sine die' luza daitekeen irudipena. Argi eta garbi diot, edozein ikastola bihar bertan bihur daiteke zentru publiko. Era berean, egoera honek bukaera ere izanen du eta hau gertatuko da Euskal Eskola Publikoaren legea Legebiltzarrak erabakitzen duenean. Ez dakit datorren ikasturterako posible izanen den edo hurrengorako, baina gisa guztiz ere ez pare bat urte baino urrutirago. Tarte horretan, nahi dutenek publiko eta nahi dutenek pribatu bilakatu beharko dute, ondorio guztiekin.

EGUNKARIA.— Irakaskuntzan aipatu duzun zuzenketa, berreuskalduntze alorrean noraino zaude eramateko prest?

BUESA.— Hasteko, «berreuskalduntzea» baino «euskalduntzea» aipatuko nuke, Euskal Herriko leku askotan orain dela ehunka urte ez bait da euskararik egiten. Euskara ikasi eta erabiltzeko posibilitatea mundu guztiari emateaz mintzatu behar da. Honetan, erritmoak gehiegi behartu direla uste dut, eta bigarrenik baliabideak ez direla egoki erabili. Adibidez, irakasleek IRALEren bidez euskara ikas dezakete baina ikastaro guztiak burutu ondoren ezin dute euskaraz irakatsi, beste proba bat gainditu behar dute. Duela gutxi heldu zitzaidan EGA titulua eduki arren administrazioko lanpostu baterako hizkuntz profila lortu ezin zuen baten kexua. Eta hola beste hainbat.

Euskararen inguruko elementu sail bat disfuntzionalak dira, baliokidetasunak, tituluak eta abar argitu gabe daudelako. Jendeak euskararen alde egiten duen esfortzuari erabilgarritasuna eman behar zaio. Baina gobernu bat ezin da jendeen kontzientziaren gainetik ezarri, gobernua ez dago kontzientzien gainetik agintzeko, gizaki bakoitzak bere hizkuntz eskubideak erabiltzeko marko bat bermatzeko baino, lekuan lekuko berezitasun linguistikoei egokitutako politika batean. Euskararen erabilera herritarrek burutuko dute, nahi badute. Hizkuntzaren normalkuntzarako okerrena herritarren arbuioa eragitea da eta hori da zenbait erabakirekin lortu dena.

EGUNKARIA.— Guzti horiek ikusteko adina denboraz biziko ote da euskara?

BUESA.— Orain arte bizi izan bada, hemendik aurrera baldintza hobeetan iraungo du. Lehen ahoz bakarrik ikasten zen hizkuntza orain eskoletan ikasten da, maila askotan erabiltzen da. Galdetzen badidazu: posible izango ote da Bizkaia, Gipuzkoa eta Araban bizi garen 2.200.000 euskal herritarrok eguneroko bizitzan normaltasunez euskara erabiltzea, guztiok? Ez dut uste.

❑ hamarrekoa

Alberto Ansola
❑ Arabako diputatuorde nagusi on bat izan zen nerekin.

Ramon Jauregi
❑ Euskal sozialismoaren giltzarria. Asko ikasi dut beregandik.

Mari Karmen Garmendia
❑ Hizkuntz arazoek obsesionatuegia daukate.

Jose Antonio Aguiriano
❑ Sozialista arabar betikoa.

Joseba Arregi
❑ Gizon argia da, kultur sentsibilitate handikoa, eta kultur arazoez berarekin gizalegez mintza daiteke.

Juan Maria Bandres
❑ Euskadiko Ezkerraz etsita dagoela uste dut.

Tasio Erkizia
❑ Abertzale munduko ahots sektario bat, besterik gabe.

Gabriel Urralburu
❑ Usadioa hautsiz, Nafarroan sozialismoa gobernuko indar bihurtu izanaren meritua dauka.

Jaime Mayor Oreja
❑ Politikari on bat, euskal eskuina irudi berri batean bildu dezakeena.

Pablo Mosquera edo Anton Saenz de Santa Maria
❑ Bi pertsonaia kontraesankor UA bezalako alderdi baten ikur.

PUBLIZKUNTZA 91 Donostia

PUBLIZITATEA ETA HIZKUNTZA EZ NORMALIZATUEI BURUZKO I. FERIA ETA KONGRESUA

Feriako sarrera dohan. Erregaloak bisitari guztientzat.

FERIA:

Udaletxe azpiko aretoa. Abenduak 18-22.
Astegunez: 5-9. Asteburuan: 11-2 eta 5-9.

KONGRESUA:

Magisteritza Fakultatea. Abenduak 19-21.



'Bernardarentzat' ez zen euritakorik izan Donostian. VILLAGRAN

Txorizoa, taloa eta euria Santo Tomaseko ferietan

A.O. / **DONOSTIA**

Donostia, Bilbo eta Azpeitia dira, besteak beste, Santo Tomasak ospatzen dituzten herriak. Eguraldia iluna izan genuen atzo, eta ohizkoa baino jende gutxiago ibili zen kaleetatik. Txistorra ogiarekin edo talotartean, ordea, guztiek dastatu ahal izan genuen.

Santo Tomas eguna baserritarren eguna da, eta Eguberriak hurbil ditugula iragartzen digu gainera. Baserritarrek urte osoan zehar ereindakoa emaitzak plazaratzen dituzte egun berezi honetan, honela Donostiako Konstituzio Enparantza eta Bilboko Plaza Barria baserrietako produktuak apainduak egoten dira Santo Tomasetan.

Aurkeztutako produktuen artean sari banaketak ere egin ziren. Donostian sariak hauek jaso zituzten: Jose Salaberriaren omenezko saria Ignacio Amenabarrek; Fruten arloan lehena Ignacio Amenabarrentzat izan zen, bigarrena Miren Agirrezabalarentzat eta hirugarrena Maria Etxezarretarentzat. Barazkietan, lehena Maria Etxezarretarentzat izan zen, Ignacio Amenabarrentzat bigarrena eta Miren Agirrezabalarentzat hirugarrena. Bestalde, aipamen bereziak jaso zituzten: Jose Ramon Amunarriz, Jose Antonio Arrieta, Juana Galarraga —fruten arloan—, Hilaria Larruskain eta Manuel Irizar —barazkien arloan—. Kapoien lehen saria Tomas Aramendik jaso zuen, oilasko hoberenenen saria Xabier Goikoetxeak eta indioilarrena berriz, Lizeagak.

Bilbon, barazki hoberenen saria Adela Andikoetxea Ugartek eskuratu zuen; fruten saria Jose Etxebarria Urrutiak; landareena Norberto Cuartango Balenziagak; gaztarena Florencio Txurruka Ugartek; bizirik dauden abereen saria Juan Bautista Elordui Bilbaok, Txakoli txuriarena Pedro Maria Dañobeitiak; txakoli beltzaren saria Ignacio Dañobeitiak eskuratu zuen; 'ojo gallo' txakolinaren arloan Jose Antonio Torre izan zen garailea; 'brezo' estiaren lehen saria Jose Antonio Escuderorentzat izan zen eta 'multiflora' estiarena aldiz, Pedro I. Gallarretak eskuratu zuen. Azkenik, ogien arloan garailea Susana Robina Ugarte suertatu zen.

«Parkea bizkor baino, hobe ados egitea» dio lehiaketa saridunak

Urkiolaren Aldeko Batzordekoei ez zieten aurkezpenean egoten utzi

Atxarteko harrobiak berregokitzeko lehiaketan sariduna izan zen 'Atxarte, Urkiolako Atea' ideiaren sortzaileek eta instituzioetako ordezkariek edozein lani ekin aurretik adostasunaren premia azpimarratu zuten. Hala ere, Urkiolaren Aldeko Batzordekoak kalean egon behar izan zuten, aurkezpenean egoten ez zietelako utzi.

Z.ZAMAKOLA / **BILBO**

Bizkaiko Diputazioko Jauregian emaniko prentsaurrekoan, Eusko Jaurlaritzako eta Diputazioko ordezkariak, epaimahaiko partaideak eta saritutako ideiaren partaideak egon ziren.

Garai Foru diputatuak gogorarazi zuen saridunek apirilaren 5era arteko epea daukatela proiektua aurkezteko, eta eskatu zuen ideiaren titulua errespetatuta 'Urkiolaren topagunea' azpititulua ezarri ahal izatea, «indar sozial eta ekonomiko guztiak proiektu hau onena edo sikeran, ez hain txarrena dela ados ipintzeko» premia azpimarratuta.

Ildo beretik, ideia saridunaren sortzaileak adostasunaren premia aldarrikatu zuten, eta baietsi zuten ez dutela «hainbesteko presa proiektua egitean, ematen diren urratsak sendoak izatean baino».

Hala ere, berba horiek ematen ziren artean, kalean, Foru Jauregiko atariaren aurrean, Urkiolaren Aldeko Batzordeko partaideak zain zeuden, aurkezpenean parte egotea galerazi bait zieten.

«Nola emango dugu iritzirik —kexu ziren—, zein proiektu den ere ez badakigu? Baietza ala ezetza zeri eman ez badakigu?»



Maketa saritua erakutsi zuten atzo Diputazioan. MARISOL RAMIREZ

URKIOLAKO MUSEOA HARROBIETAN

Pilar Barraketa Elgea, irabazlea izan den ideiaren partaideetako batek azaldu zuen beren asmoa Atxarte Urkiolako sarrera bihurtzea izan dela, eta harrobiei dagokienez erabat ez estaltzearena, honek gaur egun landu gabe dagoen harri atal handia lantzea ekarriko lukeelako

Hortaz, bitarteko eragina onartzen dute, eta hain zuzen ere inguruko haitzen eta harrobiaren arteko kontrastea landu nahi izan dute, harrobiak dauden lekuan museo naturala eginda.

Eraso sozioekonomikoari dagokionez, egileek «koltxoi» antzerakoa proposatu zuten, gogoratuta euren proiektuen arabera harrobiak erabat berreskuratzeko tarte batean kudeatzen segituko dutela eta horrek eragin ekonomikoa motelduko duela eritzita. Museoa dela eta, harrobietan eta inguruetan dauden bitartekoak aprobetxatuko dituzte, eta horretaz, harrobietako eraikuntzetan museo itxia joango da, Urkiolako Parkeko ekosistemari buruzko datuak ezezik, eskualde osoaren historia eta jazoerak jasota.

Euskal Herri osokoak insumisioaren alde atzo Baionan manifestatu ziren

L.E. / **BAIONA**

Baionako udaletxearen aurrera 800 lagun bildu ziren atzo arratsaldean insumisioaren alde, «gizarte militarra» salatzeko, intsumiso presoen alde eta mugarik gabeko borroka antimilitarista bat aldarrikatzeko. Intzidenterik gabe iragan zen manifestaldia Ipar eta Hego Euskal Herriko erakunde askok deitua zutena. Hegoaldeko gazte asko etorriak ziren Patxa erakundearen deiari jarraikiz.

'Manifestazio Nazionala' izan nahi zuen ekitaldiak bere helburuak lortu ditu: jendea biltzea eta inguruan informazioa biltzea. Mugan arazoren bat edo beste izanik ere, ez dirudi ia famatuak diren 'filtro operaziorik' izan den. Bestalde, ohargarri zen Baionan, manifestaldi denbora guztian ez dela poliziarik agertu. Ageri ziren guztiek Suprefetura eta Komisaldegia babesten zuten. Hiri erditik horrela ordu batez, armadaren aurrako eta intsumisioaren aldeko esloganak oihukatuz manifestalariak ibili ziren. Taldeek prestatu oihaletan, egunaren gai nagusiak azalduak ziren: 'Gazte eta abertzale naizelako, armadarik ez' (IEGA), 'mugaz gaindi armadaren aurka' (Jarrai), 'Euskal Herriko intsumisoak aska' (Patxa), 'Independentziaren bidean intsumisioa' (Oldartzen) edo 'Muga guztien gainetik intsumisioa' (Kakitzat).

«Gora Euskadi intsumisoa» oihukatu zuen, manifestaldia bukatu ondoren, San Andreseko plazan azken hitzaldia eman zuenak. Aurreko hitzaldi zerrendan intsumisioaren zergatiak eta «zapalkuntza guztiak» salatu ziren, aldiro Euskal Herriko borrokaren batasuna azpimarratuz eta presoen askatzea eskatuz.

Ekitaldiaren bukaeran, lau lagunek aurresku bat dantzatu zuten «preso diren insumisoen ohoretan». Dena bukatua zelarik, bandera frantziar eta espainiar bat erre ziren jendearen txaloen artean.

JOXE MIGEL BARANDIARAN
Jauna
Labayru Ikastegiko
Ohorezko Babeslea

-GOIAN BEGO-

Eskerrak zure irakatsiagatik.
Jaunari gure otoitza zure alde.
Bilbao, 1991. Abenduak 21

LABAYRU IKASTEGIA

JOXEMIEL BARANDIARAN AIERBE

IZAN ZIRELAKO GARA,
IZAN GARELAKO
IZANGO DIRA
ARGIA

Milioiak EAJk banatu zituen

Euskal Herrian atzo tokatu zen saririk handiena Gueñesko batzokiak eman zuen

Hego Euskal Herriak ez du zorte handirik izan Eguberrietako loteria zozketan. Laugarren eta bostgarren zenbakien zati txiki bat irten da Bizkaian eta Gasteizen. Saririk handiena Olakoagako (Gueñes) batzokiak banatu du —510 milioi pezeta—. 'Gordoa', 47.996 zenbakia, Madrilera joan da.

DONOSTIA

Hegoaldean aurten izan den saririk handiena Gueñesko Olakoaga auzoko batzokiak banatu du. EAJren egoitzan 4. saria izan den 56.685 zenbakiaren 510 milioi banatu ditu, Bizkaiko hiriburuko Villanueva 10 administrazioan hartuak. Lokal horrek laugarren sariaren beste 90 milioi banatu ditu bertan, leihatilan.

Bostgarren sariaren zati bat ere tokatu da EAEn, Bilboko Ormaetxea administrazioak 32.029 zenbakiaren 50 serie banatu bait ditu. Sari honen 72 milioi Gasteiza joan dira. Zenbaki beraren bi serie Azpeitira joan ziren baina 1 zenbakidun administrazioko arduradunak bueltatu egin zituen «azpeitiarrek erosi nahi ez zituztelako».

Euskaldunek ez dute, beraz, zorterik izan 1.991. urteko zozketa berezi honetan. Kontutan izan behar da EAEn soil soilik, herritarrek 12.000 milioi pezeta jokatu dutela aurtengo loterian, joan zen urtean baino % 20 gehiago.

Iñaki Jauregi batzokiko arduradunak atzo adierazi zuenez, 300 bat auzotarrek erosi dute saritutako zenbakia. Inguruetako taberna eta batzokietan ere banatu ziren 56.689 zenbakiaren serieak.

Saria tokatu zaien gehienek 500.000 eta milioi bat pezeta bitartean patrikaratuko dituzte, baina Jauregik zehaztu zuenez, badira hamalau milioi pezeta tokatu zaizkienak, baita hiru edo sei milioiz jabetu direnak ere.

Aurtengo 'gordoa' —47.996 zenbakia— Madrilen saldu da osorik. Serrano kaleko Galerias Preciados-eko 300 langileei 12.000 milioi pezeta tokatu zaizkie. Madrileko 60 administrazioak saldu zituen 47.996 zenbaki 'gordoaren' berrogeitazazpi serieak.

Loteriaren bigarren sari nagusia 23.223 zenbakiari dagokio eta Alzira —Valencia— eta Santa Cruz de Tenerifeko Santa Ursulan saldu da. Hirugarren saria 52.318 zenbakia izan da eta Miguelturra —Ciudad Real— herrian saldu dute.

Laugarren saria bi zenbaki- rentzat izan da, 56.689 eta 13.588rentzat, hain zuzen. Bostgarren sariak lau izan dira: 32.029 28.583, 59.368 eta 30.714 zenbakiak.

Valenciako Alzira herrian tokatu diren 6.500 milioi pezetetatik 5.000 milioi Sagrada Familia auzoko fallak banatu ditu. 23.223 zenbakiaren hirurogei serie t'erdi saldu ziren Alzirako 1 zenbakiko administrazioan. Hirurogei serietatik berrogeitamar Sagrada Familia auzoko fallak erosi zituen.



✓ Azpeitiko administrazioak bostgarren sariaren bi serie saldu ez eta bueltatu egin zituen. Herritarrek 14 milioi irabazteko aukera galdu zuten

JOXE MIGEL BARANDIARAN

Joxe Migel Barandiaren Aierbe
Jaun Txit Goren eta Agurgarriari,
Gipuzkoako Urrezko Domina
eta Seme Kuttunari

AGUR T 'ERDI
-GOIAN BEGO-

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

JOXE MIGEL BARANDIARAN

Jauna

Eusko Ikaskuntzako
Lehendakaria

GOIAN BEGO

«ASKO EMAN ZENIGUN»

EUSKO IKASKUNTZA

JOXE MIGEL BARANDIARAN

Jauna

(1889 - 1991)

Jose Miguel de Barandiaran
Fundazioko Lehendakaria

GOIAN BEGO

«ASKO EMAN ZENIGUN»

FUNDACION
JOSE MIGUEL DE BARANDIARAN
FUNDAZIOA

JUSTO PRIETO PINEDO

1888.eko garagarrilaren 19an Arabako Karkamun jaioa, Bilbon atzo 103 urtegaz hil zana

Araba, oi Araba
zu ete zara
Aitaren zazpigarren Alaba!

Eskerrik asko aitita, zuk zeure bizitzan emon dauskuzun ontasunagatik
Ez zauguz inoiz ahaztuko
Agur, betiko agur

Hileta elizkizunak astelehenean, 23,

ON JOXE MIGEL BARANDIARAN AIERBE

Atzo hil zen, 101 urte zituelarik
-GOIAN BEGO-

Bere jaiotetxeko iloba txikiek, Maria Kruz eta Martin, Jesus eta Maria Jesus, Joxe Mari eta Mariatxo, Iñaki (apaiza), Kamila eta Joanito, Miel eta Margarita, Antonio eta Itziar, Gloria eta Joxe Manuel; Jabier, Arantza eta Andoni, eta Juan Mari eta Arantxa, hauen seme alaba eta bilobek, bere alde otoitz egin dezazuen eskatzen dizuete, aldez aurretik guztioi eskerrak emanez.

ATAUN, 1991ko abenduak 22.

ESKELAK

ARRATSALDEKO 7AK ARTE HARTZEN DIRA

JOSE MIGEL BARANDIARAN

Ustekabean utzi gaituzula eri
hutsune handi bat diguzu ekarri
euskaltzale artean
genion elkarri
esperantza handiko
geroa eta egarri

Euskal Herriko AEK

ON JOXEMIEL BARANDIARAN AIERBE

Bere iloba Pilar eta bere sendikoei gure doluminak azalduz, gaur arratsaldeko 4.30etan izango diren elizkizunetara gonbidatuaz.

ATAUNGO UDALA

Ataun, 1991-XII-22



JOXEMIEL BARANDIARAN

Herri batek noizean behin erditzen duen horietakoa izan zara:

Euskal Herrian, gizon, euskaldun, apaiz eta zientzilari; ez zaitu aginkeriak makurtu, ez losintxak harrotu; bake-gizon gerlan, herriarekin sufritu dituzu eraso guztiak.

Zure ereduak argi gaitzala.

EUSKALDUNON EGUNKARIA

JOSE MIGEL BARANDIARAN AIERBE

Apaiz Jauna

Atzo hil zen 101 urte zituela. Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— GOIAN BEGO —

Haren etxeko iloba Pilar Barandiaran eta gainerako iloba eta ahaideak

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaiteztela BIHAR IGANDEA, arratsaldeko LAU T'ERDIETAN, SAN GREGORIO PARROKI ELIZAN, egingo diren hiletetara. Aldez aurretik mila esker.

Ataunen 1991ko abenduaren 21ean

Zuzenbidea: Sara baserria

OHARRA: Hileta elizkizunak bitartean gorputza Sara baserrian egongo da.



BARANDIARANgo JOXEMIEL jauna

GOIAN BEGO

Eusko Jaurlaritzak
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizue eta arren etor zaiteztela GAUR, IGANDEA, arratsaldeko LAU T'ERDIETAN Ataungo SAN GREGORIO elizan egingo den hileta-elizkizunera.

Gasteiz, 1991ko Abenduak 22.

Koperatibak etorkizunari aurre egin nahian

Arrasateko Taldeak Kooperatiba Korporazio bilakatzea erabaki du III Kongresuan

Arrasateko enpresa kooperatiba taldeak Korporazio bilakatzea erabaki zuen ostiralean bukatu zuen III Kongresuan. Horrek taldeko enpresa guztien egitura eta antolamenduan aldaketa ekarriko du, Europako Merkatu Bateratuaren erronkaren aurrean kooperatiba taldearen eraginkortasuna sendotzeko eta ekonomi garapena bideratzeko helburuz.

J. AIARZA / **DONOSTIA**

Arrasateko kooperatibak orain arte eskualdeka antolaturik bazeuden ere, hemendik aurrera sektoreka egituratuko dira taldearen barruan. Halaber, korporazioan sortuko diren sektore taldeek erabaki ahalmena eskuratuko dute kooperatibetatik.

Berrikutza hau ostegun eta ostiralean egindako III Kongresuan erabaki zuten 100 kooperatibetako ordezkariek. Arrasateko Kooperatiba Korporazioan (AKK) 22.000 pertsonak egiten dute lan —18.400 bazkide direlarik— eta urte bukaerarako 320.000 milioiko fakturazioa lortzea espero dute. Euskal Herriko Industri talderik garrantzitsuena da, beraz, Arrasatekoa, bai langile kopuruari dagokionez eta baita fakturazio bolumenaren aldetik ere.

Arrasateko Kooperatiba Korporazioa hiru ardatz nagusiren inguruan egituratuko ditu bere enpresak: **Finantz Taldea**, Lan Kide Aurrezkia eta Lagun Arok osatua; **Banakuntza Taldea**, Eroskiren inguruan, eta **Industri Taldea**, sektoreen araberako zazpi azpitalde izango dituena.

Korporazio honek lehendakaritza exekutibo bat izango du eta bederatzi lehendakariordetza, azken hauek zazpi industri azpitalde eta Finantz zein Banakuntza taldeei dagozkienak.



BENAT AZURMENDI

✓ Arrasateko kooperatibak sektoreka egituratuko dira Koorporazio barruan.

«Taldearen barruko enpresak ahalik eta eraginkorrenak izatea eta zuzendaritza bateratuagoa izatea» dira berregituraketa honen xedeak, Arrasateko kooperatibetako iturriek diotenez.

Erabaki honek enpresa kooperatiba bakoitzaren erabaki ahalmena nolabait gutxitzea ekarriko du, sektore bakoitza eta talde osoaren bateratzearen mesedetan. «Kooperatiben funtzionamenduak holding baten antz handiagoa izango du, orain arte izan duen giza eta ekonomi ezaugarriarena baino» gehitu dute taldeko iturriek. Halere, kooperatiba eta sektore talde bakoitzaren funtzionamenduak autonomo izaten segituko du.

INDUSTRIA, FINANTZAK ETA BANAKUNTZA

AKK-ko **Finantz Taldeak** Lankide Aurrezkia eta Lagun Aro, finantz eta babes entitateak bilduko ditu. Talde honek ia bilioi erdi pezetako aktiboa du gaur egun.



AKKko Industri Taldeko buru den Fagorren egoitza Arrasaten.

Taldearen iharduerak hobeki aprobetxatu nahian, Kartera Elkarte bat sortuko da, taldeko eta taldez kanpoko enpresen partizipazioen jabe izango dena.

«Talde honen sorrerarekin Lan Kide Aurrezkiaren zabalkunde estrategia kanpoari begira gauzatuko da» adierazi dute Koporazioko iturriek. Izan ere, Taldeko kooperatiben finantz beharrak Lankide Aurrezkiaren aktiboaren % 37tik 11ra jaitsi da hamar urteetan.

Industri Taldeari dagokionez, 90 kooperatiba bilduko ditu, sektorearen araberako zazpi azpitaldetan banaturik. Fagor izena buru den Talde honek aurtengo ekitaldirako 200.000 milioi pezetako salmentak egitea aurrikusi du, horietatik 55.000 milioi esportazioetatik etorriko direnak.

Talde honen barruan, Arrasateko kooperatibak Espainian buru den zenbait industri iharduera badira: erreminta-makina, txaparen lanketarakoi sistema automatikoak, linea zuriko elektragailuak, automobilgintzarako osagarriak, osagai elektromekanikoak, erdieroaleak, zenbakizko kontrolak eta erregulazio sistemak, etxeko altzariak eta metalezko egiturak, besteak beste.

✓ Taldearen barruko enpresak ahalik eta eraginkorrenak izatea eta zuzendaritza bateratuagoa izatea» dira berregituraketa honen xedeak.

Azkenik, Banakuntza Taldearen bilakaera Eroskik Valenciaco Consum taldearekin xedatutako estrategian oinarrituko da. Estrategia hau merkatua Estatu espainiar zein Europako gainontzeko lurraldeetara (Frantzia eta Portugal batez ere) zabaltzeko ahaleginetan oinarritzen da.

Eroski-Comsum partzuergoaren estrategietako bat, Espainian irekiko diren hipermerkatu guztien kapitalaren % 51 eskuratzea da.

Ekitaldi horretarako, Talde honek 120.000 milioi pezetako fakturazioa izango duela aurrikusten da eta 1995ean, planak betez gero, 400.000 milioira iritsi daitezkeela uste dute AKK-koek, 9.000 lanpostu berri sortzeaz gainera.

TALDEAREN OINARRIZKO ESTRATEGIAK

Arrasateko Korporazio Kooperatiboarentzat hainbat estrategia zehaztu eta onartu zituzten kongresuan. Oinarrizko estrategiak negozio berriak eta enplegua sortu, kooperatiben iharduueraren nazioartera zabaldu, enpresen konpetibitatea hobetu eta kooperatiben eredura Europako Komunitatera zabaltzea dira.

Bestalde, Kongresuak 'MCC Inversiones' (AKK inbertsioak) kartera elkartearen sorrera ere baimendu zuen. Honen eginkizuna korporazioaren garapena bideratzea da, merkatal, teknologiko edo beste era bateko sinergiak ekar litzaketen kapital elkarteen partizipazioak eskuratzearen bidez. Korporazioak estrategikotzat jotzen dituen sektoreetan sartuko litzateke kartera elkarte hori.

BERGARAKO UDALA

Bergarako Udalak lehiaketa-oposizio bidez **Euskara Saileko Teknikari bat** kontratatu behar du denboraldi baterako.

Izangaien Baldintzak:

★ Adinez nagusia izatea.
★ Erdi mailako karrerako edo parekide den tituluren baten jabe izatea.
★ Euskara, ahozkoa nahiz idatzizkoa, ondo menperatzea.

Instantziak:

Instantziak aurkezteko epea 1992ko urtarrilaren 11ko ordubatak arte.

Frogak:

Lehenengo froga 1992ko urtarrilaren 27an, goizeko 10etan Udaletxean egingo da.

Baseak:

Baseak eta informazioa gehigarria Idazkaritzako bulegoetan.

ANDOAINGO UDALA

BITARTEKO FUNTZIONARI GISA, KONTZUMITZAILEEN INFORMAZIORAKO UDAL BULEGOKO ARDURADUNAREN KONTRATAZIOA

-Helburua: Bitarteko funtzionari gisa, Kontsumitzaileen Informaziorako udal Bulegoko Arduradunaren kontratazioa egitea.
-Eskaerak aurkezteko epea 10 egunetakoa izango da, lanpostuaren deialdiaren iragarkia prentsan eta Udaletxeko Iragarki Taulan jendaurreratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasirik.
-Informazioa: Langilegoaren Negoziatuan emango da Udaleko bulego - ordutan.

Andoain, 1991ko abenduak 20.

Jose Elorrieta. AITOR BAYO

Elorrieta egoerak «txarrera» egingo ote duen beldur da

V.P. / **BILBO**

ELA sindikatuko idazkari nagusia den Jose Elorrietaren esanetan, une honetan «zalantza, ardura eta beldur handia dago gauzak okertu daitezkeelakoan, azaroaren 30eko manifestazioan erakutsi zen bezala». Bere ustez «ordua da neurriak hartu eta instituzioek egoeraren kontzientzia har dezaten».

Elorrietaren iritziz, «Eusko Jaurlaritzak kontsulta eta negoziaziorako jarrera irekiagoa erakutsi beharko luke sindikatuekiko». Era berean, «azken urteotako batasun sindikala hausteko arriskurik» ez dagoela gaineratu zuen.

Sidenorren plangintza negoziatuko dute sindikatu eta zuzendaritzak

Aurtengo hitzarmena sinatzeko aurreakordiora heldu ziren azken bileran

Acenor eta Foarsa biltzen dituen Sidenor holdinga eta ELA, LAB, UGT eta CCOO sindikatuak, 1991ko hitzarmen kolektiboa sinatzeko aurreakordiora heldu ziren ostiralean Madrilen egin zuten bileran. Ondorioz, sindikatuek Sidenorrek proposatzen duen bideragarritasun plangintza eztabaidatzea onartu dute.

BILBO

Acenorreko lau sindikatu nagusiek eta Sidenor altzairu berezien holdingeko arduradunek egin duten bostgarren bileran enpresaren bideragarritasun plana negoziatzeko mahaia eratzea erabaki zuten.

Aurreko lau aldietan ez zen akordiorik lortu, sindikatuek plangintza negoziatu aurretik hitzarmen kolektiboa sinatzea eskatzen bait zuten. Azkenean, ostiralean hitzarmena sinatzeko aurreakordiora heldu ondoren, sindikatuek plangintza negoziatzea onartu zuten. Aurreakordioan % 7ko soldata igoera jasotzen da.

Sidenorren Bideragarritasun Plangintzaren arabera, Acenorrek Hernani eta Laudion dituen lantegiak itxiko lirateke eta 1.690 lanpostu deuseztatuko lirateke. Gaur egun 3.500 langile inguruk osatzen du Acenorreko plantila, Hernani, Laudio, Gasteiz, Larrondo eta Basauriko lantegietan banaturik.

Acenorren egoera badirudi konponbidean degoela. ANDER GILLENEA

Plangintzari buruzko negoziazioen abiapuntuak altzairu taldearen finantz eta ekonomi krisi larria, Boston Consulting Group Geslink aholkularitza enpresak egindako ikerketa eta Sidenorrek onartutako bideragarritasun plangintza bera izango dira. ELA, LAB, UGT eta CCOO sindikatuek eta Sidenorreko arduradunen ustez, plangintza estrategikoaren negoziazioari irtenbide azkarra ematen bazaio, enpresaren finantz eta ekonomi arloko egonkontasuna bideratu ahal izango da.

Acenorreko langileak oporretan daude datorren urtea hasi arte. Gogoratu azken egunotan bost lantegiak geldirik egon direla, Iberdrolak argindarra moztu ondoren.

Ardi esnearen egoera konpondu gabe

L.E. / **BAIONA**

Herenegun prefetak Paben kudeatu bilerak eta esne industriariek eginak ez dute ezer konpondu ardi esnearen prezioaz. Aurreko astean Aiziritzen iragan okupazio eta solasaldiek lortu zuten ostiralean bi bilera horien ospatzea. Larunbat honetan gauzak hein berean daude, iragarri diren bilera berriak arte.

Nekazal munduan etsipena nagusitzen ari da asteburu honetan, uste bait zen ostiraleko bileretan behin-betiko aterabideak agertuko zirela. Gainera berritasuna da laborarien ordezkariak, ELBkoak eta FDSEAkoak, orain arte aho batez mintzatu zirenak, ikuspuntu ezberdinekin jarri direla. Prefetak goizean deitu bileran, administrazio, industriari eta esne ekoizleen ordezkariak bildu ziren. Jatorrizko izendapena esnearentzat, AOCrentzat, ez da batasunik honentzarako laguntzak gaztari batzuek hedatu nahi dutelako eta ez esnearentzat soilik eman. Bestalde Kontseilu Nagusi edo Akitaniakoek zer laguntza emanen duten litroa 6 liberetan jartzeko ez da zehaztu.

Finantzaketa autonomikoaren erreformarik ez urtarrila arte

Estatu eta autonomietako ordezkariek negoziaketak atzeratzea erabaki zuten

Espainiako Ekonomia Ministeritza eta komunitate autonomoko sailburuak ados jarri dira finantzaketa autonomikoaren erreformarako negoziaketak urtarrila arte atzeratzeko. Sailburuek adierazi zutenez, oraindik ezadostasun nabarmenak daude Estatua eta autonomietako ordezkarien artean.

MADRIL

Negoziaketa hauen bidez, autonomietako Ekonomia sailburuek eta Espainiako Ekonomia Ministeritzak gutxieneko zerbitzuen fondoa, osasun zerbitzuen finantzaketa eta elkar-erantzukizuna fiskala zehaztuko dituzte. Arlo hauetan aurrerapausurik eman ez bada ere, jadanik hiru komisio osatu dira aipatutako arlo bakoitzean behar diren ikerketak egiteko.

Antonio Zabalza Haziendako Estatu idazkaria Macia Alavedra Ekonomia sailburu kataluniarrarekin bildu zen hiru komisioen osaketa onartu eta negoziaketak urtarrila arte eteteko akordioa lortzeko. Izan ere, Katalunia eta Extremadurako Ekonomia sailburuak izan dira Ministeritzak egindako proposamenekin ezadostasun handienak azaldu dituztenak. Zabalzak bilera amaitzean adierazi zuenez, negoziaketetan akordiorik ez bazen lortu ere, komunitateen arteko harremanak eta hauek Administrazioarekin dituztenak hobetzen ari dira.

Zabalzaren ustez, urtea amaitu aurretik akordioa sinatzea arriskutsua litzateke Administrazio eta komunitateen arteko harremanak okertu daitezkeelako. Era berean, ikerketak berriro kontutan hartzea egokia dela uste du Hazienda Estatu idazkariak.

Pujolen ustez Generalitateak ez du presarik erreforma amaitzeko.

GENERALITATEAK PRESARIK EZ

Jordi Pujol Generalitateko lehendakariak adierazi zuenez, bere Gobernuak ez du inolako presarik autonomien erreforma ekonomikorako negoziaketak amaitzeko. «Generalitateak ez du presarik eta ekonomikoki ere ez du premiarik», zioen lehendakari kataluniarrak. Pujolek esan zuenez, bere gobernuak behin-betiko akordioa lortu nahi du eta komunitate horretan egingo diren hauteskundeetan negoziaketen atzerapena ez dela aipatuko agindu zuen.

Bi zerrenda aurkeztu dira PCEko Komite Federala aukeratzeko

MADRIL

Espainiako Alderdi Komunistak (PCE) bere Komite Federala hautatzeko bi zerrenda izango ditu, bata Julio Anguita idazkari nagusi ohiaren inguruan osatutakoa eta bestea Julio Paleroren sektoreak aurkeztutakoa. Inoiz ez da gertatu bi zerrenda aurkeztea Komite Federala hautatzerakoan. Sektore ortodoxoak ere bere zerrenda aurkezteko asmoa bazuen ere, azkenean Anguitarekin bat egin eta soilik bi zerrenda izan dira aurkeztutakoak.

PCEren barnean Luis eta Jose Cabo anaiek sektore ortodoxoa osatzen dute, hau da, oraindik bere burua marxistatzat duena. Cabo anaiek Anguitaren zerrendan lau ordezkari sartzea eskatu zioten alderdiko idazkari nagusi ohiari. Dena den, Anguitak bi ordezkari baino ez zizkien eskaintzen eta azkenik proposamena onartzea erabaki dute. Luis Cabo eta Victor Diaz Cardiel izango dira sektore ortodoxoko ordezkariak.

Anguitak, berriz, PCEko kongresuaren gehiengoa berarekin du. Idazkari nagusi ohiak aurkeztutako gestio informea kongresuko ordezkarien % 78k onartu zuen eta Komite Federala aukeratzerakoan ere bere zerrendak irabazteko posibilitate guztiak ditu. Anguitaren informearen kontra ordezkarien % 5 azaldu zen. Horiek gehienbat Asturias eta Madrileko delegazioko partaideak ziren. Anguitak Maastrichteko gailurraz egindako balorapenak kritika gogorra jaso zuten. Anguitak gailurrak «huts egin» duela adierazi zuen.

ALDERDIEN FEDERAZIOAREN ALDE

Anguitak kritikei erantzuteko orduan gailurrak huts egin duela esatea ez dela oso egokia izan onartu zuen. Era berean, Alderdi Komunistako liderrak pluralitateari eutsi ahal izateko PCE alderdien federazioa bilakatu behar dela azpimarratu zuen. Anguitak Rafael Ribo lider kataluniarrari ere erantzun zion. Riboren ustez, PCEk Europako ekialdeko komunistetatik aldentzeko «kontzepzio organikoaren hausdura» egin behar du. Anguitaren esanetan, Alderdi Komunistak aspaldi hautsi zituen marxismo-leninismoarekin zituen harremanak. Anguitak PCEko Idazkaritza Nagusia uzteko erabakia ez zuen ahaztu. Bere ustez, Valenciako federazioak alderdi moduan osatzeko hartu zuen erabakiak II Asanblada Federalean onartutako akordioen kontra zihoan eta bera ez zegoen ados komunista valenciarrek hartutako erabakiarekin. Kongresuan bildutako ordezkariek alderdiaren estatutuak eta ideario berria eztabaidatuko dituzte.

JEAN LUC Lagardere Frantziako 'La Cinq' telebista kateko kapital gehiena duen 'Hachette' elkarteko buruzagiak, komuinikabide honen etorkizun iluna aurkeztu zuen. Lagarderek zioenez, «telebista katea hil zorian dago» eta lan postuak murrizteko ezarri den «plan soziala» guztiz beharrezkoa da. Plana indarrean jarriaz gero, ia 600 lanpostu kenduko dira, langilego osoaren erdia baino gehiago. 'La Cinq' telebista katean kapitala duen CSA beste elkartea ere bat etorri da Lagarderek aurkeztutako birmoldaketa planekin. Dena den, telebista katearen etorkizuna guztiz zalantzan dago.

Bandera espainiarra erre zuten Puerto Ricon

SAN JUAN DE PUERTO RICO

Puerto Ricon bandera espainiarra errez eman zioten ongietorria Cristobal Colonen oroimenez eraikitako untziei. Untzi hauek duela bostehun urte Amerikara joateko erabili zirenak bezalakoak dira eta Aurkikuntzaren bostgarren mendeurrena ospatzeko ekitaldi batean hartu zuten parte. Bandera espainiarra erretzeagatik Magdalena eta Irma Iranzo gazteak atxilotu eta berehala aske utzi zituzten.

Atxilotutako gazteek adierazi zutenez, bandera espainiarra eta estatubatuarra erretzeko asmoa zuten, Puerto Ricoren kolonizatzaileen kontrako protesta egin nahi bait zuten. Atxilotutakoen ustez, espainiarrek ez zuten esklabutza eta zapalkuntza baino eraman Puerto Ricora. Ekitaldian parte hartu zuten agintari espainiar eta puertorricoarrek poliziaren babesa behar izan zuten, manifestariek beraiengana joateko asmoa bait zuten. Protestan parte hartzen zuten manifestariek bandera beltzak zeramatzaten. Bostgarren mendeaurrenaren kontrako protestak 1992. urtean zehar errepikatzeko asmoa dute zenbait erakundek, Amerikan gertatutako sarraski historikoa salatzeko.

Perun Espainia eta Frantziako enbaxadei eraso egin diete

LIMA

Espainia eta Frantziak Peruko hirian dituzten enbaxadek atentatuak jasan dituzte. Poliziak adierazi zuenez, bi atentatu hauek Sendero Luminoso talde armatuak azken asteotan Lima hirian egiten ari den atentatu kanpainaren barnean daude. Espainia eta Frantzia dira errefuxiatu peruar gehien kanporatu dituzten bi estatuak eta bai Madril eta bai Pariseren irudi txarra hedatzen ari da peruarren artean.

Espainiako enbaxadorearen etxebizitzaren ondoan dinamita karga bat lehertarazi zuten. Eztandaren ondorioz Nabor Garciaren etxebizitzak kalte ugari izan bazituen ere, enbaxadoreak eta bere familiak ez zuten inolako kalterik izan. Poliziak eztanda gertatu aurretik enbaxadorearen etxean agertutako emakume bat atxilotu zuen. Emakumeak bortxaketa jasan zuela esan eta bapatean harrapatu zituen bertan zeuden zaindariak.

Frantziako enbaxadan, berriz, bonba bat lehertu eta aparkalekuan zeuden bi auto erabat suntsiturik geratu ziren.

Hamaika errepublikek Alma Atan ehortzi dute Soviet Batasuna

Arma nuklearren kontrol bateratua egongo da eta soilik Errusiak izango ditu

Estatu Independienteen Komunitatea (EIK) osatuta geratu zen atzo larunbatean, Soviet Batasuna zeneko hamabost errepubliketatik hamaikek integratua. Errepublika horietako lehendakariek SESBen desegitea sinatu zuten, Mikhail Gorbatxov lehendakari sovietarrari jubilazioa emanez. Mendebaldeari lasaitasuna emateko, arma nuklearren kontrol bateratua erabaki zuten hamaika errepubliketako lehendakariek.

Hamaika errepubliketako lehendakariak atzo Alma Atako gailurrean bilduta.

ALMA ATA

Errusia, Bielorrusia, Ukrainia, Kazakhstan, Kirgizia, Turkmenistan, Tadjikistan, Azerbaidjan, Uzbekistan, Armenia eta Moldaviak osatuko dute EIK, izen hau alda badaiteke ere eta errepublika ertasiarrek nahi duten Estatu Independienteen Komunitate Eurasiarra hartuko luke izentzat. Georgiak Soviet Batasuna ordezkatuko duen komunitate berrian sartu ala ez beranduago erabakiko du. Alma Atan begirale soilak izan dira georgiarrak.

Lehendakariek sinaturiko dokumentu guztiak Alma Atako deklarazioan bilduko dira. Testu horretan, autodeterminaziorako eskubidea eta estatu subiranoetako mugak ezin direla bortxatu azpimarratu da.

EIK osatzeko lanak amaitu gabe daude oraindik, eta gaur segituko du Alma Atako gailurrak.

Atzoko erabakien artean, arma nuklearren kontrola, Armadaren osaketa eta Nazio Batuetan izan beharreko ordezkaritza dira nabarmenenak. Arma nuklear guztiak kontrol aginte bakar baten esku egongo direla ziurtatu zuen Nursultan Nazarbaiev lehendakari kazakhstanarrak.

Armadaren osaketari buruz, arazoak zeuden hasieratik Armada bakarra osatu ala ez, eta horregatik abenduaren 30ean egingo den gailurrerako utzi zuten azken erabakia.

Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluko aulki sovietarra nork beteko duen eztabaidan, duda-mudak gaindituta, aho batez erabaki zuten Errusia izango dela aulkiaren jabe. Errusiak hartuko ditu, era berean, orain arte sovietarrak ziren enbaxadak. Lehendakariek Gorbatxovi eskerrak eman zizkioten «demokratizaziorako egin duen lanagatik». Agiri bat ere bidali diote SESB eta berak betetzen duen aulkia desagertu egin direla adierazteko.

EIKren oinarriak ezartzen

ALMA ATA

Alma Atan, Soviet Batasuna desegitea erabakitzeaz gain, ordezko Komunitatearen oinarriak ere jarri zituzten atzo.

❑ ARMA NUKLEARRAK botere zentral batek kontrolatuko ditu. Horien erabilera Errusiak erabakiko du, Ukrainia, Bielorrusia eta Kazakhstaneko lehendakariekin kontsultatu ondoren. Hiru errepublika horiek datorren urteko uztaila baino lehen beren arma nuklearrak Errusiara bidaliko dituzte han suntsi ditzaten.

❑ ARMADA behin-behinean oraingoak segituko du. Abenduak 30 erabakiko dute Armada bakarra ala errepublika bakoitzak berea izango duen. Bitartean, Eugeni Xapoxnikov izango da Armadako buru.

❑ HIRITARTASUNA ez dago zehaztuta oraindik, EIK-k ez duelako hiritartasun amankomunik egon behar denik adierazi. Dena den, Kravtxuk lehendakari ukrainiarrak esan zuenez, Komunitateko edozein biztanlek hiritartasun bikoitza har dezake.

❑ DIPLOMAZIA arloan, Errusiak beteko du Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluko aulki sovietarra. Enbaxadak ere errusiarrak izango dira, baina SESBeko enbaxada guztien balioa kalkulatu egingo da, beste errepublikek enbaxadak irekitzeko asmoa dutenean dagokiena emateko.

SESB: platinozko eztaietara heldu ez den batasuna

1917
Boltxebikeek Errusiako Gobernuaz jabetu ziren, mentxebikeen -tsarra boteretik kendu zutenak- kontra Urriko Altxamenduan.

1918
Leninek mentxebikeen antolatutako transiziozko erakundeak desegin eta Alderdi Komunista baino ez du onartu. Lehen errepublika sovietarra osatu du, Errusia. I Mundu Gerran bakea sinatu du alemanekin eta Nikolai II tsarra eta bere familia hiltzeko agindua eman du.

1922
Leninek Stalin Alderdi Komunistaren idazkari nagusi izendatu du eta Ukrainia eta Bielorrusiarekin Batasun Ituna sinatu du.

1924
Lenin hil da. Boterea Stalin, Zinoviev eta Kamenevek osatutako troikak hartu du.

1927
Trotski Alderdi Komunistatik bota dute.

1936-1938
Stalinek Moskuko Prozesua antolatu du. Boterean bera bakarrik geratu da. Milioika komunista espetxeratu eta hilko dira hurrengo urteetan. Stalin, jaun eta jabe.

1939
Stalin eta Hitlerrek ituna sinatu eta zenbait lurralde -Polonia, Baltikoko errepublikak, Besarabia- elkarren artean banatu dituzte.

1941 Alemaniarrek SESBi eraso egin eta ia Moskuraino iritsi dira.

1945
SESBek II Mundu Gerra irabazi eta mundua estatubatuarrekin banatu du. Gerra Hotza hasi da.

1953
Stalin hil da. Khruxtxevek boterea hartu du.

1956
Alderdi Komunistaren XX. Kogresuak stalinismoaren gehiegikeriak salatu ditu. Armada Gorriak izugarrizko sarraskia egin du Hungarian.

1964
Khruxtxev azpijoko baten bidez boteretik kanpora. Brejnevek ordezkatu du.

1968
Armada Gorriak Txekoslovakiako altxamendua zapaldu du.

1979
Armada Gorriak Afghanistan inbaditu du. Bertako gerrila musulmanek erresistentzia antolatu dute.

1982-1985
Brejnev, Andropov eta Txernenko bata bestearen atzetik hil dira.

1985
Gorbatxovek boterea hartu eta perestroika indarrean jarri du.

1988
Kaukasoan gatazka etnikoak hasi dira.

1989
Berlineko harresiarekin batera Europako ekialdeko erregimenak erortzen hasi dira.

1990
Hauteskundeen bidez errepubliketan nazionalistek boterea hartu dute. Lituaniak independentzia aldarrikatu du. Gainerako errepubliketan subiranotasun aldarrikapen ugari.

1991
Gorbatxovek batasun berria osatu nahi du. Ekainean, Ieltsin Errusiako lehendakari hautatu dute. Abuztuan, Estatu kolpeak porrot egin du, eta abenduan Ieltsinek proposatutako Estatu Independienteen Komunitateak SESB ordezkatu du.

LABURREAN

MOÇANBIQUEKO bake negoziaketak bide onetik doaz

Moçanbique-ko Gobernua eta gerrila herrialde afrikar horretan bakea lortzeko egiten ari diren negozietetako zortzigarren bileraren ondoren, oso baikor agertu ziren gatazkan dauden bi aldeak. Zortzigarren bilera horretan, bake akordioa lortu eta urtebetera egingo diren hauteskundeen prozeduraren nondik norakoa erabaki zen. Datorren urtarrilaren 15ean segituko dute negoziaketek ●

TXINAN zergak murriztu dituzte protestak ekiditeko

Txinako biztanlegoaren % 80 osatzen duten nekazarien protestek, zergak murriztera behartu dituzte herrialde horretako agintariak. Zergen jaitsiera, aurreko urtekoarekin alderatuz % 2,88koa izan da. Alderantziz, iaz ordaindu beharreko zergak, aurreko urtekoaren bikoitza izan ziren. Zergen igoera neurririk gabeak nekazarien artean sortutako haserreak, protesta ugari eragin ditu, eta zenbait zerga biltzaileren heriotza ere bai nekazarien eskutan ●

HEGOAFRIKAKO ultraeskuindarrek CODESA mehatxatu dute

Hegoafrika Demokratikoaren aldeko Konbentzioa (CODESA) egiten ari deneko egoitzaren aurka atentuak egingo dituztela, adierazi dute Otso Zurien Mugimendua talde zuri ultraeskuindarreko kideek. Mehatxua iragan ostiralean de Klerkek adierazitakoen ondorio izan dakiteke, gehiengoa diren beltzekin boterea elkarbanatzeko gertu zegoela esan bait zuen Hegoafrikako agintariak ●

HAITIARREN aberriratzea eragotzi du epaile batek

EEBBetako epaile federal batek herrialde horretako Gobernuari, haitiarren aberriratzeari berriro ekitea eragotzi dio. Epaile horren aburuz, haitiarrek nahiz eta errefuxiatu politikoen estatusik ez izan, abokatu baten laguntza izateko eskubide osoa dute. Egun 6.600 haitiar daude Guantanamoko base militarraren inguruetan eraikitako errefuxiatuentzako behin -behineko kanpamenduan ●

NBEk Mendebaldeko Sahararako erabakia atzeratu egin du

NEW YORK

Nazio Batuen Erakundeko (NBE) Segurtasun Kontseiluak bihar arte atzeratu du Mendebaldeko Saharako egoerari buruzko erresoluzioaren erabakia, Javier Perez de Cuellarrek erakunde honetako idazkari nagusiak aurkeztutako informearen eztabaidan sorturiko desberdintasunen ondorioz.

De Cuellarrek aurkeztutako informearekin ados egon arren, informe horren eranskinek sortu zuten eztabaida. Identifikazio Komisioaren lanei dagozkien aginduak jasotzen dituzte eranskin horiek, eta estatu ez alienatuen iritziz, kontsultatu edo negoziatu gabeko aldaketak daude eranskin horietan.

Mendebaldeko Saharako autodeterminazio erreferendumaren plangintzaren arabera, «boto eskubidea izateko 1974ean Espainiak egin zuen zentsoan agertu behar da bere izena edo bestela Identifikazio Komisioa konbentzitu behar du jatorriz Mendebaldeko Saharakoa izanik bere izena ez zela 1974eko zentsoan jarri».

Agindu berrien arabera, erreferendumean boto eskubidea dutenen identifikazioa «saharararrek oso ondo ezagutu eta erabiltzen dituzten identifikazio agiriak erakutsiz egingo da eta ahozko testimonioak ere onartuko dira».

Espainiak bere kolonia ohian 1974ean egin zuen zentsoan 73.497 saharararren izenak sartu zituen eta 32.516 nortasun agiri nazional banatu zituen 1970 eta 1976 urteen artean. Polisario Fronteak behin eta berriro salatu du Marokkoko Gobernuak Mendebaldeko Saharara marokkoar asko bidali dituela erreferendumaren emaitzak aldatu asmoz. Marokkok Espainiako zentsoa erabiltzeko jarri dituen trabak ere handiak izan dira, eta NBEko begiraleei Saharan zehar egin beharreko lanetan oztopo ugari jarri dizkie.

Bosnia Herzegovina eta Mazedonia ere independentzia eskaerekin

EKri beren eskaria egingo diote Eslovenia eta Kroaziarekin batera

Datorren urtarrilaren 15ean Europako Komunitateak Eslovenia eta Kroaziaren independentziak onartuko ditu, eta gauza bera exigitzen duten Jugoslaviako beste edozein errepublika ere bai, aurretik ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Bihar bere independentzia onartzea nahi duten errepublika guztiek beren eskakizuna egingo diote EKri. Bosnia Herzegovina eta Mazedoniak ere aurrera egin nahi dute bere independentziarekin.



Kroaziako gerra beste errepubliketara ere zabal daitekenaren beldurra dago.

K.ALDABE / **DONOSTIA**

Bosnia Herzegovinak, gehiengo musulmaneko errepublika jugoslaviarrak oso zail dauka independentziarekin aurrera segitzea errepublika barnean gerra zibilik eduki gabe. Izan ere bertoko biztanleen % 31 serbiarra da eta Serbiarekin Estatu berdinean segitzeko eskubidea exigitzen dute, Jugoslavia murriztuago batean bada ere. Bosniak herenegun erabaki zuen Europako Komunitateari bere independentziaren onarpena egiteko eskatzea, lehendakaritza Kontseiluaren gehiengoak aldeko botoa eman ondoren, baina boto serbiarren oposizioarekin.

Bosniako Gabineteko ministro serbiarrak zeharo kontra daude beren kide musulman eta kroaziarrek (biztanlegoaren % 61) Bosniaren independentzia aldarrikatzearekin. Atzo ageri egin zuten komunikatuan Bosniako ministro serbiarrek adierazi zuten «Bosniako herri serbiarrak ez duela onartuko beste Estatu batean minoria izatea, Estatu jugoslaviarreko sei herrietako bat izan ondoren».

Honek Bosniari «Kroaziaren lurralde zerga bera suposatzen dio: serbiarrak bizi diren eskualdeak Bosniatik bereizi ala gerra egongo da» zioten. Adituek uste dute Bosnia Jugoslavia zenaren errepublikarik gatazkatsuena dela eta bertan ondorio ezagunik gabeko gerra egon daitekela, kroaziarrak, musulmanak eta serbiarrak bizi direlako han.

MAZEDONIA ZATITU NAHI

Bere independentziarekin aurrera egin ezkero gatazketatik iragateko beldurra duen beste errepublika Mazedonia da. Izan ere Greziak lurralde eskaera egin diezaioke errepublika honi. Kontutan hartu behar da Greziak sarritan salatu duela Mazedonia «helenismo garaiko izenik ezagunetarikoa ebasteagatik».

Iturri politiko kroaziarrek komentatzen dute Greziak eta Serbiak, historikoki aliatuak izan direnak Mazedonia elkarbanatzeko prest egongo liratekela, Bulgaria Handiaren nahiari bideak mozteko.

eman ta zabal zazu

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Universidad del Pais Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Unibertsitatearen Erreformarako Legean eta berau garatzen duten xedapenetan ezarririkoaren arauera, deialdi honen Eranskinean aipatzen diren Behinbehineko Irakasle Titularren plazak hornitzeko merezimendu-lehiaketa publikorako deialdia egiten du, dagozkien jakintz arloen beraien gaien irakaskuntz, eta horrela behar izanez gero, ikerkuntz eginkizunak betetzeko.

Lehiaketak, Universidad del Pais Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen 115. artikuloan ezarririko Kontratazio-Batzordeak epaituko dituzte.

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek, dagokion eskaria bidaliko diote Universidad del Pais Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Errektore Jaunari, behar bezala beteriko instantzia-curriculumaren bidez, bai eta, horrekin batera, N.A.N.aren fotokopia ere. Unibertsitateko Irakasle Titularren plazetara aurkeztu ahal izateko ezinbesteko betebeharra da Doctore tituloaren jabe izatea. Honako titulo hau parekaturik aurkeztu behar da. Curriculumetan aipaturiko merezimenduak dokumentalki frogatu beharko dira dagokien fotokopiekin.

Plaza elebidunen leiaketara aurkeztu ahal izateko, Unibertsitateako Gobernu-Batzarrean 1988.eko Uztailaren 27ko Ekitaldian onetsiriko arautegiaz bat etorririk, Euskaraz irakasteko gaitasuna frogatuko duen aurretiko proba zehatza gainditu beharko da, eta honetarako ahozko adierazpena eta ariketa idatzia burutu beharko dira Universidad del Pais Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Errektoreak izendaturiko Batzordearen aurrean. PLAZA ELEBIDUN HAUETAN PARTE HARTUKO DUTEN GORAKOEI AIPATURIKO PROBA EGITEKO DEI EGITEN ZAIE, 1992.eko URTARRILAREN 20ko 10etan, UPV/EHU.aren ERREKTOREGOKO BATZARRE-ARETOAN, LEIOAKO CAMPUSEAN, BIZKAIAN.

Instantzia-curriculumaren ereduak Eranskinean azaltzen diren Ikastegien Idazkaritzetan emango dira, eta parte hartuko duteneko plaza bakoitzeko instantzia eta dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Instantziak aurkezteko epea aurtengo Abenduaren 30eko 13 orduetara amaitzen da eta Universidad del Pais Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira. Errektoregoaren Eraikina, 1. solairua, Leioako campusa, Bizkaia, edo Campusetako Errektorordetzetan; Gipuzkoako Campusekо Errektorordetzan: Urbieta K./ 30. Donostia eta Arabako Campuseko-Errektorordetzan, Manuel Iradier K./ 6. Gazteiz.

Lehiaketa hauen erabakiak Universidad del Pais Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Lehiaketa-Ataleko, Campusetako Errektorordetzako eta dagozkien Ikastegietako iragrki-tauletan argitaratuko dira.

Deialdi honi buruzko azalpenetarako jo Universidad del Pais Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Lehiaketa-Atalera; Errektoregoaren Eraikina, 1. solairua, Leioako Campusa (Bizkaia).

Leioan, 1991ko Abenduaren 22an Errektorea, Juan Jose Goiriena de Gandarias y de Gandarias

BEHINBEHINEKO IRAKASLE TITULARREN IZENDAPENAK ADJUDIKATZEKO LEHIAKETA

Arabako Campusa

Industri eta Topografi Ingeniaritza Teknikorako Unibertsitate-Eskola. Gasteiz.

Orden Zkia.: 127, Kategoria; Unibertsitate-Eskolako Behinbehineko Irakasle Titularra, Saila: Adierazpen Grafikoa eta Ingenieritzaren Proiektuak. Jakintz Arloa: Ingenieritzaren Proiektuak. Egin beharreko iharduerak: Industri Irudigintza eta Industri Bulego Teknikoa. Arduraldia: Osoa.

Filologi, Geografi eta Histori Fakultatea. Gasteiz.

Orden Zkia.: 128. Kategoria: Unibertsitateko Behinbehineko Irakasle Titularra. Saila: Ingeles eta Alemaniar Filologia. Jakintz Arloa: Ingeles Filologia. Egin beharreko iharduerak: Ingeles Hizkuntza. Arduraldia: Osoa.

Bizkaiko Campusa

Industri eta Telekomunikazio-Ingeniarien Goi Eskola Teknikoa. Bilbo.

Orden Zkia.: 129. Kategoria: Unibertsitateko Behinbehineko Irakasle Titularra. Saila: Ingenieritza Mekanikoa. Jakintz Arloa: Eraikuntzaren Ingeniaritza. Egin beharreko iharduerak; Industri Eraikuntza eta Arkitektura. Hiri-Sistemen Ingeniaritza. Arduraldia: Osoa.

Gizarte-Graduamen Unibertsitate Eskola. Bilbo.

Orden Zkia.: 130. Kategoria: Unibertsitate-Eskolako Behinbehineko Irakasle Titularra. Saila: Soziologia. Jakintz Arloa: Soziologia. Egin beharreko iharduerak: Soziologia Orokorra. Arduraldia: Osoa.

Meatz Ingeniaritza Teknikorako Unibertsitate-Eskola. Barakaldo.

Orden Zkia.: 131. Kategoria: Unibertsitate-Eskolako Behinbehineko Irakasle Titularra. Saila: Adierazpen Grafikoa eta Ingenieritzaren Proiektuak. Jakintz Arloa: Ingenieritzaren Adierazpen Grafikoa. Egin beharreko iharduerak: Irudigintza I. Arduraldia: Osoa.

Orden Zkia.: 132. Kategoria: Unibertsitate-Eskolako Behinbehineko Irakasle Titularr. Saila: Adierazpen Grafikoa eta Ingenieritzan Proietuak. Jakintz Arloa: Ingeniritzaren Adierazpen Grafikoa. Egin beharreko iharduerak: Irudigintza I. Arduraldia: Osoa.

Orden Zkia.: 133. Kategoria: Unibertsitate-Eskolako Behibehineko Irakasle Titularra. Saila: Fisika Aplikatua I. Jakintz Arloa: Fisika Aplikatua. Egin beharreko iharduerak: Fisika. Elebiduna: Euskara/Gaztelania.Arduraldia: Osoa.

Orden Zkia.: 134. Kategoria: Unibertsitate-Eskolako Behinbehineko Irakasle Titularra. Saila: Ingenieritza Kimikoa eta eta Ingurugiroarena. Jakintz Arloa: Ingenieritza Kimikoa. Egin beharreko iharduerak: Kimika Elebiduna: Euskara/Gaztelania. Arduraldia: Osoa.

Orden Zkia.: 135. Kategoria: Unibertsitate-Eskolako Behinbehineko Irakasle Titularra. Saila: Matematika Aplikatua. Jakintz Arloa: Matematika Aplikatua. Egin beharreko iharduerak: Kalkulo Infinitesimala eta Algebra Lineala (lehenengo plaza). Elebiduna: Euskara/Gaztelania. Arduraldia: Osoa.

Orden Zkia.: 136. Kategoria: Unibertsitate-Eskolako Behinbehineko Irakasle Titularra. Saila: Matematika Aplikatua. Jakintz Arloa: Matematika Aplikatua. Egin beharreko iharduerak: Kalkulo Infinitesimala eta Algebra Lineala (bigarren plaza). Elebiduna: Euskara/Gaztelania. Arduraldia: Osoa.

Ekonomi eta Enpresa-Zientzien Fakultatea. Bilbo.

Orden Zkia.: 137. Kategoria: Unibertsitateko Behinbehineko Irakasle Titularra. Saila: Ekonomi Analisiaren Oinarriak. Jakintz Arloa: Ekonomi Analisiaren Oinarriak. Egin beharreko iharduerak: Makroekonomia. Arduraldia: Osoa.

Gipuzkoako Campusa

Enpresa-Ikasketen Unibertsitate-Eskola. Donostia.

Orden Zkia.: 138. Kategoria: Unibertsitate-Eskolako Behinbehineko Irakasle Titularra. Saila: Ekonomia Aplikatua. Jakintz Arloa: Ekonomi Aplikatua. Egin beharreko iharduerak: Finantz Eragiketen Matematika. Arduraldia: Osoa.

Filosofiaren eta Hezkuntz Zientzien Fakultatea. Donostia.

Orden Zkia.: 139. Kategoria: Unibertsitateko Behinbehineko Irakasle Titularra. Saila: Didaktika eta Eskola-Antolakuntza. Jakintz Arloa: Didaktika eta Eskola-Antolakuntza. Egin beharreko iharduerak: Adimenez Gutxituen Pedagogia. Arduraldia: Osoa.

PANAMAko inbasioaren urteurrenean, jende ugari irten zen kalera Estatu Batuen «inperialismoa salatuz». Inbasio horretan, EEBBek Manuel Antonio Noriega jenerala atxilotu zuten. Argazkian ikusten diren monje budista bi horiek Panama hirian 7.500 pertsonek parte hartu zuten manifestaldian doaz. Manifestaldiez gain, bonba batek lehertu zuen egun horretan eta EEBBen enbaxadan kalte txikiak eragin zituen. Bonba horren ardura M-20 taldeak hartu zuen beregain.

Taiwan: boto independentistak gora egin du hauteskundeetan

Gobernuko KMTk oposizioarekin pakturen bat egin beharko du

Taiwan-en atzo egin ziren lehendabiziko hauteskunde demokratikoetan, boto independentistaren igoera nabarmena eta Gobernuan dagoen KMT edo Kuomintang alderdiaren garaipen erraza izan ziren gertakaririk nabarmenenak. Alderdi Demokrata Progresistak independentziaren aldeko jarrera hartuz, duela bi urteko emaitzekin konparatuta behera egin badu ere, inkestek ematen zioten % 15 baino boto gehiago lortu ditu.

TAIPEI

Izan ere, duela bi urteko hauteskunde partzialetan botoen % 35 eskuratu zuen, baina orduan ez zuen independentziaren aldeko jarrerarik agertu oraingoetan egin duen bezala. Jakitera emandako lehendabiziko emaitzen arabera, hiru milioi boto zenbatu ondoren, Alderdi Demokrakta Progresistak botoen % 24 eskuratu du.

MKT alderdi gobernatzaileak, berriz, duela bi urte baino boto gehiago eskuratu du, % 70 hain zuzen. Gobernatzen segitzeko inolako arazorik izango ez badu ere, alderdi honek zituen asmoak baino boto gutxiago eskuratu ditu. Izan ere, bere helburua % 75 eskuratzea zen, Konstituzio taiwandarra berritzerako orduan oposizioarekin pakturik egin behar ez izateko. Beste bi alderdi txikiagoek eskuratu dute Legebiltzarreko beste aulkiak.



BENAT AZURMENDI

DEMOKRAZIA GARATU NAHIAN

Atzoko hauteskundeak 1947ko azaroan ezarritako Legebiltzarreko azken 469 diputatuen «jubilazioaren» ondoren egin dira. Txinan sortutako Legebiltzar hau izan da orain arte Taiwan ordezkatzeko erakunde legitimo bakarra.

Legebiltzar berriak, Taiwaneko politika demokratizatzeko araudiak aztertuko ditu. Besteak beste, errepublikako lehendakaria herriak hautatuko duen edo independentzia erreferendumaren bidez aldarrikatu beharko den aztertuko du. Gaur egun Legebiltzarrak du errepublikako lehendakaria hautatzeko boterea.

Hauteskunde hauek izan dira KMT alderdi nazionalistari legitimitatea eman dioten lehendabizikoak. Taiwanen 1949an ezarri zen Gobernuan, Chiang Kai Shek-en nazionalistak komunisten aurka galdu zutenean. Esku gogorreko urteetako erregimenaren ondoren, Gobernuak lege martziala altxatu zuen 1987an. Giro politiko berriak baimendu zuen 1989an hauteskunde partzialak egitea, eta alderdi desberdinek parte hartzea, alderdi bakarreko sistemarekin amaituz.

Independentziaren aldeko jarrerak, Alderdi Demokrata Progresistak hartu duena, duela urte gutxi gartzelako bidea hartzea suposatzen zuen. Baina Chiang Ching Kuo lehendakaria hil ostean, Taiwaneko 'perestroikak' ideologia desberdinak sartzeko aukera eman zuen. KMT alderdiak Txina osoa ordezkatzen duelako ideia ez du baztertu, nahiz eta ia inork ez dion jaramonik egiten. Alderdi Demokrata Progresistak berriz, Txinarekin harreman guztiak hautsi eta irlak bere bidea hartzea proposatzen du, kontinentetik at bere identitate propioarekin.

> ✓ Hauteskunde hauetatik irtendako Legebiltzar berriak, Taiwaneko politika demokratizatzeko araudiak aztertuko ditu.



Chiang Ching Kuoren alargunak ere bere botoa eman zuen atzo.

Cuomo demokrata ez da EEBBetako Lehendakaritzarako aurkeztuko

NEW YORK

Mario Cuomo, New Yorkeko gobernadorea ez da Estatu Batuetako Lehendakaritzarako hauteskundeetan hautagai gisa aurkeztuko. Cuomok herenegun gauean aukera hori baztertu zuen hilabeteetan erabaki horren zain eduki ondoren EEBBetako herritarrak.

New Yorkeko gobernadore izaten segituko duela adierazi zuen Cuomok, eta ez dela aurkeztuko datorren urteko hauteskundeetara. Klase politiko iparramerikarra zain zegoen New Yorkeko gobernadoreak zer erabakiko zuen, denek jotzen bait zuten George Bush lehendakariaren etsairik gogorrena modura.

Alderdi Demokrata iparramerikarrak errepublikarren aurka lehiatzeko hautagairik egokiena galdu du, dagoeneko egungo lehendakari iparramerikarraren arrakasta izatera lortu bait zuen Cuomok eta Bushena, berriz, beherantz zihoan EEBBetako krisi ekonomikoak eraginda.



Mario Cuomo.

Cuomok emandako prentsaurrekoan adierazi zuen ez zela datorren urteko Lehendakaritza hauteskundeetara aurkeztuko, New York estatuko aurrekontuen zailtasunak direla eta ez zuela New Hampshireko primarioetarako kanpainan buru belarri sartzerik izango.

eman ta zabal zazu

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibersitateak, Unibertsitatearen Erreformarako Legean eta berau garatzen duten xedapenetan ezarririkoaren arauieradeialdi honen Eraskinean aipatzen diren Irakasle Lagunen plazak hornitzeko merezimendu-lehiaketa publikorako deialdia egiten du, dagozkien jakintz arloen beraien gaien irakaskuntz eta, horrela behar izanez gero, ikerkuntz eginkizunak betetzeko.

Lehiaketak, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen 115. artikuluan ezarririko Kontratazio-Batzordeek epaituko dituzte.

Kontratazio-klausulak, Unibertsitatearen Gobernu-Batzarreak 1987eko uztailaren 14eko ekitaldian onarturikoak dira.

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek, dagokion eskaria bidaliko diote Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Errektore Jaunari, behar bezala beteriko instantzia-currriculumaren bidez. Curriculumean aipaturiko merezimenduak dokumentalki frogatu beharko dira dagokien fotokopiarekin.

Instantzia-curriculumaren ereduak Eranskinean azaltzen diren Ikastegien Idazkaritzetan emango dira, eta parte hartuko dueneko plaza bakoitzeko instantzia eta dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Instantziak aurkezteko epea aurtengo abenduaren 30eko 13:00 orduetan amaitzen da eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, Errektoregoaren Eraikina, 1. solairua, Leioako Campusa, Bizkaia, edo Campusetako Errektorordetzetan: Gipuzkoako Campuseko Errektorordetza: Urbieta k/, 30 - Donostia eta Arabako Campuseko Errektorordetza: Manuel Iradier k/, 6 - Gasteiz.

Lehiaketa hauen erabakiak Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Lehiaketa-Ataleko, Campusetako Errektorordetzetako eta dagozkien Ikastegietako iragarki-tauletan argitaratuko dira.

Deialdi honi buruzko azalpenetarako, jo Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Lehiaketa-Atalera, Erektoregoaren Eraikina, 1. solairua, Leioako Campusa (Bizkaia).

Leioan, 1991eko abenduaren 22an. Errektorea, Juan José Goiriena de Gandarias y de Gandarias.

IRAKASLE LAGUNEN KONTRATUAK ADJUDIKATZEKO LEHIAKETA PUBLIKOA

Bizkaiko Campusa

Enpresa-Ikasketen U.E. -Bilbo

Orden Zkia.: 81. Mailegua: Irakasle Laguna. Saila: Enpresa-Gestio eta Berrikuntzaren Ebaluazioa Jakintz Arloa: Zuzenbide Zibila. Eginbeharreko iharduerak Zuzenbidea (Sarrera). Arduraldia: Astean 4 lau ordu.

Meatz Ingeniaritza Teknikorako U.E. - Barakaldo

Orden Zkia.: 82. Mailegua: Irakasle Laguna. Saila: Meatz eta Metalurgiarako Ingenieritza. Materialen Zientzia. Jakintz Arloa: Meatz Prozpekzioa eta Ikerkuntza. Eginbeharreko iharduerak Geologia, Petrografia eta Mineral-Haztegiak, Arduraldia: Astean 6 ordu.

Orden Zkia.: 83. Mailegua: Irakasle Laguna. Saila: Meatz eta Metalurgiarako Ingenieritza. Materialen Zientzia. Jakintz Arloa: Meatz Prozpekzioa eta Ikerkuntza. Eginbeharreko iharduerak Geologia, Petrografia eta Mineral-Haztegiak, Arduraldia: Astean 6 ordu.

Orden Zkia.: 84. Mailegua: Irakasle Laguna. Saila: Meatz eta Metalurgiarako Ingeniaritza. Materialen Zientzia. Jakintz Arloa: Meatzeen Explotazioa. Eginbeharreko iharduerak: Lehergailuak. Arduraldia: Astean 3 ordu.

Ekonomi eta Enpresa-Zientzien Fakultatea - Bilbo

Orden Zkia.: 85. Mailegua: Irakasle Laguna. Saila: Zuzenbide Pribatua. Jakintz Arloa: Merkatal Zuzenbidea. Eginbeharreko iharduerak Merkatal Zuzenbidea. Arduraldia: Astean 6 ordu.

Gipuzkoako Campusa

Zuzenbide-Fakultatea - Donostia

Orden Zkia.: 86. Mailegua: Irakasle Laguna. Saila: Zuzenbide Zibila. Jakintz Arloa: Zuzenbide Zibila. Eginbeharreko iharduerak Zuzenbide Zibila. Arduraldia: Astean 6 ordu.

Orden Zkia.: 87. Mailegua: Irakasle Laguna. Saila: Zuzenbide Zibila. Jakintz Arloa: Zuzenbide Zibila. Eginbeharreko iharduerak Zuzenbide Zibila. Arduraldia: Astean 6 ordu.

Informatika-Fakultatea - Donostia

Orden Zkia.: 88. Mailegua: Irakasle Laguna. Saila: Konputagailuen Arkitektura eta Teknologia. Eginbeharreko iharduerak Konputagailuen Arkitektura 1. Arduraldia: Astean 4 ordu

Orden Zkia.: 89. Mailegua: Irakasle Laguna. Saila: Konputagailuen Arkitektura eta Teknologia. Jakintz Arloa: Konputagailuen Arkitektura eta Teknologia. Eginbeharreko iharduerak Konputagailuen Arkitektura 1. Arduraldia: Astean 4 ordu.

Orden Zkia.: 90. Mailegua: Irakasle Laguna. Saila: Konputazio-Zientziak eta Adimen Artifiziala Jakintz Arloa: Konputazio-Zientziak eta Adimen Artifiziala. Eginbeharreko iharduerak Zenbakizko Analisia eta Ikerkuntza Operatiboa.Arduraldia: Astean 6 ordu.

Orden Zkia.: 91. Mailegua: Irakasle Laguna. Saila: Konputazio-Zientziak eta Adimen Atifiziala. Jakintz Arloa: Konputazio-Zientziak eta Adimen Artifiziala. Eginbeharreko iharduerak Zenbakizko Analisia eta Ikerkuntza Operatiboa. Arduraldia: Astean 6 ordu

Orden Zkia.: 92. Mailegua: Irakasle Laguna. Saila: Lengoaia eta Sistema Informatikoak. Jakintz Arloa : Lengoaia eta Sistema Informatikoak. Eginbeharreko iharduerak Programaketaren Metodología. 1. Arduraldia: Astean 6 ordu

Medikuntz eta Odontologi Fakultatea. I.I.G. - Donostia

Orden zkia.: 93. Mailegua: Irakasle Laguna. Saila: Medikuntza. Jakintz Arloa: Medikuntza. Eginbeharreko iharduerak Dermatologia. Arduraldia: Astean 6ordu.

FUTBOLA

Zelaia: Sanchez Pizjuan. Ordua: 17.00

SEVILLA		OSASUNA
ALINEAZIOAK		
UNZUE	1	ROBERTO
DIEGO	2	AROZARENA / MERINO
	3	BUSTINGORRI
MARTAGON	4	PEPIN
CORTIJO	5	SPASIC
SALGUERO	6	M. GONZALEZ
CONTE	7	URBAN
BENGOECHEA	8	LARRAINZAR II
ZAMORANO	9	AGUILA
RAMON	10	M. DOMINGUEZ
SUKER	11	STEVANOVIC
ESPARRAGO	Ent.	ZABALZA

Epailea: Yuste Gonzalez.

Osasunak behartutako aldaketak Sevillako aurrelariei eusteko

IRUNEA

Txomin Larrainzarren hutsak Osasunako atzekaldea eraldatu egingo du, Zabalzaren hitzetan «oso gizon egokia bait zen Zamorano edo Suker hartzeko». Denbora nahikoa izan du hala ere entrenatzaileak haren ordezkoa hautatzeko, Pepinen azken orduko gripeak buruhauste gehiago eragin arren. Madrildarrak hasieratik jokatzeko aukera izango du baina, eta aldaketa bakarra egingo du Zabalzak hasierako hamaikakoan, Larrainzar I ordezkatuko duena: Merino ala Arozarena.

Sevilla etsai gogorra izango da gorritxoentzat, gaurko partiduaz gain UEFArako txartelak eskuratzeko lehian sartzeko arrisku handia bait dago, Osasunak gorakako bidearri ekinez gero. Sanchez Pizjuan zelaian ohizko bi puntuak baino gehiago izango dira jokoan.

Bolada onean da Esparragoren taldea, Atletico de Madridi 0-3 irabazi eta gero, baina denboraldi osoan Sevillak erakutsi duen irregulartasunak baikor izateko arrazoirik ematen du. Etxeko zazpi partiduetan bi berdinketa eta garaipen bat lortu dute Sevillaren bisitari izan direnek, eta Zabalzak argi du zer egin behar den gaur emaitza ona lortzeko: «Sevillak baino hobeto jokatu».

Athleticen kontra zelairatu zuen hamaikakotik aldaketa bakarra egingo du Zabalzak, Txomin Larrainzarren hutsak behartua. Honako jokalariak izango dira Sanchez Pizjuanen hasieratik ariko direnak: Roberto, Spasic, Bustingorri, Arozarena ala Merino, Larrainzar II, Martin Gonzalez, Stevanovic, Martin Dominguez, Urban eta Aguilá. Deialdia Unanua, Jose Mari, Angelov eta Cholok osatzen dute.

Pepin, gripearekin. JOXE

Sevillari dagokionez, Victor Esparragok ere aldaketa bakarra egingo du Vicente Calderonen irabazi zuen hamaikakoarekin alderatuz. Marcos zigortuta dago, eta hauexe izan daiteke Osasunaren kontra zelairatuko duen taldea: Unzue, Salguero, Diego, Martagon, Cortijo, Conte, Ramon, Andrade, Bengoetxea, Suker eta Zamorano. Aurrelarigoan ditu jokalari aipagarrienak Sevillak, Real Madridera joan daitekeen Ivan Zamoranoren osagarri egokiena bait da 'Sukerman' goleatzailea.

ATHLETIC CLUB

BANKA-SISTEMARI HELDU EZ DIOTEN BAZKIDE Jn./Andr.k
Banka-helbideraketa sistemari heldu ez dioten bazkide Jn./And.entzako urteko txartelak ondoren azaltzen diren leku eta datan eskuratu ahal izango dira **1991ko TXARTELA AURRETIAZ AURKEZTUZ**

TXARTEL SALMENTA
SAN MAMES STADIUMean: (Txarteldegia, Luis Briñas k.an)

EGUNAK: Abenduaren 23tik urtarrilaren 4era
ORDUTEGIA: 10:30ETIK 13:30etara
17:00etatik 20:00etara
(jaiegunetan salbu) 24 eta 31 10:30etik 13:00etara

Bilbo, 1991ko abenduak 22

LANCIA BILASA rekin dabil Athletic
Alameda Rekalde, 48 Tfn.: 410 12 55 BILBO Autonomia, 53 Tfn.: 427 58 20

Etxetik kanpo lehen garaipena eskuratu nahi du gaur Realak

Toshackek zalantza handiak ditu Coruñaren kontrako hamaikakoa osatzeko

Realak Deportivo de la Coruñaren kontrako partriduarekin agurtuko du urtea. Etxetik kanpo lehen garaipena lortzea da donostiarren helburua. Toshackek hamazazpi jokalari eraman ditu Coruña aldera, baina azken momentura arte ez du zelairatuko duen hamaikakoa zehaztuko.

DONOSTIA

Etxetik kanpoko lehen garaipena oparitu nahi die Realak zaletuei. Donostiarrek oraindik ez dakite etxetik kanpo irabaztea zer den. John Toshack asmo horrekin abiatu zen atzo hamazazpi jokalarirekin Zubietako entrenamenduaren ostean. «Etxetik kanpo irabaztea da falta zaiguna, hori lortu ez duten gutxienetakoak gara».

Galesak ez zuen hamaikakoari buruz arrastorik eman. Lehengo astean bezala, Imanol atzelaria da zalantza nagusietakoa. «Ostegunean bere eskuineko hankak onera egin zuen, baina bi egun hauetan berriz ez du onera egin. Ez nago batere ziur, korritzeko ez du arazorik baina baloia jotzeko orduan ez dabil batere ondo». Orioko atzelariak seguruenik ez du Deportivoren kontra jokatuko.

Aste honetako entrenamenduetan ikusi denez, Toshackek aldaketa taktikoak egingo ditu Deportivoren kontrako partidurako. Litekeena da Luis Perez aurrelaria ordezkoen aulkian geratzea eta zelai erdian beste gizon bat kokatzea. Toshackek honako hamaikakoa zelairatu dezake: Gonzalez; Uria, Gorriz, Larrañaga, Agirre, Fuentes; Lunbreras, Imaz, Carlos Xavier, Oceano; eta Kodro. Luis Perez zelairatzea erabakitzen baldin badu, Lunbreras gera daiteke hamaikakotik at.

Zelaia: Riazor. Ordua : 17.00

DEPORTIVO		REALA
ALINEAZIOAK		
LIAÑO	1	GONZALEZ
KIRIAKOV	2	FUENTES
ANTONIO	3	URIA
DJUKIL	4	LARRAÑAGA
MARTIN LASARTE	5	GORRIZ
SABIN BILBAO	6	AGIRRE
MUJIKA	7	IMAZ
JOSE RAMON	8	OCEANO
KANATLAROSVKI	9	KODRO
FRAN	10	C. XAVIER
CLAUDIO	11	LUNBRERAS
BORONAT	Ent.	J. B. TOSHACK

Epailea: Sanchez Calvo.

Txema Lunbreras. ANDER GILLENEA

BORONATEKIN EGOTEKO GOGOA

Kazetariek eginiko galderei erantzunez, John Toshackek Marco Antonio Boronati buruz hitzegin zuen atzoko prentsaurrekoan. «Zergatik ez diot agurtuko? Lehengo egunean egin zituen adierazpenen ostean lehen baino gogo handiagoa dut Marco agurtzeko». Boronatek argiago hitzegin behar duela uste du galesak, «zehatzago izan beharko luke adierazpenetan, gauzak airean uzteak ez du zentzurik. Zehazki zer pentsatzen duen jakin nahi dut».

Hala ere, Toshacken ustez partiduak ez du «morbo» berezirik, «etxetik kanpo jokatzen dugun beste partidu normal bat da. Oraindik ez dugu etxetik kanpo irabazi eta hori da orain gure helburu nagusia». Deportivok ordea partidu politak egin ditu azken ihardunaldietan.

Etxekoa otso, kalekoa uso

INAKI ELORTZA

Hemen gaudenorentzat nahiz Galizian dauden zale askorentzat, 1991ko Realaren azken partiduak morbo handia du. Etxean jaio, hasi eta hezi, jokalari eta entrenatzaile egin den Boronaten Deportivoren aurka jokatzeak, nahitanahiez, errespetu galanta merezi du.

Lorturiko guztia Donostian eta donostiarrekin egindako merezimenduei esker erdietsi du. Inortxok ez dio ezer erregalatu nahiz eta «etxeko» kazetariren baten bonbardaketa inoiz jasan behar izan duen. Duela gutxi ere J.B. Toshackek eta 'Marca' kirol egunkariari eginiko adierazpenetan intentzio berezirik ere somatzen zen... «Donostiara etorri nintzenean Reala UVIn zegoen, historian izan duen egoerarik larrienean»... eta «zalea ez dadila atera Atotxatik zenbaitetan atera den gonbitularriz». Zein zaila egiten den etxeko bati lanik errekonozitzea, zein xamurra kanpokoarena goraipatzea! Zenbat eskatzen zaion sarritan etxekoari, kanpokoaren ezer gutxirekin zein erraz konformatzen garen!

Gauza da, bi talde txuri-urdinak aurrez aurre ditugula urteari ADIO esateko. M.A. Boronaten lepoa aiztoaz pasatzeko prest izan denean bat baino gehiago, hara hor nondik, A Coruñakoek gorakako bideari ekin diote. Kopan aurrera darraite, eta Ligan 5 negatiborekin egotetik eta Sarriako garaipenari esker birekin egotera pasa dira. Kategoriari eustea dute helburu.

Reala bitartean, Logroño eta Bernabeun otsoari belarriak ikusi ondoren, esnatu zen gaur zortziko partiduan. Gol aukerak ondo gauzatu eta atzerritarrak eurengandik espero zitekeena eman dezaketela erakutsiz nabarmendu ziren. Laugarren ihardunaldirako hiru negatiborekin egon den taldea egun bakarrarekin egotea ez dago gaizki. Gaur izan daiteke donostiarrentzat lehen itzulian oraindainoko egunik nagusiena. Garaipenarekin urtea agurtu eta Albaceteren kontrako partiduan urte berriari positiboarekin ekingo liokete.

Askotan ezer gutxirako balio izan ohi du aurrez entrenaturiko taldearen aurka jokatzeak. Toshack Bernabeutik burumakur bueltatu zen. Jantzi dezagun Reala positiboz 1992rako.

SASKIBALOIA

Sibiliok postua gal dezake bosteko titularrean. OLALDE

Taugres eta Joventut, puntako neurketa gaur Araba Pabilioian

LUIS KARLOS GARCIA / **GASTEIZ**

ACB Ligan dagoen talde indartsuenak eta nagusiei lidergoa kentzeko bigarren mailakoen artean orain arte gaitasun gehien erakutsi duenak, elkarren kontra jokatuko dute gaur Gasteizen eguerdiko 12.15etan eta TVE-2k zuzenean eskainiko du.

Joventut eta Taugresen arteko partidua puntakoa izango da. Batak zein besteak, arerioaren beldur ibiltzeko arrazoiak ditu. Herb Brownen taldeak, Badalonakoek guztira hogei partidu galtzeke eman dituztelako, eta Mike Smithek jokatzerik izango ez duen arren, jokalari zerrenda izugarria dutelako. Lolo Sainzek, bestetik, Zurbanoko kantxan irabaztea «erronka aparta» dela aitortu behar izan du.

Baina beldurrak beldur, Baskoniak fitxatu berri duen David Wood iparramerikarra da gaur arreta handiena bilduko duena. Oraindik ere azalpenak egiteko astirik izan ez duen jokalari berria su eta gar aritu da asteko entrenamenduetan. Duela bi urte Barcelona txapeldun egin zuen jokalaria dela bistan utzi nahi izango du Woodek, bai Arabako zaletuen aurrean baita Espainiako telebistaz partidua ikusiko duten Estatuko ikusleen aurrean ere.

David Woodek «seigarren jokalariaren» modura jokatzeko dauzkan ezaugarriak azpimarratu ditu Brownek. Hala ere, Laso, Rivas, Arlauckas eta Dicentarekin batera kantxan izango denean osatuko duten bostekoak ez dio inori apal zertan begiratu behar, ezta gaur Joventuti ere.

ARAZOAK TALDE BIETAN

Edozelan ere, partidua ez zaio inori unerik onenean iritsi. Taugreseko jokalariak beherakada mental gogorra uxatu nahian dabiltza, eta talde nagusien aurka erreakzio bikaienak gauzatzen dituzten neurrian, baikor ibiltzekoa da gaur aurkaria Montigala Joventut izanda ere. Gauza jakina da, esate baterako, Ramon Rivasek ekitaldi politenak pisu handiko arerioen kontra egitea ohizkoa duela.

Badalonako taldea kale egin barik partiduak irabazten ari da, baina jokoan ezintasun ulergaitzak ere erakutsi ditu. Ferran Martinez lesionaturik, Carles Ruf eta Jordi Villacampa larri dabiltza fisikoki. Dena den, denboraldi galanta egiten ari den Jordi Pardo, Corney Thompson pibot erregularra, Pressley trebea edo nahi bezalako erritmoa jartzen dakiten Jofresa anaiak, Morales bilbotarrarekin batera ia garaitezinak dira.

ESKUBALOIA

Elgorriagak ASOBAL Koparako sailkapena lortu zuen atzo

Irundarrek 26-25 irabazi zioten Barcelonari Artalekun

Elgorriaga Bidasoak ASOBAL Kopa jokatuko du urtarrileko lehen egunetan atzo Barcelonari irabazi ondoren. Atzoko garaipenarekin Juantxo Villarrealenak sailkapenaren lehen postuan kokatu dira lehen fase honen bukaeran. Europara itzultzeko urrats handia eman zuten irundarrek.

IRUN

Azken minutuetan larrialdi ugari pasa ondoren, Elgorriaga Bidasoak 26-25 irabazi zion atzo Barcelonari. Irundarrak aurretik joan ziren partidu osoan zehar, baina azken segunduetan kataluniarrak arrisku handiz gerturatu ziren. Hala ere, Villarrealenek ezinbestekoak zituzten bi puntuak eskuratu zituzten.

Lehen zatian Elgorriaga jaun eta jabe izan zen. Kataluniarrek ohizkoa duten 3-2-1 defentsa ez zen nahikoa izan irundarren erasoko jokoa geldi-tzeko. Bogdan Wentak bultzaturik irundarrek 17-11ko abantailaz joan ziren atsedenaldira. Ezin aipatu gabe utzi Miguel Angel Zuñigak lehen zati horretan, eta gero partidu osoan zehar, egin zuen lana. Irundarren kapitainak goi mailako lauzpabost geldiketa egin zituen, eta horiek funtsezkoak izan ziren taldea garaipenera bultzatzeko.

BIGARREN ZATIAN LARRI

Bigarren zatian gauzak bestelakoak izan ziren. Hasi bezain pronto kataluniarrek 3-1eko partziala egin zuten beraien alde. Hortik aurrera Valero Riverarenak irundarrak baino hobeto aritu ziren erasoan eta arrisku handiz gerturatu ziren markagailuan. Hamasei minutu falta zirela kataluniarrak hiru goletara jarri ziren eta bi minutu besterik falta ez zirenean partidua berdindu egin zuten. Hori izan zen zalantzarik gabe partiduko momenturik larriena irundarrentzat.

Une horretan epaileek Xabier Mikel kaleratu zuten eta irundarrek jokalari bat gutxiagorekin jokatu behar izan zuten azken minutu t'erdian. Hala ere, Elgorriagakoek beste gol bat lortu zuten Bolearen eskutik.

Azken finean Elgorriagak merezitako garaipena eskuratu zuen. Garaipen honek irundarren une bikaina isladatu du. ASOBAL Kopan Villarrealenek Europara itzultzeko txartela lortzeko aukera paregabea dute.



Defentsan lan bikaina egin zuten Juantxo Villarrealen jokalariek. JOXEAN GOYA

ZALDI LAZTERKETAK

Faborito argiak gaurko ihardunaldian

DONOSTIA

Gaur jokatuko den neguko denboraldiko bigarren ihardunaldian faborito argiak ditu. Lehenengoan, Urko Saria, Faro Galea eta Isla Cristina dira garaipenerako hautagai nagusiak. Zohska Sarian Cascada, Palm Islanden Tineo, Banco Exterior de España sarian Red Baby eta Agia Marina, eta azkenekoan Malandrin dira gainontzeko faboritoak.

Lasterketak 11.45etan hasiko dira eta azken orduko hutsik gertatzen ez baldin bada, 51 zaldi izango dira. Gainera, esan beharra dago Alborada zalditegiak hogeitamar zaldi jarriko dituela salgai bihar.

ZIKLOKROSA

Vervaet da faborito Andoainen

ANDOAIN

Stephen Roche, Gonzalez Salvador, Jokin Mujika, Eduardo Chozas, Joxerramon Izagirre, Paco Sala, Insausti, Herrigers eta Vervaet, besteak beste, izango dira gaur Andoaineko ziklokroseko irteeran. Errepideko txirrindulariek jende ugari erakarriko dute zirkuitura, baina proba irabazteko faboritoak Herrigers eta Vervaet espezialistak dira.

Eguerdiko hamabiak eta laurdenetan hasiko den proba (aurretik kadeteek eta jubenilek korrituko dute) 2.200 metroko zirkuituan egingo da. Azken egunotako euriek lokaztuta utzi dute Andoaineko ibilbidea, eta ondorioz txirrindulariek lan ugari egin beharko dute.

Atzerritarrak faborito izanda ere, Izagirre lanak emateko moduan da.

ZUMAIAKO UDALA

DEIALDIA

Kontuartzaile zientzia Enpresarialetan edo Ekonomikoetan Lizentziatua behin behineko izaeraz kontratatzeko, lanetan aritzeko.
INSTATZIAK AURKEZTEKO EPEA: 1.992ko Urtarrilaren 7a.

Zumaia, 1.991ko abenduaren 20an.
ALKATEA

ORDIZIAKO JAKINTZA IKASTOLAK

Goi zikloan soinketako irakasle bat behar du, hiru hilabeteko ordezkapen baterako.
Bete beharrak:
-E.G.A. Tituloa. -Magisteritza tituloa,
Soinketako ezagutzak kontutan hartuko dira.
Datuak bidaltzeko epea: Abenduak 27
Zuzenbidea: Altamira Auzoa z/g 20240 - ORDIZIA

Euskal musikaren erritmoan ari gara
DISKETXEA
San Roke Auzoa 45 96 29 / 46 29 64
Arbaitzalde etxea 20009 DONOSTIA

PILOTA



Juan Mari Goldarazena.

Finalerako txartela eskuratu zuen Iturzaeta-Marurik

RAMON BASALDUA / **BILBO**

Euskadiko pala txapelketako finalean parte hartzeko txartela eskuratu zuen atzo Jose Mari Iturzaeta eta Marurik osatutako bikoteak, Fede Arribillaga eta Goldarazenari 45-36 irabazi ondoren. Partidu hau bi bikote horiek jokatzen zuten hirugarren zen. Lehenengoa Iturzaeta eta Marurik irabazi zuten 45-32 eta Arribillaga eta Goldarazenak bigarrena 45-33.

Atzoko partiduari dagokionez, Iturzaeta eta Maruri aurreratu ziren markagailuan hasiera hasieratik eta ez zuten amore eman partidua amaitu arte. Arribillaga eta Goldarazena hiru tantutara hurbildu ziren arren (34-31), ezin izan zioten markagailuari buelta eman. Fede Arribillaga ez zen batere fin ibili atzo, Jose Mari Iturzaetari gauzak oso erraz jarriz. Gauzak horrela, Iturzaeta eta Marurik, Iriondo eta Torreren kontra jokatuko dute Euskadiko pala txapelketako finala datorren ostiralean Bilboko Deportivo frontoian.

Karteldegia

Gaurko partiduak

ASTELENA. 16.30. Satrustegi - Salbidea / Ansotegi - Urra. Ladutxe - Zezeaga / Alustiza - Arretxe. Lau t'erdian: Irazola / Murga.

DEPORTIVO. 16.30. Ziskar - Alzibar / Landea - Alvarez. Isusi II - Lizardi I / Iriondo - Otero. Sanchez - Otxandiano / Peluaga - Aia Zulaika.

DURANGO. 16.30. Altuna - Zelaia / Zarandona - Arrieta. Urizar I - Madarieta / Nuñez - Enrike. Mikel - Bilbo / Goixerri - Usutorre.

Biharko partiduak

BEOTIBAR. 16.30. Zabala - Errasti / Ariznabarreta - Martinikorena. Bengoetxea IV - Galarza III / Unanue - Tolosa. Iribarren - Andueza V / Telletxea - Santi.

GERNIKA. 17.00. Aja - Zubiaga / Armendariz - Markos. Gabonetako Txapelketako finalerdia: Txikito Bolibar - Castro / Jauregi - Unanue. Elola - Zabaleta / Azkarate - Olasagasti.

Retegi II eta Maiz II finalerdietan Eugi-Errandoneari irabazi ondoren

Ostiral gauean Unanue eta Zezeaga nagusi Salaberria-Galarzaren kontra

Julian Retegi eta Antton Maizek Eskuz Binakako Txapelketako finalerdia jokatuko dute, atzo Bergaran Eugi eta Errandoneari irabazi ondoren (22-16). Patxi Eugiren joko bikaina ez zen nahikoa izan liderren kontra. Ostiral gauean, berriz, Unanue eta Zezeagak 22-12 irabazi zuten Beotibarren, Salaberria eta Galarzaren kontra.

DONOSTIA

Finalerdietarako txartela eskuratu zuten atzo Retegi eta Maizek Bergaran, Eugi eta Errandonearen kontra 22-16 nagusitzean.

Antton Maiz ohi bezain seguru atzekaldean —aurreneko hutsa 20-16 tantuan egin zuen Aranazkoak—, Julian Retegi nagusi zen aurreko koadroetan. Patxi Eugik ez zion bizkarra eman, ordea, Erasungoari eta atzera pilotakada onak bota arren —aurreneko tantuan erreboteraino iritsi zen—, Agoizkoak Retegiri ere bikain jokatu zion.

Markagailua 20-16an zela izugarrizko erreakzioa izan zuten gazteek, eta Eugik lau tantu egin zituen jarraian, dejadaz. Azken bi pilotak, ordea, txapapera bota zituen Agoizkoak, eta hor amaitu zen partidua.

UNANUE-ZEZEAGA NAGUSI BEOTIBARREN

Unanue eta Zezeagak finalerdietara sailkatzeko urrats garrantzitsua eman zuten ostiral gauean Beotibarren, Salaberria eta Galarzari 22-12 irabaztean. Atzean partidu kaskarra egin zuen Baraibarkoak, eta Zezeagak tantu askotxo galdu arren, Uberakoa nagusi agertu zen piloteoan. Aukera hori aprobetxatuz, Unanue partiduko izarra bilakatu zen. Añorgakoak ezker gantxoz tantu bikainak lortu zituen, eta Galarzaren erresto ahulei dejada politak eginez erantzun zien.

Azkar hartu zuten aurrea gipuzkoarrek (11-1). Zezeaga piloteoan nagusi azaldu arren huts batzuk ere egin zituen. Azken tantuetan Unanue izan zen protagonista, dejada eta bipareta izugarriak eginez.



Julian Retegiri lan handiak eman zizkion Patxi Eugik. CARLOS VILLAGRAN

Eskuz Binakako Txapelketa

A multzoa	J	I	G	A	K	Pt.
1. Retegi II-Maiz II	3	3	0	66	35	3
2. Alustiza-Tolosa	3	1	2	41	47	1
3. Eugi-Errandonea	2	0	2	19	44	0
B multzoa	**J**	**I**	**G**	**A**	**K**	**Pt.**
1. Unanue-Zezeaga	3	2	1	60	52	2
2. Bergara II-Arretxe	2	1	1	40	38	1
3. Salaberria-Galarza	3	1	2	50	60	1

Joxean Agerre.

Arregi-Mujika nagusi Galarretan

DONOSTIA

Miguel Zestauri omenaldia egin zitzaion atzo Galarretan, eta tarteko Erremonte Txapelketako partidua izan zen jokoan. Arregi eta Mujika I jaun eta jabe agertu ziren Intxaurburu eta Agerreren kontra, txapelketako bikote indartsuena dela erakutsiz. Emaitzak argi erakutsi zuen pilotalekuan gertatu zena (40-26). Hasieratik aurrea hartu zuten sailkapeneko liderrek, eta gero Agerrek onartu zuen moduan «ezin izan diogu buelta eman». Imanol Mujikak bikain jokatu zuen atzekaldean, eta txapela kentzeko modukoa izan zen Arregiren lana, izugarria defentsan zein tantua erabakitzean. Galtzaileak, berriz, ez ziren oso fin ibili eta gero eta zailagoa dute finalera sailkatzea.

Erremonte txapelketa

	J	I	G	TA	TK	Pt.
1. Arregi-Mujika I	5	5	0	200	143	5
2. Matxin-Aizpuru	5	3	2	174	179	3
3. Intxaurburu-Agerre	6	3	3	215	215	3
4. Altuna-A. Lekunberri	5	2	3	167	160	2
5. Aseginolaza I-Mujika II	5	0	5	148	200	0

LABURREAN

FIBAk Baltikoko errepublikak onartu zituen atzo

Nazioarteko Saskibaloi Federazioak (FIBA) Letonia, Lituania eta Estonia, hau da, Baltikoko errepublikak onartu zituen atzo. FIBAko zuzendari batzordeak Ukrainia, Georgia, Eslovenia eta Kroaziaren eskakizunak ere aztertu zituen, baina gai horren inguruan ez zuen inolako erabakirik hartu. FIBAk hartutako erabakiaren ondorioz, Lituania, Letonia eta Estoniak ekainaren hogeitabitik uztailaren bosta bitartean jokatuko den olinpiadak aurreko txapelketan hartuko dute parte ●

KRONBERGERrek irabazi zuen Serre Chevalierren

Petra Kronberger austriarrak irabazi zuen atzo Serre Chevalierren jokatutako jaitsiera proba. Garaipen horren ostean Kronbergerrek Munduko Kopako sailkapeneko lehen postuan segitzen du. Atzoko jaitsieran Heidi Zurbriggen eta Miriam Vogt sailkatu ziren bigarren eta hirugarren postuetan. Bestalde, esan beharra dago gizonezkoek Saint Antonen jokatu behar zuten jaitsiera bertan behera geratu zela eta slaloma atzeratu egin zutela ●

MAGIC JOHNSON ez da saskibaloi kantxatara itzuliko

Barcelonako Joko Olinpikoetan jokatu nahi duela esan duen arren, dagoeneko kasik ziurtzat jo daiteke Magic Johnson ez dela saskibaloi kantxatara itzuliko. Bere kasua segitu duten medikuek esan dutenez, horrek modu nabarmenean okertuko luke bere osasuna. Jokatu ezinean, Johnsonek bere bizitzari buruz idaztea ekin dio. HIESA eta bere bizitza pertsonala argitzen duen lehen liburua dagoeneko kalean da ●

SESTAOk jokalari ohien aurka jokatuko du

Sestao Sport taldeak bertako jokalari ohien aurkako partidua antolatu du 75. urteurreneko ospakizun ekintzetarako. Blas Ziarretak zuzenduko duten taldean honako jokalari hauek jokatuko dute: Asier, Luke, Valverde (Athletic), Herrero (Logroñes), Gorriaran (Oviedo), Agirre (Reala), Ribera, Liaño, Josu, Albistegi, Aspiazu, Sabin Bilbao (Deportivo), Gonzalo, Joseba Aguirre (Burgos), Nuñez, Txelis, Mentxaka (Murcia), Irureta (Mallorca), Gonzalez Etxeberria (Merida) eta Ibarrondo (Rayo Vallecano) ●

AGUR, JOXEMIEL BARANDIARAN

Apurka apurka itzaltzen» joan da azken hilabeteotan, eta azkenik ezin izan du joan den asteartean hasitako krisia gainditu. Atzo hil zen Joxemiel Barandiaran, goizeko 5etan, Ataungo Sara bere etxean, bere senitartekoek inguraturik. Hamar egun besterik ez zitzaizkion falta 102 urte betetzeko. Ez du arrastorik utzi gabe alde egin mundu honetatik. Gaur arratsaldean Ataunen egingo diren hileta elizkizunak izango dira horren lekuko.

Lurra emango diote gaur

Arratsaldeko 4.30etan hilobiratuko dute Joxemiel Barandiaran Ataun San Gregorion

ATAUN

Joxemiel Barandiaran etnologo eta antropologo ataundarra atzo hil zen, goizaldeko 5etan, 101 urte zituela, Ataungo Sara bere baserrian. Azken arnasa hartu zuen arte, hurbileneko senide eta lagunez inguraturik egon zen. Barandiaran Fundazioko kide den Gurutze Arregi, bere iloba Pilar Barandiaran, Jose Maria Galparsoro eta Mariatxo Barandiaran, eta azken urtean Barandiaranen zaintzeko ardura izan duen Begoña Labaca moja berarekin izan ziren hil zen momentura arte.

Joan den astearte eguerdian hasi zen Joxemiel Barandiaranek azkenean ezin gainditu izan duen krisia. Donostiako Arantzazuko Ama eritetxera eraman zuten orduan. Gero, hobera egin eta Ataungo bere etxera eraman bazuten ere, herenegun bere egoera larritu egin zen. Elizakoak hartu eta gauean, apurka apurka itzaldu egin zen Ataungo maisu handia, harik eta gaueko 5ak inguruan hil zen arte.

Bizirik segitu izan balu, 102 urte beteko zituzkeen Joxemiel Barandiaranek hil honen azken egunean. Hileta elizkizunak gaur egingo dira, arratsaldeko 4.30etan, Ataun San Gregorioko eliza nagusian. Ondoren, Ataungo hilerrian emango zaio lurra Barandiaranen gorpuari. Bere ilobek eramango dute hilkutxa Saratik San Gregorio parrokirako Elizbidean.

● Miresle ugari zituen Barandiaranek Euskal Herri osoan. JOSE SIMAL

ERAKUNDE ETA ALDERDIEN DOLUMINAK

Jose Antonio Ardanza, EAEko lehendakariak, «Joxemiel Barandiaranen irudia, jarraitu beharreko eredua izango da» esan zuen Gasteizen. «Barandiaranen inguruan kontsentsua zegoen, eta hori ez da maiz gertatzen gure artean. Barandiaranen antzeko pertsonaia handien beharra du euskal gizarteak, beste era bateko irudia sortzeko».

Herri Batasunako Mahai Nazionaleko lau ordezkari Ataungo Sara baserrian izan ziren atzo eguerdian, Barandiaranen hil kapera bisitatzen: Jose Luis Elkoro, Iñigo Iruin, Rufi Etxeberria eta Jose Maria Olarra. «Euskal kulturaren patriarka izateaz gain, gure euskal nortasun nazionalaren berreskuratze ahaleginetan erreferentzia historiko garrantzitsua da Aita Barandiaran», zioen HBkoek zabaldu zuten agiriak.

Jaime Mayor Oreja Euskal Herriko PP alderdiko lehendakaria ere Sara baserrian izan zen, eta «Barandiaran, euskal munduari dimentsio unibertsala ematen asmatu izan duen gizonetako bat» izan dela azpimarratu zuen.

Alberto Ansola Arabako diputatu nagusiak, Barandiaranen heriotza «galera handia dela» esan zuen, «euskal kulturarentzat oro har eta arabarrarentzat bereziki». Jose Alberto Pradera Bizkaiko diputatu nagusiak, berriz, «Barandiaranen heriotzarekin gure sustrairik sakonena ihartu zaigu». Juan Maria Bandres EEko lehendakariak «Euskal Herriaren historian, Barandiaran mito bat izango da» esan zuen, eta Jesus Egiguren PSE-PSOEko idazkari nagusiak Barandiaranen tolerantzia eta gizatasuna azpimarratu zituen.



● Hil kapera Barandiaranen laneko gelan ezarri zuten, antigoaleko hilzapi baten gainean, haltzari zaharrez inguraturik, CARLOS VILLAGRANen aragazkiak erakusten duen bezala.

GABONAK SEGURA IRRATIAN

ABENDUAREN 23tik urtarrilaren 3arte goizeko 10etatik 11etara...
"UMEENTZAT ZORIONA": Haurrei beraien kantak eta ateraldiak irratiratzeko aukera emanez.
ABENDUAREN 24ean arratsaldeko 5etatik 8etara irratsaio berezia. Gonbidatuak:
TAPIA eta LETURIA TRIKITILARIAK
I. LAZKANO eta J. SARASUA bertsolariak
GILLERMO SEGUROLA txiste kontalaria
Doinu aliai, txiste, sari, bertso, eta umore ona ziurtatua.
ENTZULE..., Gabon arratsalde atsegina, alaia, apartekoa pasa nahi baduzu, kontuan hartu SEGURA IRRATIAN zuretzako tokia gordeta dugula. FMko 89,2an elkarrekin egongo gara!!

EGUBERRI ETA URTE BERRI ON !

AGUR, JOXEMIEL BARANDIARAN

Mundu batean jaio eta beste batean hil

Joxemiel Barandiaran Aierbe, Ataungo San Gregorioko Murkondo auzategiko Peunezarre baserrian jaio zen, 1989ko abenduaren 31n. Urte berean, ikusi zuen argia euskal antropologiari buruzko lehen liburuak: 'El Pueblo Euskalduna. Estudio de Antropologia' Telesforo Aranzadik idatzia.

Bederatzi senideen artean gazteena. Bere aitak kulturarekiko sentsibilitate berezia izan zuen. Joxemielen arreba Mikaelari piano bat ekarri zion etxera. Joxemiel bera herriko koruan kantari aritu zen. Eskolan gaztelerarekin egin zuen topo. Beldurrez airean igarotzen omen zituen eskola orduak, ez bait zuen erdaraz tutik ulertzen, eta hala beharrez buruz ikasi behar makina bat hitz zerrenda, olerki eta otoitz zer esaten zuen jakin gabe.

Txikitandik izan zuen apez izateko asmoa. Hamalau urte zituelarik, Baliarraingo Prezeptoria izeneko eskolara joan zen aitarekin batera. Bertan ezagutu zuen Manuel Lekuona. Lagun handiak egin ziren eta gerora ere lan asko egin zuten elkarrekin. Manuel Lekuona izan omen zen, hain zuzen, Joxemielengan ikerketa sua piztarazi zuena eta lan horietara bultzatu zuena. Eskolan, ez ei zebilen oso pozik etxekoei egin erazten zien gastuengatik batipat, eta gaztelera gutxi zekienez, gauza onik egingo ez zuelako susmoak harrapatu omen zuen Barandiaran. Ikasketa bi urteak, batean egin zituen eta halaxe baretu ziren Joxemielen kezkak.



● Bazter ugari arakatu zituen. Honako honetan, Urnietako inguruetan dagoen Marizulo izeneko kobazuloaren atean, zenbait apunte hartzen, 1960an.

● 'Ad Astra' izeneko hidroabioian, aireratzera zihoazela. Berarekin Telesforo Aranzadi, eta honen emaztea eta alaba ageri dira.

● Korrikaren seigarren edizioan Barandiaranek eraman zuen testigua.



● 1938ko erretratua. Garai hartan Iparraldera alde eginda zegoen.

INTERPRETATZEKO, BIZI EGIN BEHAR DA

Gasteizko apaiztegira joan zen 1906an. Fisika eta geologiarekiko zaletasuna orduantxe piztu zitzaion. Fisikako laborategiko arduradun izendatu zutenean atzerriko hizkuntzak ikasteari ekin zion, alemana, frantsesa eta ingelesa.

Leipzig-a joan zen 1913an Wilhelm Wundt irakasle marxistak herrien psikologiari buruz emandako ikastaro batera. Wundt izan zen Euskal Herriko kulturari begira arazi ziona. «Bizi ez dena, zail da interpretatzen».

Hurrengo urtean irakasle izendatu zuten apaiztegian. Aita 1914eko udan hil zitzaion, dagoeneko zabaldua zen Ataungo apaiz haren ospea. Lehen Mundu Gerra piztuta zen ordurako eta udapartean tramankulu bat osatzea lortu omen zuen galena, antena, jostorratz eta zilar papera zuena. Hari esker Londres, Parise eta Alemaniako berriak komunikabideek baino lehenago jakiten zituen eta jendeari esan. Baina susmo txarrak zabaltzen hasi ziren herrian eta herritik kanpora ere, espioitza lanetan ari ote zenarena, alegia, eta zenbait salaketaren ondoren entzuketa haiek baztetzea erabaki omen zuen.

Ordurako hasia zen Barandiaran, bere ama zenaren bidez batez ere, sineskeriak, esanak, kontuak eta beste biltzen. Horietako bat Ataungo Jentilbaratzari buruzko omen zen. Leku hartan jentilak omen zeudela ehortzita eta hara igo zen 1916an. Ez omen zuen gizaki hezurrik aurkitu, txerri-hezur zenbait baizik. Hurrengo egunean Aralarrera abiatu zen. Bideko nekeak uxatzeko hats egin behar zuela eta harri baten gainean eseri omen zen, eta hala zegoela, non ikusten duen satorki baten lur apurren artean gizaki-hagin bat. Horrelaxe, ustekabean aurkitu zuen Gipuzkoako lehen trikuharri ezaguna.

● Joxe Mari Satrustegi, Luis Iriondo eta Fermin Leizaolarekin batera, beste batzuen artean, Ataungo San Gregorio auzoan eginiko argazkian.

HIRU TROGLODITA TRISTE

Aurkikuntza hauen berri emanez, 'Euskalerriaren Alde', Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratzen zuen aldizkarian bi artikulu idatzi zituen. Artikulu hauek medio, Telesforo Aranzadi eta Enrike Egurenekin harremanetan sartu zen Barandiaran.

Lehen aldikoz 1917ko abuztuaren 15ean bildu ziren Ataungo Elbarrenako Antonione Azpiko etxean Aranzadi, Eguren eta Barandiaran. Bazkalostean, Erremedioko Bainuetxera igo ziren, hurrengo egunetik aurrera Aralarko trikuharriak aztertzeko.

Gertakizunaren fruitu, 'Los tres tristes trogloditas' izenarekin bataiatu zuten taldearen adiskidetasuna sortu zen, hogei urtez elkar lanean iraungo zuena. Hego Euskal Herriko makina bat koba, trikuharri eta aztarnategi aurkitu eta ikertu zituzten. Aranzadi maisutzat onartu zuen Joxemielek eta hark erakutsi metodologia ikasi zuen: «Datuak teoriak baino garrantzitsuagoak dira».

Oñatin egin zen Eusko Ikaskuntzaren lehenengo biltzarra, 1919an. Bederatziehun partaide bildu ziren bertan. Karmelo Etxegarai historilaria, Julio Urkixo hizkuntzalaria, Azkue, Txomin Agirre, Aita Donostia, Telesforo Aranzadi, Enrike Eguren eta Joxemiel Barandiaran ziren bertan besteak beste.

Eusko Folklore izeneko elkartea sortu 1921ean eta bere lanak elkarte honen urtekarian argitaratzen hasi zen. Aldekoak eta aurkakoak ere izan zituen, eginkizun berri honetan. Eusko Folklorea ezin zitekeela itxurazko lana izan, bere bultzatzailea sotanadun bat izanik, ziotenak ere baziren. Dena dela, bilketa lan izugarria hura zela eta, Real Academia de la Lengua Española kide izendatu zuten eta berehala Euskaltzaindiakoa.

Aranzadirekin batera, Europa osoan hitzaldi ugari eman zituen. Urteetan zehar Gasteizko apaiztegiko irakasle lanek tarterik ematen zioten neurrian ikertzen segitzen zuen, bai aintzinako aztarnen bila eta baita euskal kulturaren oinarri den gizabidearen apalak osatu asmoz.

Bere teoria nagusia ez zuen 1934. urtera arte azalduko. Orduan, askok, bere libururik garrantzitsuenetzat jotzen duten 'Euskaleri-ko Leengizona' lanean, gaur egungo euskal gizonak eta gutxienez epipaleolitikoak elementu kultural amankomun ugari agertzen dutela dio, eta horrek euskal kultura multimilenaria bakar eta beraren existentziaz pentsa erazten digula.

Espainiako gerra 1936ean lehertu zen egunean ere elkarrekin ziren Aranzadi eta Barandiaran Itziarko Urtiaga haitzuloan. Ondoren banandu eta ez ziren gehiago elkar ikusi. Iparraldera joan zen 1936ko irailaren 20ko gauen 'El angel de la Guarda' izeneko itsasuntzian Mutrikuko portutik abiatuta. Denbora gutxirako zirudien bidaia hark hamazazpi urte iraun zuen, «simpatizante de ideas judeo-masonicas y rojo separatista» salaketa jarri bait zioten Madriletik. Barandiaranen esanetan, «han hamazazpi urte egin behar izan nituen, 'ona ez bait nintzen'».

Makina bat aldiz egoten omen zen Miarritzetik Ernio mendira begira, handik jaiotetxea ikusten zela bere

AGUR, JOXEMIEL BARANDIARAN

Maisu zaharrak esanak

buruari errepikatuz. Angelu, Miarritze, Belok, Baiona, Sara; lehenengo urteetan batetik bestera ibili zen harik eta Saran piskanaka sustraiak bota zituen arte. Manuel Intxaustiri esker ireki omen zitzaikion 1937an Iparraldean lan egiteko ateak.

Gerrate giro hartatik alde egiteko aukera izan omen zuen, Filipinetatik eta New Yorketik bertako unibertsitatetara lanera joateko deia jaso bait zuen, baina bertan geratzea erabaki zuen. Saran Bidartea izeneko etxean finkatu zen bere iloba Pilarrekin batera.

Bigarren Mundu Gerran, alemaniarrek Iparraldea hartu zuten 1940an. Garai hartan Frantziako Ministeritzaren enkarguz egiten zuen lana, Iparraldeko arkeologia sailean, baina alemaniarrak etorri zirenean hauen baimena behar zuen lanerako. Garai hartako alemaniar intelektual askorekin harremanak izateko aukera izan zuen, Bouda, Hermann eta besterekin. 'Paideuma' aldizkari alemaniarretik eskatu zitzaion 'kolaborazioa' dela eta Gasteizko Apaiztegian zituen materialea behar zuela adierazi zuen Barandiaranek. Bere iloba Pilarri Irungo mugan kendu zizkioten materialak hain zuzen. Kontrabandista baten bitartez, egun gutxitara soldadu alemaniarrek ekarri zioten aduanan kendutako materialea. «Ni ez nengoen oso lasai, batez ere, jendeak nitaz pentsa zezakeenaz, alemaniarrekin ondo moldatzeko aukera bait nuen. Bada ez bada ere, Frantziar agintariengana jo nuen kezka hori azalduz eta berehala erantzun zidaten esanez: ...zuri alemaniarrek ez dizute gerraterako laguntzarik eskatu, kulturarako baizik, eta kultura unibertsala da, guztiona, beraz lasai ibili zure eginkizunetan».

Hitzaldiak, ikerketak, aldizkariak argitaratu eta banatu, etengabe segitzen zuen Euskal Herriaren bizikera eta izakera biltzen. Europan zehar kongresuz kongresu ibili zen.

Hego Euskal Herrira itzultzeko lehen aleginak 1941ean egin ziren. 1953an Salamancako Unibertsitatean hitzaldi batzuk emateko aitzakiaz, polizi fitxa hautsi eta horrela etorri ahal izan zen berrio Ataunera urte honetako urriaren 21ean.



● **Barandiaran, Santimamiñeko kobazuloetan, historiaurreko irudiak aztertzen.** J.SAN MARTIN

Hurrengo urtean Aranzadi Elkarteak omenaldi bat egin zion Donostiako San Telmo museoan. Hamazazpi urteren buruan ikerketak utzi beharrean aurkitu zen leku berean hasi zen berriro lanean Itziarko Urtiaga harpean. 1964ean Iruñako Unibertsitateak etnologia sailaren ardura hartzea eskaini zion. Hamazazpi urte izan zen bertan. Irakasle zela, ikerketaren bideari ezin amore eman eta Etniker taldea sortu zuen. 250etik gora argitalpen jarri zituen plazan.

Irakaskuntza utzi 1981ean eta Ataungo Sara baserrira erretiratu zen, hala ere ez zion lanari utzi. Bisita ugari jasotzen zituen etxean. Pilar ilobaren laguntzarekin, moldatzen zen eguneroko bizitzan. Azken urtean, moja bat ere izaten zen Sara baserrian, Baradiarenen osasunak txarrera egin bait zuen azken urtetan. Irakurtzeko gai ez zela, bere ikasketa gelan eserita ematen zituen egunak, bisitan etortzen zitzaionei kaso eginez. Poliki-poliki itzaltzen joan zen bere arnasa, eta bizitza, atzo gaizaldean zendu zen arte.

● **Barandiaran euskararen aldeko ekitaldietan ibiltzen zen. Honako honetan, Luis Villasante eta bere ilobarekin, 1979. urteko Kilometroak festan.** LOUBET

Atzo batek galdetu zidan: 'Eta zuk zer derizkiozu garela mundu honetan?' Eta esan nion, geure baitan ez garela. Geure baitan bagina ez ginateke hilko. Gauza batzutan bagara geure baitan, baina gehiena balio duten gauzetan ez; zuek ere zeuen baitan zaretelako etorri zarete hona. Baina nahi baduzu ez baduzu eraman egingo zaituzte. Zeure baitan bazina ez zinateke joango. Baina ez da horrela. Ni neroni neure baitan baldin banintz, gauza bat etorriko zaidana ez litzaidake etorri sekulan. Heriotza. Horra. Nik nahi badut ez badut etorri egingo da. Ikusten al duzu zenbaterainoko balio daukagun? Gauza askotan bagara geure baitan e! Nahitasuna... Noren baitan garen? Gu baina lehenagoko eta handiagoko baten baita.

Argia, 1989-IV-23



● **Osasun arazo larriak izan arte, ez zion lanari utzi, eta beti ere medikuaren aginduz.**

Euskal nortasuna lehenengo hizkuntza da. Horrek adierazten du dela herri bat bere nortasuna duena. Hizkuntzarekin batera joaten da izakera eta hezikera, kultura. Euskarak baditu bere gauza bereziak, ez bakarrik hitzetan, baita esanahietan ere, esango dizut: euskaldun bati galdetzen baldin badiozu gauza bat berak erabili ez duena, ikasi duena esan diotelako, ba «hala, eta hala omen da» esango du; berak erabilitako gauzak era batera esaten ditu eta besteak beste era batera. Euskara, niretzat behintzat oso garrantzitsua da. Gure aurrekoena, eta haiengandik iritsi zaiguna, euskara.

Argia, 1989-IV-23

● **Horrela ikusi zuen Barandiaran, Beñat Azurmendi gure marrazkilariak, marrazki honetan.**

Baina oraingo mundua ez da orain duela 50 urtekoa bezalakoa, ez da berdina. Orduan bizi izateko ez zen erdara jakin beharrrik, ez zuen faltarik egiten. Orain erdara ikasten dute denek, eta horrek ematen dit beldur ikaragarria, beldur ikaragarria ematen dit horrek. Herriak nahi du euskara, irautea euskarak, nahi du, nahi du, baina denek erdara ikasi behar, aaai, bi hizkuntzatan nor nagusituko ote da hor...

Argia, 1989-IV-23

Ez dugu pentsatu behar, halako motibo handirik ez baldin bada, orain dela, lau edo bost mila urte hemen bizi izan zirenak ez zirela eus- kaldunak gu bezala, hori ez dugu pentsatu behar. Behar bezala adierazten ez den bitartean haiek ez zirela euskaldunak guk esan behar duguna da euskaldunak zirela. Hori esan behar dugu.

Argia, 1989-IV-23

● **Euskal Herriko txoko eta bazter gehienetan ibili zen, aintzinako gizonaren aztarnen bila.**

Mitoak, kondairak, ez dira aspaldiko denbora batean gertatutako gauzak. Gaur egun ere, mito eta kondaira asko dago bizirik, eta mito berri asko ari dira sortzen, garapenarena adibidez. Mitoak sortzen ari gara orain ere, nahiz eta ez izen hori eman, aktualitatea dutelako; baina ehun urte barru norbaitek mitotzat joko ditu. Hara, lehen, zientzia fisikoak ezin ziren ulertu eterra aipatu gabe, eta gaur egun, ez da eterra ezertarako ere aipatzen, hitzik ere ez eterrari buruz, ezagutza hauek dagoeneko kondaira zentzua dutelako, zentzu mitikoa. Beraz, zientziaren eta kulturaren historia mitoz josia dago.

El Diario Vasco, 1989-XI-31

Gu ibiltzen ginen hiru, eta esaten ziguten 'Los tres tristes trogloditas'. Los tres egia da, tristes ez, kontentu ibiltzen ginen, eta trogloditak bai, kobatan ibiltzen ginen. Gauza horiek asmatu zituenak ere!... Beno, badakizu, mundua hala da eta.

Argia, 1989-IV-23

Wundt irakaslearengandik ikasi nuena zera zen: ikasketa guztiak erlatiboak direla. Baina bereziki irakatsi zidana, besteen sinesmen eta ideiak errespetatu behar direla izan zen. Errespetu hori da, mundua ulertzen hasteko oinarria. Nere izakerari loturik izan den jokaera bat izan da.

El Diario Vasco, 1989-XI-31

Beste era batetara bizi gaituk, beste bizikera batzuei begira. Lehenago berriz, zer zan bada? Etxekoa, auzokoa eta herria, pixkabat gehixeago-gutxixeago, hori zan gure mundua, modu horretara zegoen jendea. Zer esango? Ikusmira haundirik etzegola behintzet, urrutira, hortxe, kasik batere ez. Joan huan hura ere. Etorri dituk gauza berriak, nik bizi zetuat nola sartzen joan diran eta jendeak nola hartzen zuen. Gure etxera ere, baserrira, zenbat jende etortzen zan radioa ikusteagatik! Ez zien tutik ere entenitzen, zergatio Morse alfabetoan huen eta etzekienak hura ezin zian entenitu. Hotsa aitzera, horrekin kontentu.

Goierritarra, 1989ko abendua

AGUR, JOXEMIEL BARANDIARAN

Eskola baten sortzailea

ANDER MANTEROLA

Etniker-eko etnologoa

Gizaldi honetan antropologia eta etnologia gaietan egin denik lanik sakonena eta iraunkorrena Barandiaranek egindakoa izan da. Baina lan hori ez du bakarrik egin. Gerra aurrean, erbestean eta gerra ostean taldeak sortu ditu beti Barandiaranek. Gaur egun diren prehistorialaririk ospetsuenak —Jesús Altuna, Ignacio Barandiaran...— bere ikasle izanak dira. Katedrako irakasle baino gehiago, ikerlanetako irakasle zuzenekoa izan zen. Eskola bat sortu du, eta horretan oso balio handia izan du. Bestalde, ez da ahaztu behar bere lana Europako zientzilari garrantzitsuenekin harremanetan egin zuen. Euskal ikerlaria izan da, baina Europa osoan ezaguna, gehiago lehen orain baino.

● Goian, Barandiaranen libururik garrantzitsuena: 'Euskalerriko leen-gizona' (1934). Behean, RSBAPeko kide izendatu zuteneko irudia, Iruñean egina.

MIKEL DUVERT

Lauburu elkarteko buruzagia

Garai berri bat sortu zuen

Antropologiari dagokionez, 'Barandiaranen aurreko ikerketak' eta 'ondokoak' bereizi beharra izango da. Garai berri bat sortu zuen, Ertarotik jalgi bagina bezala. Barandiaranek funtsezko egitarau zientifiko bat eraiki du, eta honekin metodologia egokituak. Gogoetaldi garrantzitsu bat ere bideratu du. Irakatsi digu nola euskal nortasuna bere baitatik pentsatu, geure buruari begiratzen ikasi digu eta gure kulturaren aztertzerako materialak definitu ditu. Euskal Herri osoaren batasuna egin zuen. Euskal Herriko eremuak gainditzen ditu eta gizadiari begiratzeko bide bat landu du.

● Leizaola eta Dorronsororekin, Ataunen egin zioten omenaldi batean.

Jakintsu apala

IMANOL MURUA

Gipuzkoako diputatu nagusi ohia

Azken urteotan berekin izan dudan harremanetan ezagutu dut, eta zera nabarmenduko nuke: jakintsua zela jakinda —berak oso ondo zekien jakintsua zela—, benetako jakintsuaren apaltasuna eta umiltasuna zuela. Gainera, gauza txikiak baloratzen ondo zekien gizona zen: edonoren bisita ohore bezala hartzen zuen, ohorea bisitariarena zenean. Ez da ahaztu behar, bestalde, apaiza zela, nire iritziz apaiz santua, eta kristau izaera gauza guztien gainetik jartzen zuen.



● 'Honoris Causa' izendatu zuteneko irudia (Bilbo, 1978ko apirila).

Jarraipena izango du bere lanak

FERMIN LEIZAOLA

Aranzadi elkarteko kidea



Bide asko zabaldu zituen, ikerketa linea berri ugari hasi zituen. Liburu asko idatzi, lan asko egin... Eta asko erakutsi izan digu beti bere ikasle izan garenoi, hala etnologo nola antropologoei. Urte asko zituen; ikusten zen itzaltzen ari zela, eta ez gaitu harritu gaur —atzo— goizeko bostetan hil delako berria jasotzeak. Nolanahi ere, nik uste dut Barandiaranek, Enrike Eguren eta Telsforo Aranzadirekin batera, 1915ean hasitako lanek jarraipena izango duela, bai etnologian, bai antropologian eta bai aurrehistoriaren ikerkuntzan. Jarraitzaile asko izan du eta jende asko gara, gaur bertan ere, berak erakutsitako bidean lanean ari garenak, Bizkaian, Araban, Nafarroan, Iparraldean, Gipuzkoan, Euskal Herri osoan zehar.

JUAN GARMENDIA

Etnologoa

Inori ez zion laguntzarik ukatzen

Gizon bezala, adiskide bat izan da beti Joxemiel Barandiaran, leiala. Pertsona ona. Denei laguntza esakini eta emateko beti prest. Inori ez zion ukatzen. Etnologiari dagokionez, lan handia utzi digu. Euskal Herrian etnologia gaiak lantzen dituen edozeinek derrigorrezkoa du bere lanetara jo beharra. Gainera oso zabala izan da bere lan etnografikoa, era askotako gaiak landu bait ditu: jaiotza, heriotza, festak, sendagintza, lanabesak... Gainera, jarraitzaile ugari izan ditu eta eskola bat sortu du, eta hori oso garrantzitsua da. Hori ez dute denek lortzen.

ZAKILIXUT

© Olariagak



Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 91

Zortzi buru txapelaren bila

Anoetako belodromoan erabakiko da gaur Gipuzkoako bertsolari txapela nork jantziko duen

Goizeko 11.00etatik aurrera pronostiko, kiniela, apostu, iritzi eta bestelako hizketak hutsean geratuko dira. Anoetako Belodromoan Gipuzkoako Bertsolari Elkarteak prestatu dituen taulen gainean, zortzi finalisten ihardunak erabakiko du nor izango den hurrengo txapeldun gipuzkoarra.

JOXAN OIZ / **DONOSTIA**

Gipuzkoako 54 bertsolariren artean azken hiru hilabeteotan izandako lehiak gaur izango du amaiera. Egaña, Euskitze, Lizaso, Mendizabal, Murua, Peñagarikano, Olaso eta Sarasuak jokatuko dute ikusmin handiz espero zen finala. Laxaro Azkune eta Martxeli Sagastumeren gaien agindupean, eta txapelketan zehar izan den epaimahai beraren puntuaketen arabera, jakingo dugu nork jantziko duen azken aldiz 1967. urtean Txomin Garmendiak Tolosan eraman zuen txapelaren oinordekoa.

Ahoz aho dabilen txapeldungai zerrenda Egaña, Euskitze eta Lizasok osatu dute. Peñagarikano eta Murua ere txapeldun ikusten dute zenbaitek. Mendizabalek luxuzko lekukoa dirudi eta Sarasua bihur daiteke hainbat ingurutan espero den sorpresa. Olasok, txapelketako *errebelazioa*, lasaien kantatu behar lukeena: galtzekorik ez du. Hau irakurtzerakoan txartelik ez baduzu oraindik, taxia eskatu eta Carmelo Baldara jo ezazu lehenbailehen, badazpada ere.

Belodromoko hamaiketakoa

Partehartzaileak: Andoni Egaña, Euskitze, Sebastian Lizaso, Mikel Mendizabal, Iñaki Murua, Angel Mari Peñagarikano, Martin Rezabal 'Olaso' eta Jon Sarasua.

Aurkezleak: Martxeli Sagastume eta Laxaro Azkune.

Epaimahaia: Antton Kazabon, Jesus Mari Etrxezarreta, Markel Arizmendi, Rufino Iraola, Jesus Mari Mendizabal eta Andoni Mendiluze.

Idazkariak: Joxemari Altuna eta Arantxa Arruti.

Sariak: Lehenegoari: txapela, trofeoa eta 250.000 pezeta (12.500 libera inguru); bigarrenari, trofeoa eta 200.000 pezeta; hirugarrenari, trofeoa eta 150.000 pezeta; gainerako bostei, trofeoa eta 100.000 pezeta. Sari berezia: txapelketako doinu aportazio aberatsena.

11.00ak bitartean:

- Sarrera saltokia: Balda pilotalekuan.
- 9.30etatik aurrera zabalik. Lehiatila berezi bat irekiko da.
- Belodromoko ateak 10.00etan zabalduko dira.
- Belodromorako sarbidea: Carmelo Baldaren aldetik.
- Aparkatzeko arazoak ziur. Garaiz ibili beraz.
- Antolatzaileekiko kolaborazioa eskatzen da.
- Saioa goizeko 11.00etan puntuan hasiko da.
- Amaiera: 14.45 inguruan.

Kantatuko ez duten batzuk

XABIER ZEBERIO Kanporaketaldian Usurbilen, laurdenetan Eibarren eta finalerdietan Oñatin kantatu duen Zeberiok maila onean ikusi du txapelketa, «finalerdietara ailegatu ginenok nik uste nahiko maila ona erakutsi genuela; eta gazteak ere, Jon Maia eta Jose Antonio Sasiain, ondo aritu ziren». Finalistei oso maila handia onartzen die eta final atarian geratzeak ez diola penarik sortzen dio: «Konforme nago, nere kanporaketan lehena izan nintzen, laurdenak pasa eta, tira, finalerdietan geratu behar». Dagoeneko behin eta berriz nonahi aipatu den Oñatiko saioko *ezbeharrak* «bueltarik ez duela» dio, «nik borondate onez erantzun nuen emandako gaiari, ez nuen asmatu..., zer egingo diogu bada, amorrazio pixkat bai, jendearen komentario batzurekin, baina nik nere borondaterik onena jarri nuen hartan». Derrigorrezkoa bihurtu omen den pronostikoa eskatzerakoan, zalantza handirik ez du: «Egaña dut buruan, gero Euskitze eta Murua eta Lizaso hor parean».

JOXE RAMON ELORZA Txapelketako lehen kanporaketan, Antzuolan, bera izan zen nagusi, 466 puntu dotorerekin. Oiartzungo azken laurdenean, ordea, agur esan behar izan zion txapelketari, finalerdietarako txartela lortu zuen Olaldek adina puntu lortu arren (430,5). Oiartzungo saioak arantza bat utzi badio ere («gartzelako gaian ez nintzen oso fin aritu» gogoratu du), egindako lanarekin «nahiko gustora» dago Elorza. Oro har, txapelketa honetan zehar saio politak entzun direlakoan dago. «Aitzakiaren bat jartzekotan, epaimahaiak gorabehera handiak izan dituela esango nuke; dena dela, hau ez da kontu berria, txapelketa guztietakoa baizik». Pronostikorik ez digu eman nahi izan, «baina neure gustokoena esan beharko banu, Sebastian Lizaso aipatuko nuke». Olaso finalisten artean izatea pozgarria iruditzen zaio, bere ustez aiarrak ondo merezia bait du ohore hau: «Zenbateko bertsolaria den orain baino lehen ere erakutsia zuen Olasok».

AITOR SARASUA Debako kanporaketan 413 puntu jaso eta txapelketa honetan zuen helburu nagusia lortu zuen: azken laurdenetan kantatzea, bere anaia Aitorrekin batera, Beasainen. Hortik aurrera ezin izan zuen egin, baina espero ere ez zuen espero eta pozik geratu zen egindakoarekin. «Ez dut uste txapelketa batean naizena baino gehiago erakutsi behar dudanik, eta nik ez dut ez gehiago eta ez gutxiago erakutsi». Gainera, «txapelketak jende asko mugitzen duela ikusi da berriz ere», baina hala ere, Sarasuaren ustez, kanporaketen ordez txapelketa egitea proposatu zuen jendeak aipatutako helburua ez da osorik bete, jende gazteari bideak zabaltzea, alegia, «ez ehunetik ehunera behintzat». Finalari begira hau da bere pronostikoa: Euskitze, Egaña, Lizaso eta Peñagarikano. Anaia ez du bostgarrenetik gora ikusten, ez bait du behar adinako motibaziorik: «Ahalegin guztiak eginik ere, Jon ez da txapela irabazteko bertsolaria, eta daukan motibazioarekin are gutxiago».

SANTI ZABALA 'LEXO' Urriaren 25 urrun hartan, Antzuolan jokatutako lehen kanporaketan, galdu zuen Lexok txapelketako trenaren txartela: «Kanporaketaldian ere izan ziren saio polit batzuk, beste batzuk diferenteak ere bai». Halaber, saio hauetan puntuatzerakoan emaitza desberdinak izan zirela uste du: «Epaimahikoen puntuazioetan aldeak izan ziren saiotik saiora». Finalerdiei dagokienez, Tolosakoak maila handiagoa izan zuela adierazi digu Lexok, baita «Telleria Olaso baino hobeto aritu zela» pentsarazi, «baina hori iritzi oso subjetiboa da». 1967. urteko finalean partaide izandako Lexok orduko maila ez zela izan gaurko saiokoa bezain ona aitortu digu, «gaurko bertsolaritza ordukoa baino maila handiagokoa bait da». Onartzen du bere pronostikoa berezi xamarra dela, lehengo ostegunean *EGUNKARIA*n bertan agertutakoa, «baina uste pertsonala besterik ez da»: Murua lehena, Egaña bigarren, Lizaso hirugarren eta Sarasua laugarrena.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 91

EGUNKARIAren irakurleek Euskitze dute faborito

J.O. / **DONOSTIA**

Xabier Perez 'Euskitzek' ditu Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 91ko txapelduna izateko aukera handiena, EGUNKARIAren irakurleen iritzia kontutan hartuz gero. Izan ere horixe bait da EGUNKARIAk berak antolaturiko *Bertso kinielan* parte hartu dutenen artean ageri den usterik zabalduena.

Lehiaketa itxita, 1.600 kiniela inguru jaso dira gure administrazio bulegoan. 'Bertsolaritzaren historia' bildumako harpidetza bat jokoan, lehiakideek hiru izen aukeratu behar zituzten: txapeldunarena, bigarrenarena eta hirugarrenarena. Txapeldun postuaren emaitza nagusiak zenbaturik, honako hauek izan dira atera zaizkigun portzentaiak: Euskitzek botoen % 40,3 eskuratu du bere alde; Lizasok, berriz, % 32,2; Egañak % 24,1; Peñagarikanok % 2,4 eta Jon Sarasuak % 0,8.

Jakina, datuok ez dute inolako balio zientifikorik, baina gure irakurleon nolabaiteko zaletasuna agertuko lukete, sikiera.

Lizaso, Euskitze eta Egañak dute txapela lortzeko aukera handiena

Hala dio Joxerra Garziak 'Bertsolari' aldizkarian kaleratutako azterketak

Arrazoia, txukuntasuna, baliabideak, kantaera eta euskara neurri gisa hartuta, Joxerra Garziak txapelketa honetan ihardun duten hamahiru bertsolariren bertsogintza aztertu du 'Bertoslari' aldizkariaren zenbaki berrian, txapeldun bila. Emaitza datozen errenkadotan laburbilduta.

JOXAN OIZ / **DONOSTIA**

'Hiru buru eta aburu bat' izenburuarekin 'Bertsolari' aldizkariak plazaratu berri duen laugarren zenbakian argitaratu du Garziak azterketa hau. Asmoa, txapelketarako pronostikoa tajutzea izan da, baina, «bertsogintzari berari dagozkion irizpideen arauera», Garziak lantxo honen sarreran agertzen duen bezala. Egileak berak aitortzen du, hala ere, artikuluan bertan, «bertsogintza ez dela zehatz-mehatz neurtu litekeen zientziarik».

Arestian aipatutako bost alderdiak bereizi ditu Joxerrak azterketa egiteko orduan: arrazoia, txukuntasuna, baliabideak, kantaera eta euskara: «Beraz bereizi ezinezko diren bertsogintzaren bost alderdi horietan nota bat ezarri diot bertsolari bakoitzari, eta hortik ateratzen da faboritoen zerrenda». Azken emaitza moduan, puntuazioaren arabera hiru bertsolari besterik ez baditu kontuan hartu (beheko koadroaren agertzen direnak), honako bertsolariok osatzen dute Garziak osatu duen zerrenda, alfabetikoki: Egaña, Euskitze, Loidisaletxe, Maia, Mendizabal, Murua, Narbaiza, Olalde, Peñagarikano, Sarasua, Sorozabal eta Telleria.

«TXAPELDUNA HIRUEN ARTEAN»

Azterketak hiru faborito plazaratu ditu; alfabetoaren arabera aopaturik, honako hauek: Andoni Egaña, Euskitze eta Sebastian Lizaso. Lehenak, Egañak, 45 puntu bilduko lituzke Garziaren planteiamenduaren arabera, bigarrenak, Euskitzek, 44 eta Lizasok, berriz, 45 (beheko koadroan duzue guztia argiago idatzita). Laugarrena Sarasua da 40 punturekin eta bostgarrena urrun xamar geratuko litzateke: «Gauzak normal, hiru horien artean behar luke txapelduna».

Laburrean, hau da Garziak aspaldi egina zuen azterketa irizpideen nondik norakoa: «Bat, *arrazoia*, gai bat eman eta haren irtenbide eta heldulekurik aproposen, egokien, ugarienak, bapatean asmatzeko ahalmena; bi, *txukuntasuna*, teknikari dagokiena, errima etenak eta gainontzekoak; hiru, *euskara*, hizkuntzari dagokion zuzentasun gramatikala; lau, baliabideak, hizkuntzari dagozkion gainerako trebetasunak: esamoldeak, irudiak eta beste; eta bost, *kantaera*, solfeoari dagokiona, baina areago, entzulearengana iristeko gaitasuna».


Euskitze, txukun eta dotore. J. EGAÑA


Egaña, arrazoi berriak. J. EGAÑA

Lizaso, ahozko tradizioa. J. EGAÑA

	Egaña	Euskitze	Lizaso
Arrazoia	10	8	10
Txukuntasuna	9	10	8
Euskara	9	10	9
Baliabideak	10	7	9
Kantaera	7	9	9
Denera	**45**	**44**	**45**

IRAGARKI MERKEAK (943) 46 90 22

34x37mm
34x37 MODULOA
EGUN BAT 1.680pta/84l.
ASTEBETE 8.320pta/416l.
BI ASTE 14.400pta/720l.
HILABETE 20.200pta/1.010l.

34x17mm
EGUN BAT 840pta/42l.
ASTEBETE 4.160pta/208l.
BI ASTE 7.200pta/360l.
HILABETE 10.100pta/505l.

BMW R65 MOTOA SALGAI. SS-P. 25.000 Km, EZIN HOBEA. Tfnoa.:(943) 55 72 68
EGUN BAT 420pta/21l.
ASTEBETE 2.080pta/104l.
BI ASTE 3.600pta/180l.
HILABETE 5.500pta/275l.

BERBA
LOGOPEDIAKO GABINETEA
HIZKUNTZ ETA HIZKETA ARAZOAK ZUZENTZEN DITUGU
Manuel Allende, 23-1.A
48010 BILBO
Tfna.: 410 02 92

IRAKASLEAK BEHAR DIRA
HERNANI LASARTE eta USURBILEN
DEI : 55 78 01
HERNANI ALORRA A.E.K

oskorri osoa
ELKAR
COMPACT disc DIGITAL AUDIO
zure ohizko disko dendan
Gabriel Arestiren oroimenez
Mosen Bernat Etxepare 1545
Oskorri
Plazarik plaza
...eta oskorri sortu zen
Adio Kattalina
Alemanian euskaraz
Hau hermosurie
In fraganti
15 urte ...eta gero hau!
Datorrena datorrela
Hi ere dantzari

HEGOAMERIKA
AIRE-TARIFAK MADRILETIK

91/12/15a arte		91/12/15etik aurrera
119.500	MEXICO	132.500
139.500	GUATEMALA	145.700
139.500	COSTA RICA	145.700
139.500	MANAGUA	145.700
139.500	PANAMA	145.700
112.700	PUERTO RICO	119.300
119.300	SANTO DOMINGO	132.500
119.300	CARACAS	125.900
125.900	BOGOTA	132.500
142.800	GUAYAQUIL	155.900
145.000	LIMA	159.000
192.200	BOLIVIA	198.800
181.900	TXILE	188.300
	BUENOS AIRES	167.200
	MENDOZA	174.400

OHARRA: Ezeztapen oro 5.000 pta. kostatuko da. Ezein Aldaketa 3.000 pta.

TRANS THINDOKI, S.A.
FRANZISKO GAZKUE, 1 / Telf.: 52 45 12 / 20100 ERRENTERIA
ETXAGUE GENERALA, 14 / Telf.: 42 38 84 / 20003 DONOSTIA
URDANETA, 11 Behea / Telf.: 88 72 00 / ORDIZIA
LEGAZPI, 8 Behea / Telf.: 72 37 76 / ZUMARRAGA

ZINEMA-BIDEOA

• ESKORIATZA
'El secreto de los fantasmas'. Herriko zineman 16.30etan.
'Arma letal'. Herriko zineman 19.00etan.

• GASTEIZ
'Mikelin 91' bideo emanaldia AA.VVko aretoan (Uribegela 6) 13.00etan.

• GETXO
'Regreso al futuro III'. Algortako Gurea zineman 12.00etan.
'El novato'. Algortako Kultur Aretoan.
'Conexion tequila'. Erromoko Kultur Aretoan.
'El imperio del sol'. Areetako Kultur Aretoan.
'Mi vida como un perro'. Andra Mariko Kultur Aretoan 16.30 eta 20.00etan.

• LEITZA
'Los aristogatos'. Herriko zineman 17.00etan.
'Los inmortales II'. Herriko zineman 19.00etan.

• MUNGIA
'Gabon kanta'. Torrebillela kultur etxean 12.30etan.

• ZUMAIA
'Mi amigo Mac'. Maria eta Jose Ikastetxeko Aretoan 17.30etan.

MUSIKA

• ARETXABALETA
Chili Confetti eta E.H. Sukarra. Gaztetxean 20.30etan.

• ARRASATE
Labanak eta Pleasure Fuckers. Gaztetxean 21.00etan.

• ARRIGORRIAGA
Ondarreta Abesbatza eta Scherzo boskotearen kontzertua. Mª Magdalena elizan 20.00etan.

• AZPEITIA
Euskal Herriko Gaztetxoak Eguberri Kantak Kantari. Arabatik: Marianista Eskolania eta Olabide Ikastola. Bizkaitik: Abeslari Txikiak eta Seber Altube Korala. Gipuzkoatik: Bergarako Musika Eskola eta Easo Txiki. Nafarroatik: Santo Tomas Abesbatza. Iparraldetik: Espela taldea. Zelaitxo zineman 12.30etan.

• BEASAIN
Izotz taldearekin dantzaldia. Loinazko San Martin plazan 18.00etatik 21.00etara.

• BERMEO
Diska Musika. Artza frontoian 18.30etatik aurrera.

• BILBO
Udal Musika Bandaren kontzertua. Arenalean 12.30etan.

• DONOSTIA
Donostiako Udal Txistulari taldea eta San Inazio Abesbatzaren kontzertua. Udaletxeko Areto Nagusian 12.00etan.
Kontserbatorioko Banda Sinfonikoa eta Orkestra Txikiaren kontzertua. Antzoki Zaharrean 12.00etan.

• GASTEIZ
Udaberria Eskolaniaren kontzertua. Coronacion de Ntra. Sra. parrokian 18.30etan.

Corazonistas Eskolaniaren kontzertua. Ntra. Sra. de Los Angeles parrokian 20.00etan.

• HERNANI
Koiuntura eta Morau. La Bodega tabernan 20.00etan.

• LAKUNTZA
Elliot Murphy. Ilargi dantzalekuan 23.00etan.

• LAZKAO
Lazkao Abesbatzaren kontzertua. Beneditarretan 13.00etan.

• LESAKA
Basakabi taldearekin dantzaldia. Plazan 19.30etatik aurrera.

• LEZO
Txistulari taldearen kontzertua. Beheko plazan 13.00etan.

• OIARTZUN
Egan taldearekin dantzaldia plazan 19.00etatik 20.30etara, eta 21.00etatik 22.00etara. **Aitor eta Bihotz trikitilariak** 20.30etatik 21.00etara.

• ORDIZIA
Santa Ana abesbatzaren kontzertua, Beti Argi bandaren laguntzaz. Elizan 20.00etan.

MENDI IRTEERAK

• BILBO
Pagasarri mendira ibilaldia. Irteera BBKren Bulego Nagusitik izango da (Gran Via, 30). Izena emateko epea, irteera lekuan bertan, goizeko 8etatik ibilaldia hasi arte izango da.

• GASTEIZ
San Adrian tunerela ibilaldia. Irteera goizeko 9etan Marianisten ikastetxe paretik.

BERTSOLARITZA

• DONOSTIA
Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren finala. Bertsolariak: Andoni Egaña, Euskitze, Sebastian Lizaso, Mikel Mendizabal, Iñaki Murua, Peñagarikano, Olaso eta Jon Sarasua. Anoeta Belodromoan 11.00etan.

• URRUÑA
Bertso saioa. Bertsolariak: Maddalen Lujanbio, Arantzazu Loidi, Kristina Mardaras, Ainhoa Munitxa, Mirentxu Mendiburu, Jesus Arzallus eta Ernest Alkat. Itsas Mendi Aretoan 16.00etan.

ANTZERKIA

• BARAKALDO
Jose Luis Alonso de Santosen 'Trampa para pajaros' antzezlana. Barakaldo Antzokian 20.00etan.

• GASTEIZ
Bekereke eta Panta Rhei taldeek 'Agua-rras' lana antzeztuko dute. Alto Campilloko lehenagoko Ur Biltegian 22.30etan.
Bombolina Titallas txotxongilo talde valentziarrak Michael Enderen 'Jojo' lana eskainiko du. Beñat Etxepare Antzokian 12.30 eta 18.30etan.

• ZARAUTZ
Goloka taldeak 'Los camellos' lana anzteztuko du kiroldegian 17.00etan.

ERAKUSKETAK

• ARRASATE
Monterron Kultur Etxea. Euskal Herriko Sestogintza. Abenduaren 31a arte.

• BILBO
Euskal Museoa. Eulalia Abaituaren 'La Ría, imágenes de otro tiempo' argazki erakusketa. Urtarrilaren 26a arte.
Arte Ederretako Museoa. Antonio de Gezalaren pinturak. Urtarrilaren 5a arte. **Luis Paret eta Alcázar**-en lanak, abendua amaitu arte. **Orazio Gentileschi**-ren 'Lot y sus hijas' lana, abendua amaitu arte. Museoko Obra Grafikoak abendua amaitu arte.
Montmartre. Juan José Torralbaren lanak. Urtarrilaren 11a arte.

• DONOSTIA
Kutxako Aretoa. (Arrasate, 12) Estibaliz Ormaetxearen pinturak. Urtarrilaren 10a arte.
San Telmo Museoa. Koldobika Jauregiren lanak. Urtarrilaren 12a arte.

• ERRENTERIA
Xenpelar aretoa. 'Euskal Baserria' erakusketa. Urtarrilaren 5a arte.

• GASTEIZ
Etorki Aretoa. Sonia Ruiz de Arkauteren zuri beltzezko marrazkiak. Urtarrilaren 15a arte.
Indepencia aretoa. Eduma-ren pinturak. Abenduaren 31a arte.
Luis de Ajuria aretoa. Fernando Albéniz-en pinturak. Abenduaren 31a arte.
'Pegatinak: dokumentu historikoa' erakusketa. Abenduaren 31a arte.

• HONDARRIBIA
Aireportua. Maria Garaiarren lanak. Urtarrilaren 6a arte.

• IRUÑEA
Lacava kafetegia. José Luis Otxoaren lanak. Urtarrilaren 12a arte.

DANTZA

• DONOSTIA
Izotz gaineko Balleta 'Izar Errusiarrak' taldearen eskutik. Txuri Urdinen 20.30etan.

BESTELAKOAK

• BILBO
Indautxuko Olentzero Herrikoia. Abenduaren 24ean, arratsaldeko 5etan irteera Euskaltegitik (Urkijo Etorbidea, 88). Antolatzailea AEK eta Kirruli K.E.

• EIBAR
Liburu eta Disko Azoka. Udaletxeko arkupetan abenduaren 24a arte.

• ERRENTERIA
Euskal Liburu eta Disko Azoka. Herriko enparantzan urtarrilaren 5a arte.

• GALDAKAO
Santomas Azoka. Igali, Barazki, Gazta eta Animalien VII Lehiaketa Erakusketa. Bizkaiko IX Txakolin Lehiaketa. Agirre Lehendakari plazan 10.00etatik 14.00etara.

• IRURTZUN
Sakanako III Literatur eta I Komiki Lehiaketaren sari banaketa eta jaialdia. Partaideak: Arbizuko Trikitilariak, Lakuntzako dantzariak, Ortzi taldea, Olaztiko dantzariak, Irurtzungo gaiteroak eta Orritz taldea. Kiroldegian 19.00etan.

• LAZKAO
Euskal Liburu eta Disko Azoka. Udaletxeko arkupean. Azken eguna.

• MUXIKA
Haur Parkea. Gaztelu puzgarria, monopatinak... Pilotalekuan 11.00etatik aurrera.

ARGIA

LIBURUDENDETAN SALGAI

EUSKAL KULTURAREN URTEKARIA 91

- Diseinu berria
- Euskal Kulturaren agenda gaurkotua
- Mahai inguru interesgarriak

EGUTEGIA 1992

- Takoan joango da
- Satutegia, ilargi, itsaso eta eguzkiaren datuak, txisteak, errezetak...
- Erosle bakoitzari egutegia zintzilikatzeko taulatxoa oparituko zaio

KARTELDEGIA

ARABA

• GASTEIZ

Azul 1. 'Fuego, nieve y dinamita' / 17.30 - 20.00 - 22.30.
Azul 2. 'La noche de los cristales rotos' / 17.30 - 20.00 - 22.30.
Guridi 1. 'Terminator 2'. Zuz: James Cameron. Akt: Arnold Schwarzenegger / 17.00 - 19.45 - 22.30. 18 gorak.
Guridi 2. 'Hamlet'. Zuz: Franco Zeffirelli. Akt: Mel Gibson, Glen Closse / 17.00 - 19.45 - 22.30. 13 gorak.
Guridi 3. 'Todo lo que quiero para Navidad'. Zuz: Robert Lieberman. Akt: Leslie Nielsen / 17.00 - 19.45 - 22.30.
Guridi 4. 'El robobo de la jojoya'. Zuz: Alvaro Saenz de heredia. Akt: 'Martes y trece' / 17.15 - 19.45 - 22.00.
Guridi 5. 'Marcelino pan y vino'. Zuz: Luigi Comencini. Akt: Alberto Gracco, Alfredo Landa / 17.15 - 19.45 - 22.00.
Guridi 6. 'La pequeña pícara'. Zuz: John Hughes. Akt: James Belhsi Kelly Lynch / 17.15 - 19.45 - 22.00.
Samaniego 1. 'Suburman comando'. Zuz: Burt Kennedy. Akt: Hulk Christopher Lloyd / 16.30 - 18.30 - 20.30 - 22.30.
Samaniego 2. 'La noche de los cristales rotos'. Zuz: Wolfgard Petersen. Akt: Tom Berenger, Greta Scacchi / 16.30 - 18.30 - 20.30 - 22.30.
Samaniego 3. 'La pequeña pícara'. Zuz: John Hughes. Akt: James Belushi, Kelly Lunch / 16.30 - 18.30 - 20.30 - 22.30.
Samaniego 4. 'Los rescatadores de Cangurolandia'. Zuz: Walt Disney / 16.30 - 18.30 - 20.30. **'Tacones lejanos'.** Zuz: Pedro Amodovar. Akt: Victoria Abril, Marisa Paredes, Miguel Bosé / 22.30. 18 gorak.
Mikeldi. 'Bingo' / 15.30 - 17.00 - 18.45. **'Thelma & Louise'.** Zuz: Ridley Scott. Akt: Geena Davis, Susan Sarandon / 20.30 - 22.45. 13 gorak.
Mikeldis. 'Terminator 2, el juicio final'. Akt: Arnold Schwarzenegger / 17.00 - 20.00 - 22.45. 18 gorak.
Mikeldis. 'Bajo la Aurora Boreal'. Akt: Nikita Mijhalkov / 16.30 - 18.30 - 20.30.
Mikeldis. 'Una rubia muy dudosa'. Zuz: Blacke Edwards. Akt: Jimmy Smith, Ellen Barkin / 18.15 - 20.30 - 22.45. 13 gorak.
Mikeldis. 'No me mientas... Que no te creo'. Akt: Gene Wilder, Richard Pryor / 16.30 - 18.30 - 20.30 - 22.45.
Mikeldis. 'Super'. Akt: Joe Pesci / 16.30 - 20.30 - 22.45.
Mikeldis. 'Hot Shots'. Akt: Charly Sheen / 16.30 - 18.30 - 22.45.

BIZKAIA

• BILBO

Astoria. 'El robobo de la jojoya'. Akt: 'Martes y Trece' / 17.30 - 20.00 - 22.15.
Avenida 1. 'Marcelino pan y vino'. / 11.15 - 16.30 - 18.30. **'Bajo la Aurora Boreal'.** / 20.30 - 22.30.
Avenida 2. 'Bajo la Aurora Boreal' / 11.15. **'Terminator 2'.** Zuz: James Cameron. / 16.30 - 20.00 - 22.30. 18 gorak.
Avenida 3. 'Los rescatadores de Cagurolandia'. Zuz: Walt Disney / 11.15 - 16.30 - 18.30. **'Thelma & Louise'.** Zuz: Ridley Scott. / 20.15 - 22.30. 13 gorak.
Avenida 4. 'La pequeña pícara'. Zuz: John Hughes. Akt: James Belushi / 11.15 - 16.30 - 18.30 - 20.30 - 22.30.
Avenida 5. 'Super'. Akt: Joe Pesci / 11.15 - 16.30 - 18.30. **'Hot shots'.** Zuz: Jim Abrahams / 20.30 - 22.30.
Avenida 6. 'El robobo de la jojoya'. Akt: 'Martes y trece' / 11.15 - 16.30 - 18.30 - 20.30 - 22.30.
Ayala. 'Una rubia muy dudosa' / 17.30 - 20.00 - 22.30.
Capitol. Ez dago emankizunik.
Campos Eliseos. Ez dago emankizunik.
Coliseo Albia. 'Terminator 2, el juicio final'. / 17.00 - 19.45 - 22.30. 18 gorak.
Consulado. 'Bajo la Aurora Boreal'. / 17.30 - 20.00 - 22.15.
Gran Vía. 'Hamlet'. / 17.15 - 20.00 - 22.45. 13 gorak.
Ideal 1. 'Terminator 2, el juicio final'. / 17.00 - 19.45 - 22.30. 18 gorak.
Ideal 2. 'No me mientas... que te creo'. Akt: Gene Wilder, Richard Pryor / 17.30 - 20.00 - 22.30.
Ideal 3. 'Los rescatadores de cangurolandia'. Zuz: Walt Disney / 16.30 - 18.30. **'El robobo de la jojoya'.** Akt: 'Martes y trece' / 20.30 - 22.30.
Ideal 4. 'Bingo'. Akt: Mathew Robbins / 16.30 - 18.30 - 20.30 - 22.30.
Ideal 5. 'La pequeña pícara' / 17.30 - 20.00 - 22.30.
Ideal 6. 'Hot shots'. Akt: Jim Abrahams / 17.30 - 20.00 - 22.30.

MARCELINO PAN Y VINO', Luigi Comencini-k zuzendutako filmea Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan dago ikusgai. Alfredo Landa, Fernando Fernán-Gómez eta Lucio Romero aktoreak apaizak dira filmean eta Nicoló Paolucci zortzi urteko italiarra 'Marcelino' da. Azkenengo hori, Comencinik aukeratu zuen milaka mutikoren artean.

Ideal 7. 'Todo lo que quiero para Navidad'. Akt: Leslñie Nielsen / 17.30 - 20.00 - 22.30.
Ideal 8. 'Suburman comando' / 17.30 - 20.00 - 22.30.
Mikeldiak. 'Thelma & Louise'. Zuz: Ridley Scott. Akt: Geena Davis, Susan Sarandon / 17.15 - 20.00 - 22.30. 13 gorak.
Mikeldiak. 'Super'. Akt: Joe Pesci / 16.30 - 18.30 - 20.30 - 22.30.
Mikeldiak. 'Marcelino pan y vino'. Zuz: Luigi Comencini. Akt: Alfredo Landa / 16.30 - 18.30 - 20.30 - 22.30.
Multi 1. 'De pura raza'. Akt: John Travolta / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.30.
Multi 2. 'Todo lo que quiero para Navidad'. Akt: Leslie Nielsen / 11.15 - 17.30 - 20.00 - 22.30.
Multi 3. 'Fiebre salvaje'. Zuz: Spike Lee / 11.00 - 17.15 - 19.45 - 22.15. 18 gorak.
Multi 4. 'Escándalo en el plató'. Akt: Whoopie Goldsberg / 11.15 - 17.30 - 20.00 - 22.30.
Multi 5. 'Tacones lejanos'. Zuz: Pedro Almodovar / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 20.00 - 22.30. 18 gorak.
Multi 6. 'A proposito de Henry'. Akt: Harrison Ford / 11.15 - 17.30 - 20.00 - 22.30. 13 gorak.
Multi 7. 'Suburban comando'. Akt: Hulk Hogan / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.30.
Multi 8. 'Tortugas Ninja II, el secreto de los mocos verdes' / 11.15 - 17.30 - 20.00 - 22.30.
Vistarama. Ez dago emankizunik.
X Aretoa 1. 'Conejos jugosos para penes rabiosos' / 11.15 - 15.30 - 16.40 - 17.50 - 19.00 - 20.10. 18 gorak.
X Aretoa 2. 'Entre nalgas anda el clima' / 11.30 - 15.15 - 16.25 - 17.35 - 18.45 - 19.55. 18 gorak.

• ALGORTA

Gurea. 'Los chicos del barrio' / 17.30 - 20.00. 18 gorak. Horrezaz gain, ikus zine-bideoa.

• AREETA

Gran Cinema. 'Cariño he encogido a los niños' / 11.45. **'Bésame antes de morir'** / 17.00 - 19.30 - 22.00. 13 gorak.

• BARAKALDO

Duplex A. 'La pequeña pícara' / 17.30. (Etenik gabeko emankizuna).
Duplex B. 'Terminator 2, el juicio final'. Akt: Arnold Schwarzenegger / 17.00. (Etenik gabeko emankizuna). 18 gorak.

• DURANGO

Kurutziaga. 'No sin mi hija' / 16.30 - 19.00 - 22.00.
Zugaza. 'Robin Hood' / 16.30. **'Los chicos del barrio'** / 19.00 - 22.00. 18 gorak.

• ELORRIO

Arriola. 'Al filo del abismo' / 17.00. **'Postales desde el filo'** / 20.00.

• GERNIKA

Gernika. 'FX2, ilusiones mortales' / 16.00 - 19.00 - 22.00. 13 gorak.

• LEKEITIO

Antzoki. 'Chatarra' / 19.00 - 22.00. 18 gorak.

• ONDARROA

Alameda. 'Escándalo en el plató' / 17.00 - 19.15 - 22.15.
Bide Onera. 'Monjas a la carrera' / 15.30. **'Colmillo blanco'** / 17.00 - 19.15 - 22.15.

• SESTAO

Amezaga. 'FX2, pensamientos mortales' / 17.30 - 19.45. 13 gorak.

• ZORNOTZA

Udal zinema. 'Los fantasmas atacan al jefe' / 17.00. **'Colmillo blanco'** / 19.30.

